

EZOHIKO SANJUANAK

Ofizialki antolatutako "ekitaldi simbolikoa" eta beste gutxi batzuk egin dira aurten Arrasateko jaietan; jendeak bere erara ospatu ditu, nahiz eta jende gutxiago ibili den kalean / 11



Peio Atxukarro, Josetxo Arrieta, Maria Eugenia Arrizabalaga, Iker Casanova eta Eneko Andueza, mahai-inguruan. Tartean, saioko bi aurkezleak. GOIENA

Kultura arloan adostasun gehien; gainontzekoetan, eztabaida nabarmenak

Uztailaren 12an egingo dituzte Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta EAJko, EH Bilduko, Elkarrekin Podemos-IUko, PSE-EEko eta PP-Ciudadanoseko hautagaien debatea eskainiko du Goiena telebistak gaur, kanpaina hasi den egunean bertan, 21:00etan

Eneko Azurmendi ARRASATE
Maria Eugenia Arrizabalaga, EAJren Gipuzkoako zerrendan bigarrena; Iker Casanova, EH Bilduren Bizkaiko zerrendan bigarrena; Josetxo Arrieta, Elkarrekin Podemos-IUren Gipuzkoako zerrendan zazpigarrena; Eneko Andueza, PSE-EEren Gipuzkoako zerrendaburua; eta Peio Atxukarro, PP-Ciudadanosen Gipuzkoako zerrendan hamaseigarrena. Hautagai horiek osatu dute mahai-ingurua.

Arrizabalagak hartu du hitza lehenik, azpimarratuz "behar-

beharrezkoa" dela Legebiltzar berri bat eratzea. "Osasun krisiaren ostean, pandemia ekonomikoa datorkigu eta demagogiak eta esloganak alde batera utzita elkarlanean hasi behar dugu".

Casanovak gaineratu du hila- ren 12an jokoan dagoena dela ze gobernuak egingo dion aurre epe laburrean "inoiz eduki dugun krisi ekonomiko larrienari". Arrietak ere bat egin du horrekin. "Azken batean, orain artekoari eutsi edo aldaketa progresistaren alde egin. Hori erabaki behar dugu", azpimarratu du.

Anduezak elkarlanari eman dio garrantzia eta Atxukarrok, berriz, ekonomia suspertzeari.

Dirulaguntzak hizpide

Ekonomiari helduta, sozialistak "ezinbestekotzat" jo du hiru arlotan planak egitea. "Enpresa txiki eta ertainei dirulaguntzak ematea eta online salmentak egiteko aukerak erraztea; autonomoei laguntzak ematea; eta, azkenik, aldi baterako lan erregulazio espedientean dauden langileei dirulaguntzak osatzea, soldata duina izan dezaten".

Atxukarrok, bestalde, EAEko hiru probintziak elkartzeari eta koordinatzeari eman dio garrantzia, "plan orokor bat sortuz", eta, ekonomia suspertzeko, "hasteko, behintzat", 400 milioi euro beharko lirakeela uste du.

Arrizabalagak dio laguntzak sektoreka ematea eta beharrea dauden herritarrei laguntzak ematea funtsezkoa dela. "Oso krisi latzak izan ditugu, eta asmatu dugu haietatik irteten. Formulak ez dira beti berdina izaten, baina badute ardatz bat komunean. Guk argi daukagu ardatz hori gure industria dela, eta erabateko lehentasuna ematen diogu industria bultzatzeari".

EH Bilduko hautagaiak, berriz, bi gako nabarmen ikusten ditu: industria sendotzea eta ikerkuntza eta garapena bultzatzea. "Horrekin batera, enplegua sortzeko oso inportantea izango da zerbitzu publikoen ekarpena. Hirugarren ardatza autonomoak, merkatariak eta ostalariak izango lirake, krisi honetan Jaur-laritzak abandonatu dituenak".

Osasun langileen formakuntzaz Arrietak ohartarazi du osasun krisiak "areagotu" egin dituela

Osakidetzan aurrez zeuden arazoak, "hala nola langile eta baliabide nahikorik ez edukitzea". Modu berean, dio osasun krisiak agerian utzi duela lehen mailako arreta indartzeko beharra, "langileek urte asko baitaramate euren egoera geroz eta prekarioagoa dela salatzen, eta arazo horiei konponbide bat eman behar zaie". Casanovak bat egin du horrekin, eta gaineratu du 7.000 lanpostu finko bihurtu behar direla. "Osasun langile kopurua %10 indartzea proposatzen dugu".

EAJko hautagaiak adierazi du pandemiak erakutsi duela osasun sistema publiko "sendoa" dagoela EAEn. "Halere, badago zer hobetu, eta baliabideak boskoiztu egingo dira, balizko bigarren olatu bati aurre egiteko".

Atxukarrok gaineratu du osasun langileek "hezkuntza iraunkorra" behar dutela, egoera berrietara egokitu ahal izateko, eta Andueza ados azaldu da ideia horrekin. "Osakidetzako langileen formakuntza hobetu egin behar da, halako egoerei aurre egiteko, baina azpiegiturei ere begirada bat eman beharko diegu", nabarmendu du.

"BOSKOIZTU EGINGO DITUGU BALIABIDEAK OSASUNGINTZAN, BADUGU ZER HOBETU"

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA
EUZKO ALDERDI JELTZALEA

"OSASUN LANGILE KOPURUA %10 INDARTZEA DA GURE PROPOSAMENA"

IKER CASANOVA
EH BILDU

"EUSKAL ZAINZA SISTEMA DOAKOA, UNIBERTSALA ETA OSOA BEHAR DUGU"

JOSETXO ARRIETA
ELKARREKIN PODEMOS-IU

"ESTATUTU BERRIA BEHAR DUGU, BATZEN GAITUZTEN GAIETAN OINARRITUTAKOA"

ENEKO ANDUEZA
PSE-EE

"400 MILIOI BEHAR DIRA EKONOMIA SUSPERTZEN HASTEKO, BEHINTZAT"

PEIO ATXUKARRO
PP-CIUDADANOS



Askotariko gizarte laguntzak

Gizarte politikei dagokionez, Arrizabalagak dio Madrilek eta Kataluniak baino hiru aldiz gehiago bideratu izan duela Jaurilaritzak, azken 31 urteetan, diru-sarrerak bermatzeko errentara. "Halere, orain arteko inbertsioa %30 igotzea da gure konpromisoa, eta kontziliazioa ere funtsezko kezka da guretzat".

EH Bilduk, aldiz, gizarte ekin-tza sistema oso baten alde egiten du. "Inor atzean ez uzteko sistema berritua, berrantolatua eta indartua proposatzen dugu".

Arrietaren ustez, euskal zaintza sistema publikoa martxan jartzea da inportanteena, "doakoa, osoa eta unibertsala".

Sozialistek zaintza sistema indartu gura dute. "Kontziliaziorako ere dirulaguntzak emango ditugu, eta zerbitzu soziale-tako inspektzioak gogortu eta sendotu", dio Anduezak.

Autogobernuaren inguruan

"Sakabanatzean gaituena nor-tasuna da, baina arlo askotan akordio asko lortu ditugu. Beraz, batzen gaituzten gauzei heldu behar diegu, eta horretan oina-

Bailarako hemeretzi hautagai

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara begira, hemeretzi debagoiendar daude alderdi ezberdinetako zerrendetan.

EAJn, bederatzigarren dago Aitor Urrutia eskoriatzarra, eta Bergarako alkate izandako Elena Lete hamabigarrena da. Gainera, egun jeltzaleek bailaran dituzten hiru alkateak ere badaude zerrendan: Maria Ubarretxena arrasatearra, Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarra eta Unai Elkoro aretxabaletarra. Horrez gain, zerrendako 23. postuan, Irune Galarraga bergararra dago Arabakoan eta laugarrena da Luis Javier Telleria antzuolarra.

EH Bilduri dagokionez, zerrendako laugarrena da Aretxabaletako Udalean zinegotzi izandako Lore Martinez; bosgarrena, Ander Rodriguez arrasatearra; bederatzigarrena, Rebeka Ubera elgetarra; Marina Madariaga bergararra hamabosgarrena da; eta Iزارo Elorza, Oñatiko alkatea, hogeita hirugarrena.

Elkarrekin Podemos-Iluren zerrendan, berriz, Eva Abuin arrasatearra hirugarrena da; eta Ezker Anitzako bi eskoriatzar ere badaude hautagaien artean: Juan Luis Merino, hamargarrena, eta Blanca Merchan, hamabosgarrena. Arabako zerrendan ere Ezker Anitzako Salva Gonzalez bergararra dago hamazazpigarren.

PSEren Gipuzkoako zerrendan ez dago debagoiendarrik. Halere, Miren Gallastegi eibartarra zinegotzia da Antzuolan eta laugarren doa Gipuzkoako zerrendan. Araban, ordea, Alberto Alonso oñatiarra laugarrena da.

Equo-Berdeak alderdiari dagokionez, azkenik, zerrendan Eskoriatzako zinegotzi izandako Rafael Bernal aretxabaletarra seigarrena da; Bergarako zinegotzi izandako Aiert Lizarralde hogeita batgarrena. Horiez gain, ordezkoen artean dago Iker Carrasco aretxabaletarra.

rrituta, guztiok eroso sentitzen garen estatutu berri bat sortu", adierazi du Anduezak. Casanovak erantzun dio nortasuna bakarrik ez dela zatiketaren eragilea. "Gutxieneko soldata edota beste hainbat eskumen hemen edo Madrilen finkatzea ez da nortasun kontu bat, gure egunerokotasuneko beharrei aurre egiteko tresnak izatea edo ez izatea baizik. Estatus berriak ezaugarri argi bat izan behar du, eskuduntza funts sakona, hemen erabaki ahal izateko".

Arrizabalagak ere estatus berri baten beharra ikusten du. "Legebiltzarrean badaude oinarri batzuk onartuta, baina adostasunak behar dira, zenbat eta zabalagoak izan, hobeto funtzionatuko duelako. Datorren urterako konpromisoa dago gizarte segurantzari buruzko negoziaketa hasteko, eta beste hainbat konpromiso ere badaude".

Atxukarrok azaldu du gizarteak ondo dakiela Espainia zer den. "Ez dugu inongo zatiketarik nahi". Arrietak, azkenik, dio kontsentsuak behar direla. Gaur egun ezin gara egon duela 40 urte bezala".

Kulturak babesa behar du

Ados daude: kulturak laguntza beharra dauka. EAJko hautagaiak dio laguntzak abian jarri direla. "Batzuek esango dute ez direla nahikoa, baina beharren eta bilakaeraren arabera neurri gehiago hartu beharra badago, hartuko ditugu". EH Bilduk tal-ka plan bat proposatzen du epe laburrera, eta luzera, berriz, aurrekontuaren %1 kultura sustatzera bideratu behar dela uste du. PP-Ciudadanoseko hautagaiak dio herritarrei kultura kontsumitzeko erraztasunak jarri behar zaizkiela bonuen bitartez. "Halaber, kultura ar- loko laguntzei dagokionez, baldintza ideologikoak baztertu egin beharko lirarteke".

Bukatzeko, tokiko hedabideak ere izan dituzte hizpide. Atxukarrok izan ezik, gainontzekoek bat egin dute esanez funtsezkoa dela tokiko euskal hedabideak diruz laguntzea, "egoera zail" horretatik ateratzeko, "ez bakarrik informazio aldetik, baizik eta euskararen sustapenaren alde egiten duten lana garrantzitsua delako". Atxukarrok ez dio erreferentziarik egin gaiari.

Teilatuekoak solariumarekin

- Beheko solairuak txokoarekin
- Terrazak

Gimnasioa eskusiboak egoiliarrentzat

2 eta 3 logela

2 logela 146.000 €-tik aurrera

lorentxoko
P23 · bizigune berria

BERGARA · www.lorentxoko.com

Bizitzaren mamia

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

Merkatuaren joerei jarraituz, **GRUPO EIBAR** entzun egin du, eta azken edizio honetan: **Lorentxoko P23k kalitate bikainari, pertsonalizatzeko aukerei eta terrazek eusten jarraitzen du, baina aurreko edizioetan baino etxebizitza estuagoak ditu metroetan eta prezioetan. Horrez gain, zure ongizaterako espazio komunak ere barne hartu ditu, hala nola egoiliarrentzako gimnasio eskusiboa, plazak eta haur-parkeak. Zatoz Bergarako gure bulegora! Eta ezagutu itzazu.**

E: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11
Enai ,1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**



Iazko Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunean Oñatin egindako mobilizazio jendetsua. GOIENA

Sexu askapenaren alde egingo dute domekan

Ekainaren 28rako, Debagoieneko herri ezberdin batean deitu ohi dute mobilizazioa TransMarikaBolloFeminista koordinadoratik. Aurten, ordea, "egoera bereziaren" eraginez herriz herriko ekintzak egingo dituzte; Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran

Maialen Santos ARRASATE

Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunerako, ekainaren 28rako, urtero deitu ohi dute manifestazioa eta ekitaldia Debagoieneko herri ezberdin batean. Aurten, Arrasaten ziren egitekoak sexu askapenaren gaineko aldarrikapenak, baina osasun krisiaren eraginez bertan behera utzi behar izan dute ekitaldi bateratua.

Herririk herri

Hala eta guztiz ere, Debagoieneko TransMarikaBolloFeminista koordinadorak antolatuta herriz herri ekimenak egingo dituzte, ekintza bateratuaren alternatiba gisara.

Zehazki, Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan eramango dituzte aurrera ekimenak; eta, koordinadorako kideek azaldu dutenez, segurtasuna eta osasun distantzia guztiak errespetatuko dituzte: "Horretarako, bizi dugun egoera berezi honetan, herriz herriko ekimenak martxan jarzea lehenetsi dugu".

Aurreratu dutenez, Arrasaten, 19:00etan elkarretaratzea egingo dute. Biteri plazan elkartzeko dira, *Identitate (des)konfinatuak* leloarekin.

Bergaran, berriz, Harrotasuna taldeak Udalarekin batera hiru ekimen "xume" antolatu ditu. Alde batetik, LGTBI+ mugimenduari lotutako ipuin bat eskegiko dute udal webgunean, haur zein helduei zuzendutakoa. Horretaz gain, argazki bilduma bat sortuko dutela azaldu dute Harrotasuna-tik; eta bertan, LGTBI+ mugimenduari lotutako edonolako argazkiak bilduko dituzte. Horiek *harrotasuna@hotmail.com* helbide elektronikora bidali ditzatela eskatu die herritarrei. Parte hartzaileen

MOBILIZAZIOETAN ETA EKIMENETAN PARTE HARTZERA ANIMATU GURA DITUZTE DEBAGOIENDARRAK

artean, herriko komertzioetan gastatzeko bi bonu zozketatuko ditu Udalak. Azkenik, *Bizipentatik normaltasunera* izeneko ekimena ere egingo dute. Zehazki, gai berari lotutako herritarren testigantzak jaso gura dituzte; eta horiek, ostean, Harrotasuna taldearen Facebook orriari (*Harrotasuna harrotasuna*) eta Instagramen (*@harrotasunabergara*) eskegiko dituzte; betiere, anonimotasuna gordeta. Testigantzak posta elektronikoz bidali behar dira, eta domeka izango da azken eguna.

Aretxabaletan, bestalde, Mugimendu Feministak antolatuta performancea egingo dute 13:00etan. 18:00etan marrazki kolektiboa egingo dute; eta 19:00etan, azkenik, elkarretaratzea eta desfilea.

TransMarikaBolloFeministak ekimen ezberdinetan parte hartzea deitu gura izan ditu debagoiendarrak, "askatasunaren ahotsa entzun eta ikusaraztea" izanik helburu nagusia.



Mondragoneko ordezkariak eta saria jaso duten ikasleak. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Gradu-amaierako proiekturik onenak saritu ditu Mondragonek

Arizmendiko Almen gunearentzat eta Ikerlanentzat egindako proiektuak dira onenak, epaimahaiaren iritziz

M.S. ARRASATE

Euskaraz egindako gradu-amaierako proiekturik onenak saritu dituzte asteon Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Korporazioak, Mondragonek Arrasaten duen egoitza nagusian. Mondragon Unibertsitateko bi proiektu saritu dituzte, zehazki. Lehen sariaren irabazleak Mainer Azkarraga-Urizar Arana, Maria Heriz Altuna eta Ainhoa Urzelai Vicente izan dira, Arizmendiko Ikerlanen Almen gunearentzat egindako *Literatura-ren emaitza Batxilergoko 2. Mailan* lanagatik, eta 1.500 euroko saria jaso dute. Bigarren sariaren irabazlea, bestalde, Unai Markina Calleja izan da, IK4-Ikerlanentzat egindako proiektu honengatik: *Fase anitzeko ibilgailu elektriko baten kontrol estrategien diseinua eta balidazioa*. Lan horrengatik, 500 euroko saria eman diote ikasleari. Halere, Mondra-

gon Unibertsitateetik azaldu dute aurkeztutako proiektu guztiek "maila tekniko handia" erakutsi dutela, eta irabazleak aukeratzeko horietako bakoitzean erabiltako euskara-maila hartu duela kontuan epaimahaiak.

Sariak Korporazioko Euskara Batzordearen ekimenez sortu ziren, unibertsitateko ikasleek lan-munduan sartzeko egin beharreko ikasketa-amaierako proiektuak euskaraz egin zitzaizten. Mondragonetik adierazi dute bederatzir urtetan guztira 571 proiektu garatu direla Enpresa-gintza Fakultatean, Goi Eskola Politeknikoan eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: "Horietatik 220 euskaraz egin dira; alegia, %38,9, iaz baino %20 gehiago". Mondragoneko kooperatibetan 155 proiektu landu dira eta bertan euskaraz garatu direnen artean 35 proiektu hartu dute parte lehiaketan.

Zerbitzu publikoak babes daitezten eskatu dute asteon

ESK sindikatuak babestuta, "duintasuna, gestio zuzena, publikazioa eta zerbitzuen hedapena" eskatzeko elkarretaratzea egin dute asteon Debagoieneko Ospitaleko langileek. Ospitalean eta Bergarako udaletxean bildu dira, osasun krisiak zerbitzu publikoetan izan duen eragin "bortitza" salatuz: "Etekin pribatua helburu duten ereduak

ez dute balio jendartearen zaintza hori bermatzeko. Pribatizazio saiakera guztiak eta klientelismoa gelditzeaz gain, zerbitzu publikoak duindu, berreskuratu, hedatu eta kudeaketa garden eta demokratiko baten pean jartzeko borrokatuko gara". Hala, sektore askoren balioa eta beharra agerian geratu direla adierazi dute. Sistema publikoa "duintzea" ezinbestekotzat jo dute, baita zerbitzu publikoak, langileak, eta azken hauen lan baldintzak hobetzeko eskatu ere.

"Guardia Zibilak soilik daki zer gertatu zen"

TXEMI GOROSTIZA SUSANA ARREGIREN ETA JON LIZARRALDEREN SENIDEEN ABOKATUA 30 urte dira ETako hiru kideren eta Guardia Zibilaren arteko Irunberriko gertaeretatik. Hiru hildako utzi zituen; tartean, Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde

Maialen Santos OÑATI

Tiroz hilda agertu ziren ETako bi kideren senideen abokatuak da Txemi Gorostiza. 1990eko ekainaren 25etik 26ra bitartean gertatutakoak "argitzeko" lanean dihardu azken urteetan; uste du informazio gehiena oraindik "argitara ateratzeko" dagoela.

Nola izan zenuen Irunberri jazo-takoaren berri?

Komunikabideak izan ziren Irunberriko gertakari baten berri ematen lehenak. Gerora jakin zen ETaren eta Guardia Zibilaren artean istilu bat izan zela, eta sarjentu bat hil zela bertan. Hildako gehiago zeudela esan zuten, baina, hasiera batean, ez zen jakin nortzuk ziren.

Bertsio ofizialak suizidio kolektibo bati buruz hitz egiten du. Zein hipotesiri eusten diozu zuk?

Suizidio kolektiboa izan zela gezurtatzeko zantzu ugari ditugu. Besteak beste, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, Guardia Zibilak hasiera batean ez zituen hildakoak zuzen identifikatu, eta horrek egoera dramatiko eragin zuen. Bestalde, garaiko politikari asko beste arrazoi batzuegatik epaituak izan ziren, baina horrek ere sortzen du mesfidantza. Horretaz gain, agente batek *El Mundo* egunkarian egindako adierazpenetan adie-



Txemi Gorostiza abokatu. T.G.

razi zuen German Rubenach – larri zauritu zen kidea – bi gorpuk zeuden toki berean atxilotu zutela 25eko iluntzean. Baina bertsio ofizialaren arabera, gorpuk ekainaren 26an agertu ziren; beraz, horrek ere eramaten gaitu bertsio ofiziala zalantzan jartzera.

Nola ulertzen duzu gorpuk hurrengo goizean agertu izana?

Zaila izan zen ulertzen, eta oraindik ere zaila egiten zait. Lehen informazioei tiraka, heriotzak nola jazo ziren argitu guran zalantza handiak sortu ziren.

Rubenachi ere leporatu zioten lagunak hil izana...

Bai. Ministerio Fiskala saiatu zen esaten Rubenachen zauriak bere buruari egindakoak zirela, eta baita berak tirokatu zuela Arregi. Prozedura judizialak gezurtatu egin zuen hori; eta horrenbestez, bertsio ofiziala.

Zein zen orduko egoera soziopolitikoak?

Oso konplexua zen. Ekintza armatuan jarduten zuen taldea zegoen, eta, dirudienez, Irunberri ere horretan zenbiltzan. Kontestu horretan, ETako kideen erantzukizun politikoak ez zuen lagundu gertatutakoa argitzen; are gutxiago, tentsio politikoak baretzen.

Une honetan, nola dago ikerketa?

Ez da existitzen. Auzitegi Nazionalak, Ministerio Fiskalak eta Estatuko Abokatzak ez zuten ikerketarekin jarraitu gura izan, baina onartu zuten ez zegoela suizidioaren tesiari eusteko elementurik. Tesi judiziala eta tesi politikoa ofiziala ez zetozen bat.

Inoiz jakingo da benetan zer gertatu zen?

Uste dut itxaropena eta konfiantza izatea ezinbestekoak direla.

Possible ikusten dut egunen batean erantzularen bat edota orain arte ezagutu ez dugun txostenen bat argitara ateratzea, eta era horretan jakin ahal izango dugu zer gertatu zen Irunberri.

Zein eboluzio izan du lehen hipotesiak?

Frogak eta testigantzak bertsio ofiziala desakreditatuz joan dira. Baina horrek ez du inondik inora esan gura gertatutakoa argitu denik.

Noraino iritsi gura duzue?

Familiak egia jakin nahi du, zer gertatu zen; eta erantzuleek egindakoarengatik ordain dezatela. Horretaz gain, gordeta dagoen informazio guztia eskuratu gura genuke, gertatutakoaren nondik norakoak ezagutzeko. 30 urte pasa dira dagoeneko, eta erantzuleek ez dute agerraldi publikorik egin. Argi dago Guardia Zibilak soilik dakiela Irunberri zer gertatu zen, baina ez dute dakiten guttia kontatu.

Zein aurrerapauso egin dituzue azken urteetan?

Bada, Rubenachen kasuan, zigorra bete behar izan du, baina askatasuna lortu du. Susana

Arregiren eta Jon Lizarralderen familiek, berriz, gura dutena da egia osoa jakitea; memoria baita oroitzapenerako geratzen zaien bakarra. Izan ere, senideak ez dira inoren kontra egiten ari, memoria duintasunez egin ahal izatea gura dute. Esan dezagun kapitulu bat dutela ixteko pendiente.

Uztailaren 1ean hitzaldia eskainiko duzu Antixeneko gaztetxean...

Hala da. Uste dut interesgarria dela belaunaldi berriei garai hartako testuinguru politiko eta soziala zein zen azaltzea; asko haurrak izango ziren garai hartan, eta beste asko oraindik jaio gabe zeuden. Gertakariak oroituko ditugu, bestalde, eta esan diren kontaketa defendezin horiei buruz berba egin. Bide batez, argitara atera beharreko txostenak badaudela ere azalduko dut.

"IRUNBERRIKO SUIZIDIO KOLEKTIBOA IZAN ZELA GEZURTATU AHAL IZATEKO ZANTZUAK DITUGU"



ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arrezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2020ko uztailaren 15ean egingo da, **arratsaldeko sei etan** lehen delaldian eta, hala balegokio, **sei eta erdian** bigarren delaldian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko Aranzadi Ikastolan. Hona hemen:

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen bostena irakurtzea
3. 2019/20 ikasturteko memoria
4. 2020/21 ikasturteko egitasmoa
5. 2019. urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
6. Galdu-irabazien banaketa
7. Testuinguru finantzarioa eta aparteko neuri ekonomikoak hartzea
8. Galde-erantzunak

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa Aranzadi Ikastolan, aurrez aztertzeko aukera dute.

Bergaran, 2020ko ekainaren 24an

Lehendakaria
Ariane Karaga Irzabaeltza

30. urteurrenaren harira, ekitaldiak

Irunberriko gertaeretatik 30 urte igaro dira. Hori dela-eta ekitaldi batzuk antolatuta dituzte Oñatin oraingo egunetan:

Joan den asteazkenean, Itzaletik Argira ziklo barruko hitzaldia eskaini zuen Floren Aioz politikariak. Zehazki, 1990eko egoera soziopolitikoak berbetan aritu zen Antixeneko gaztetxean.

Gaur, bestalde, Egiari Zor Fundazioak antolatuta oroinen ekitaldia egingo dute San Martineko hariztian, 19:00etan.

Eguaztenean, uztailak 1, Itzaletik Argira ziklo barruko hitzaldia eskainiko du Susana Arregi eta Jon Lizarralderen senideen abokatu Txemi Gorostizak. 19:00etan izango da, gaztetxean.

Bestalde, gertaeren inguruko txosten bat prestatu du Ezker Abertzaleak, eta datozen egunetan banatuko dute etxex etxe.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Anormaltasun berrian

Uste baino laburragoa egin zait konfinamenduko epea. Luzeagoa egingo zitzaidalakoan nengoen, baina beti nuen zerbait egiteko eta horrek eramangarriagoa egin zidan egunerokoa.

Batzuetan, egunak motz eta guzti egiten zitzaizkidan, orduak faltako balira bezala. Etxetik lan egiteak ere erru pixka bat izango zuen. Eta ez, ez diot telelana deituko. Izan ere, niretzako telelana lana beti etxetik egiten duen batentzako gordetako hitza da. Nik denboraldi batez etxetik egin dut lan eta kitto.

Epealdi hau amaituta, normaltasun berrian sartu berri gara. Aurreko asteburuan inguruko herri batzuetan normaltasun berria zein den ikusteko aukera izan nuen. Egian esan, normaltasun baino gehiago, anormaltasun berria deituko nioke.

Jende pilaketak ikusi nituen, jendea babes gabe elkarrengandik gertu, ozen eta gertu hitz egiten. Tarte

batzuetan musukoa eramateagatik ni sentitzen nintzen arraro, alderantzizkoa izan beharrean.

AZKAR AHAZTEN ZAIGU DENA, BAI BIZITAKOIA, BAI PASATAKOA. MEMORIA LABURRA DUGU

Azkar ahazten zaigu gizakioi dena, bai bizitakoa, bai pasatakoa. Memoria laburra dugu.

Agian, hasierako joera izango da, sartuko gara protokoloetan, baina zalantzak ditut.

Aski izan daiteke txinparta bat, baso oso bat erretzeko, eta aski da pertsona kutsatu bat birusa azkar batean hedatzeko.

Ez da erraza, aitorzen dut, baina gehiago egin dezakegula uste dut.

Ez nuke berriz etxean sartzera behartuko nindukeen dekreturik irakurri nahi. Horrela izan behar bada, bada, horrela izango da. Gauzak gaizki egin ditugun seinale. Ikasteko dugun bide bakarra, agian.

Bitartean, uztaillaren 12an hauteskundeak; parte hartzea jaitxi egingo omen da.

Axolagabetasun honekin jarraitzen badugu, ez dugu hauteskunderik, ez ezer izango. Eta egiten badira, lehengo lepotik burua: hamar gauza zin egin eta bat beteko digute.

Politikariek ere memoria eskasa izaten dute, gizarteak birusaren aurrean duen jarrera bezalaxe.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Anpolai sasoi

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gustuko dut anpolai-sasoia. Udaberrik udarako jauzian biltzen genituen anpolaiak umetan. Arbola zahar besteko sendotara igotzen ginen horretarako. Gainera, zozo eta birigarroei aurre hartzen genien askotan. Opor-usaina antzeman zitekeen orduan.

Non ote den umezaroa... Umetasunaren zantzu batzuk barnean daramatzagula esango nuke, ordea.

Bada, ona da zantzuok azalratzea, oroimenetik askatu eta bizitza beste begi batzuekin ikusteko. Umearen begiradak mundu magiko

batera garamatza; hots, anpolai-sasoira.

Gozo zein gazi, gorriak ez eze, badira anpolai zuri zein beltzak ere. Denak jaten genituen orduan, ezelako bereizketarik egin barik.

Gordintasunean aske dira umeak, aske sentitzeko, amets egiteko, nahi dutena pentsatzeko. Urteko egunik luzeenak izaten dira anpolai-sasoian. Hala ere, gauari lapurtutako orduetan posible da amets egitea. Eta amets egiten genuen orduan.

Amets San Joan bezperako suarekin.

Arrain-kaxa zaharrak-eta biltzen genituen, eta pozik ibiltzen ginen nolabaiteko auzolanean.

Halatan, San Joan bezperan zaharrak berriari uzten dio lekukoa, eta gaizkiak ongiari. Hori berori sinesten genuen orduan. Alabaina, ona litzakete sinesmen hori ez galtzea. Hurrean ere, sugarren indarra eta berotasuna behar ditugu. Erriorearen ur baretan sugarrak islatzen ziren bezala gure begietan beharko luke islatu itxaropenak.

Gero, kedar-usainetan, norberaren auzoko sua beti handiena izan zen ustean, urteko estreinako izozkiarekin eskuan, pozik ibiltzen ginen kaleetan kantari, dantzari.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publikizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKIZATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Urmuga-n, musikarekin josi nahi ditugu hegoa eta iparra"

FELIPE URIARTE MENDIZALEA

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI

Mendiak eta musika uztartuko dituen ekimen da Urmuga. Uztailearen 14an hasi eta abuztuaren 1era bitartean, Euskal Herria mendebaldetik ekialdera gurutzatuko duena.

Beti mendien bueltan; azkenaldian, beste aitzakia batzuegatik. Oraingoan, tontorrak eta musika batuta. Nolatan?

*Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere ekimenari hasiera emateko, 2018an, kontzertu bat antolatatu genuen eta, horretarako, Migel Zeberio eta El Inkarnatus orkestrarekin jarri ginen harremanetan. Kontzertua amaitu eta Himalaiara alde egin aurretik, Migelek [Zeberio] aipatu zidan zerbait egin beharko genuela mendia eta musika uztartuz. Nepalen mamitu zen ideiarene muina. **Urmugarekin Kantauri eta Mediterraneo isurialdeak josi egin nahi dituzuela diozue. Zelan?***



Felipe Uriarte, Goiena telebistan, *Hemen Debagoiena* saioa grabatzen. IBAI ZABALA

Muga kontzeptu berria da. Estatu handiek sortzen dute. Mugek zatitu egiten dituzte komunitateak, nazio txikiak... Mugak zatitzaileak dira, eta Urmugak batu egin nahi du. Ertz luze bat da, Burgostik

Barneraino, Angulotik Hiru Erregeen Mahairaino. Hari horrek ez gaitu bereizten, josi egiten du mendebala eta ekialdea, eta hegoa eta iparraldea. Kulturarekin eta musikarekin josi nahi dugu.

Ze tontor, ze paisaia, gurutzatuko ditu hari horrek?

19 egun izango dira. Burgos, Bizkai eta Arabako mugetan, Garobel mendilerroan, Tologorri mendi ikusgarrian, hasita. Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar, Ultzama, Orreaga, Burdinkurutzeta, Orhi... Hiru Erregeen Mahairaino.

Ze musikari ariko dira?

Hasierako asmoa zen kontzertu txikiak eta handiak uztartzea: mendiko kontzertuak eta herrietakoak. Dena den, salbuespenak salbuespen, herrietakoak ez ditugu egingo, COVID-19a dela-eta herrietan denok beldurtuta gaudelako. Esaterako, Otxandion bageneukan pentsatuta egitea kontzertua, baina Urkiolan egingo dugu. Kontzertu handi samarra, paraje irekian. Eta txikiak, mendi gailurtxoetan. Esaterako, Aizkorri Maddi Oihenartek abestuko du biolin jotzaile batekin eta teklatu jotzaile batekin. Kontzertu sinbolikoak izango dira. Lareoko urtegian, Azpiarro kobazuloan, Iratiko basoan... ere izango dira.

Musikariendako aukera ere bada.

Larri pasatzen ari dira une honetan, eta aukera bat da haiendako. Bestela ere, oro har, oso ideia baliagarria

irudituz zaie. 23-25 bat laguneko musikari zerrenda osatu dugu: Txomin Artola, Mikel Urdangarin, Maddi Oihenart, Alex Sardui... Azkena ekimenera batzen izan da Donostiako Orfeoia; lauzpabost tokitan kantatuko du, baita Hiru Erregeen Mahaian ere; kasu honetan, kide batzuek bakarrik.

Nola parte har daiteke?

Aukera dago 19 egunak egiteko; baita astebete edo asteburua edo aste bi edo 10 egun. Ibilaldi zati bat ere egin daiteke. Azken horretan, ez dago izenik eman beharrik; beste aukeratarako, bai.

Mendizale ez baina musika-zale izanez gero?

Webgunean sartu *-www.urmuga.eus-*, egutegia ikusi eta nahi dena aukera daiteke, propio horietara joateko. 10 bat euroko prezioa izango dute kontzertuek. Esaterako, Baigorriko Etxauzia jauregiaren aurrealdean kontzertu handi bat antolatuko dugu uztailearen 26rako. **Mendi zeharkaldi horietako egunak nolakoak izango dira?** Goizeko seietan jaiki, zazpitan abiatu... eta 9 edo 10 orduko egunak. Geografiak agintzen du. Loaldietarako, bordak, aterpeak... erabiliko ditugu; batzuetan, herrietara jaitsiko gara, ostatuetara.

ITURRI ONETIK

'Patria' irailaren 27an estreinatuko dute

Patria telesaila irailaren 27an estreinatuko duela esan berri du HBO España ikus-entzunezkoen plataformak. Bergarako bi aktore daude protagonisten artean, Mikel Laskurain eta Jon Olivares osintxuarra; Laskurainek jokatu du Joxian-en rola eta Olivares osintxuarrak honen semearena, Joxe Mari ETAKO kidearena, hain justu ere. Telesaila Sorluzen grabatu da gehienbat eta estra lanetan debagoiendar askok hartu dute parte. Europa, Hego Amerika eta Estatu Batuetara aldi berean iritsiko da.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-06-24

Arrasate garaile Herri Arteko Pilota Txapelketan

Hamahiru urte bete dira, oraingo astean, Arrasate Herri Arteko Pilota Txapelketa irabazi zuenetik. San Juan egunez, Azpeitiari gailendu zitzaion Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Hirugarrenez irabazi zuten pilotari mondragoetarrek herri artekoa. Izan ere, aurretik, 1976an eta 1979an irabazi zuten. Garaipena, hiru partidutatik bi irabazita, herritarrekin ospatu zuten Herriko Plazan, herriko jai nagusietan.



HAU BE BADOGU!

Koronabirusaren eta jaien arteko gatazka

Udarekin jaiak etortzen dira Euskal Herriko eta Debagoieneko txoko gehienetara, eta sare sozialetan ika-mika sortu du aurtengo egoera bereziak:

@urtziurkizu: "Ekainak 23, Hernani. Jaiak ez, baina etxafuegoak entzun dira. Eta orain musika ere entzuten da..."

@txapela76: "Jaiak bai... babesa ere bai!! Distantzia soziala mantendu".

@josuarraiz: "Aurten baloiko jaiak, kaldereteak, Aberri Eguna edo Maiatzaren Lehena egin baditugu, zergatik ez baloiko San Juan su txikia?"

GUTUNAK

Ekainaren 26an, presoaren aldeko manifestazioa Arrasaten**ENRIKE LETONA BITERI**ARRASATEKO SARE
ARRASATE

Martxoko eta apirilko kanpainarekin jarraitzen dugu, koronabirusak etxean egotera behartu ondoren. Sanjuanteko jai batzordearekin batera, ekainaren 26an 19:00etan Seber Altubetik aterako den manifestazioa antolatu dugu.

Konfinamenduak erakutsi digu nola den bizimodua askatasunik gabe, eta, ziur asko, gutariko askok pentsatuko zuen: gurea gogorra bada, nola izango da presoena? Ba, bai, askoz gogorragoa eta urte askotan luzatutakoa! Balio badigu kontzientzia hartzeko eta borrokari heltzeko, gaitz erdi!

Martxoan eta apirilean bete zituzten 29 eta 30 urte preso Iosu Arkauzek eta Unai Parotek. Eta galdera sinplea aireratu nahi dugu: bi preso hauei aplikatu zaie legea? Erantzuna sinplea da: lege arrunta ez diete aplikatu, eta, gainera, etengabe trikimailu desberdinak erabiliz, zigorra luzatzen saiatu dira, eta lortu ere bai.

Unai dagoeneko bete du 30 urteko zigorra! Baina Unai ETako kidea izateagatik bi aldiz epaitu dutenez, orain bigarren zigor hori betetzen ari da. Ezin da pertsona bat bi aldiz epaitu ETako kide izateagatik, baina kasu honetan horrela egin dute. Laburbilduz, euren legeak ere ez dituzte errespetatzen!

Iosuren kasuan, bereizi egin dute Frantzian

espetxean egindako denbora tartea eta Espainian egindakoa, batean zein bestean ziegak desberdinak izango balira bezala. Ze lortzen dute honekin? Modu sinplean esanda, Iosuk Frantzian egindako denbora ez kontatzea eta Espainian 30 urte bete behar izatea. Espainian atxilotu izan balute, aspaldi legoke kalean.

Bi errefuxiatuaren egoera ere salatu nahi dugu lerro hauen bidez. Lehena, Jose Manuel Pagoagak *Peixoto*. 50 urte baino gehiago darama errefuxiatuta; larriki zauritu zuen Batallon Vasco Español-ek 1979an, eta, Hego Euskal Herrira etorri gero, aske geldituko den bermerik ez du. Bigarrena, Eugenio Barrutiabengoa *Arbe*. 1978an egin zuen alde Arrasatetik. 1981ean

atxilotu zuten, Baionan, eta 1984an deportatu zuten Venezuelara. Geroztik, 35 urte daramatza Venezuelan deportatuta, linbo juridiko batean.

Lau herritar hauek etxean nahi ditugu, demokraziaren, konponbidearen eta bakearen izenean, guzti-guztiak behar ditugulako kalean.

Eta horretara dator abiatu dugun Izan Bidea ekimena. Egin dezagun Euskal Herriak dituen biztanleen adina kilometro. Bihur ditzagun gure ekintza guztiak presoak etxeratzeko aldarrikapen. Kirola osasuntsua izanik, aldarrikapen justua gehitzen badiogu, bi aldiz osasuntsu.

Bizi osoko espetxe zigorrak ez!

HANDIK ETA HEMENDIK

Hemen**ONINTZA ENBEITA**

[HTTPS://LABUR.EUS/K80DA](https://labur.eus/k80da)
'BERRIA' -N ARGITARATUA

Ez zaitez oporretan inora joan: gelditu zaitez hemen. Argazkiak eta spotak erakutsi dizkigute hemen daukagunaz ohar gaitzen [...] Aurrerabidearen izenean, inora ez doan tren bat eraikitzen ari dira... [...] Eta erreken ondoan erraustegiak eraiki dituzte, nahiz eta Europako legeek halako azpiegiturak ez dituzten begi onez ikusten. [...] Ordea, gure agintariei ez zaie interesatzen ekoizpen eredu berririk. Haiek bultzatzen dutena nekazaritza intentsiboa da... [...] hori bai, oporrak hemen gustura pasatu ditzazun aterako dizkiegu argazkiak gure betiko paisaia gordetzen ari diren utopiko txiro hauei.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

Gutuna helarazteko bideak: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Pio Garcia medikua, Quironosalud Vitoria ospitalean, Gasteizen, Femtosegundo laser makinaren ondoan. QUIRON SALUD VITORIA

Laser okularreko azken teknologia Quironosalud-en

PIO GARCIA GASTEIZKO QUIRON SALUD OSPITALEKO OFTALMOLOGOA

Quironosalud Vitoria ospitaleak Femtosegundo laser bat du urte hasieratik, kataraten eta presbiziaren kirurgietarako azken teknologia

Pio Garcia doktoreak, Gasteizko Quironosalud Ospitaleko oftalmologoa, teknika berri honekin egindako kirurgien abantailak azaldu dizkigu zehatz-mehatz.

Zer da Femtosegundo laserra?

Oso teknika berritzailea da kataraten eta presbiziaren ebakuntzetarako. Femtosegundo laserrak infragorrien mailan lan egiten du eta 100 FS-ko (10-15 segundo)

iraupeneko bulkada ultralasterak erabiltzen ditu. Bulkada horiek karbono dioxidoz eta urez osatutako burbuila bat sortzea eragiten dute, eta burbuila hori zabalduz doa, ebakuntzarako zatiketa-planoa eratuz.

Noiztik erabiltzen da?

Femtosegundo laser bidezko lehen kirurgia 1990eko hamarkadaren hasieran garatu zen Ameriketako

Estatu Batuetan, baina 2009. urtera arte ez zen onartu kataraten kirurgiarako erabiltzea, kirurgia honen hiru urrats egitea ahalbidetuz: ebakidura kornealak, aurreko kapsulotomia eta fakoemulsifikazioa.

Zer abantaila ditu?

1. Interbentzioan energia murriztean, endotelio kornealaren zelulen galera ere %25 murriz-

ten da, fakoemulsifikazio estandarrean oso ohikoa dena.

2. Kornea-ebakiduraren zehaztasuna hobetzen du. Femtosegundo laserrarekin egindako kapsulotomiek forma erregularragoa dute eta begi barruko lenteen zentratzea eta gainjartzea hobetzen dute. Horrek kalitate optiko hobea lortzen laguntzen du, batez ere begi barruko lente trifokalak jartzen direnean.

3. Eskuzko kirurgiekin alderatuta, konplikazio kirurgikoen tasa txikiagoa da.

4. Hainbat arrazoiengatik eskuz lantzeko zailak diren pazienteekin ebakuntzak arrakastaz egiteko aukera ematen du. Hori argi eta garbi ikusten da begi txikiak dituzten pazienteetan, zomulua ahul edo katarata oso gogor dutenetan.

5. Korneako kirurgia prozesu berean egiteko aukera ere ematen du astigmatismoa duten pazienteetan, eta, horrela, kendu egiten da.

Azaldu ezazu: nola funtzionatzen du, zehatz-mehatz, Femtosegundo laserrak?

Kataraten ebakuntza baten lehen urratsa begira sartzeko bi eremu sortzea da, lentea eta ebakuntzarako beharrezkoak diren beste substantzia batzuk sartu ahal izateko. Kirurgia arruntean, bi sarrera horiek eskuz egiten ziren labanatzko batekin, eta Femtosegundo bidezko kirurgietan, berriz, labanatzkoaren erabilera ezabatzen da, laserrarekin berarekin egiten baitira. Laserrak parte hartzen duen hurrengo unea kapsulorrexhisean da. Pauso hori zertan datzan azaltzeko, begiaren eta atun lata baten arteko antzekotasuna egitea gustatzen zait, oso azalpen bisuala eta erraz ulertzeko modukoa dela uste baitut.

Lehenik eta behin, atun lata ireki beharko genuke. Orain arte, urrats hori eskuz egiten zen, eta kirurgiako zailena zen, ebakuntza nola egingo zen eta lentea nola jarriko zen adierazten zuena. Femtosegundo laserrari esker, orain urrats hori askoz ere zehaztasun eta zehaztasun handiagoz egiten da. Ehun aldiz jarraian egin dezake, eta beti berdin egingo luke, eskuz egiten genuenean gertatzen ez zena. Xehetasun hau garrantzitsua da, batez ere lente trifokalak erabiltzen ditugunean, lentea begi barruan ondo zentratzeko aukera ematen baitigu.

Femtosegundo laserrak egingo duen azken urratsa kataraten zatiketa da. Antzekotasunekin jarraituz, laserrak "lataren atuna" gaztatxo formako zati bihurtzen du, kirurgiaren azken fasean fakoemulsifikatzaile izeneko aparatu batek "gaztatxo" horiek jan ahal izateko, begi barruko lentea begiaren barruan jartzeko behar den espazioa sortzeko.

Teknika hau ospitale guztietan erabiltzen da?

Ez. Lehen esan dudana bezala, oso teknika berria da, hamar urte baino ez ditu eta, kataraten kirurgiaren etorkizuna izan arren, oraindik ez dago oso zabaldua. Gaur egun, Gasteizen nik bakarrik erabiltzen dut Quironosalud Vitoria ospitalean, eta Euskadin, punta-puntakoak diren bi edo hiru zentrok baino ez dute teknika hori.

"KATARATEN ETA PRESBIZIEN KIRURGIETARAKO AZKEN TEKNOLOGIA DA FEMTOSEGUNDO"

quironosalud.es

f t i n

quironosalud.es

RPS 3/20 Zerbitzu-buruak: Pio Garcia Gomez

doktorea, Medikuntzaren eta Kirurgiaren Bereziala da.

Lege-irizpidearen arabera, Irujo Cañero San Pedro

doktorea, Medikuntzaren eta Kirurgiaren Bereziala da.

Zure begietarako laser okularreko azken teknologia

Femtosegundo Faco Victus bidezko begi-kirurgia

Kataratak eta presbiziaren zuzentzeko azken teknologia dugu:

- %100 laser okularra, bisturirik erabili gabe.
- Kirurgia azkarragoa eta zehatzagoa.
- Ospitale-ingurune baten segurtasunarekin.



Sar zaitez online zure emaitzetan, eta kudeatu zure hitzorduak quironosalud.es-eko "MI Quironosalud" eremuan edo gure App-ean.

Hospital **quironosalud**
Vitoria



Entitateetako ordezkariak, astelehenean, Kulturaren egindako aurkezpenean. XABI GOROSTIDI

Hamabost entitateren besarkada Euskaraldiari

Arrasatek prest du 2020ko Euskaraldirako hamabostekoa. Kultur, kirol eta enpresa esparruetako hainbat entitatek babestu dute eta euren etxeetan euskaraz aritzeko erraztasunak emango dituzte. Irailera arte eman dezakete izena herriko entitateek

Xabi Gorostidi ARRASATE

COVID-19aren eraginez nahi baino gehiago berandutu arren, Arrasatek prest du 2020ko Euskaraldirako hamabostekoa. Astelehenean aurkeztu zuten, Kulturaren, non herriko hamabost eragilek sinadura egin zuten euren esparruetan euskaraz aritzeko erraztasunak emateko. Hauek izan ziren sinadura egin zuten entitateak: Arrasateko Udala, Ibai-arte, Mondragon Taldea, SUDC, Ttak! taldea, AZK, JMA, Txikitxu-Arrostaitz, Lore Gazteak, Besaide Mendizale Elkarteak, Mondra Futbol Taldea, Arrasate Rugby Taldea, Ardatz Akademia, Abian Fisioterapia Zentroa eta Arrasate Musikal.

Lehen Euskaraldiak norbanakoen hizkuntza ohiturak eraldatzea zuen helburu, eta bigarrena, horrez gain, erakunde eta entitateengan eragiteko asmoz dator. Hala azaldu du Arrasateko Euskaraldiko koordinatzaile Jokin Etxebarriak zer lortu nahi duten entitateetan eraginez: "Gaur si-

nadura egin duten entitateek etxe barruan ariguneak sortzeko konpromisoa hartu dute; hau da, euskaraz lasaitasunez aritzeko guneak. Hala, entitateetan euskaraz gehiago egitea da lortu nahi duguna, ziur baikaude entitateetan egiten bada, ostean, errazago eta maizago aterako dugula euskara kalera".

Arrasateko aitzindariak keinua


Konpromisoak hartzeaz gain, duela 30 urte aitzindari izan ziren entitate batzuei keinu berezia egin zieten aurkezpen ekitaldian. Erakundeen arteko komunikazioak euskaraz egite aldera, herriko 38 eragilek *Euskararen hitzarmena* izenez ezagutu den dokumentua sinatu zuten 1990ean

AHALIK ETA ENTITATE GEHIENEK PARTE HAR DEZATEN LANEAN ARI DIRA EUSKARALDIKO LANTALDEETAN

—ostean, 150 baino gehiago izatera heldu ziren—, aurrez Euskal Herri mailan beste inork egin ez bezala. "Entitate horiek gogoraz nahi genituen, aitzindari izan zirelako euskara sendotze aldera. Orain, aurrera egitea tokatzen zaigu, baina aurrerako bide horretan ez genuen ahaztu atzetik egin izan den lan hori". Orduan dokumentua sinatu zuten askok errepikatu egin zuten astelehenean ere; besteak beste, AEDk, Udalak, JMAk, Besaide Mendizale Elkarteak, Mondrak eta Arrasate Rugby Taldeak.

Izen emateak, irailera arte

Hamabostekoaren aurkezpena eginda, herriko ahalik eta entitate gehienek Euskaraldian parte har dezaten lanean ari direla azaldu du Etxebarriak. "Irailera arte dago aukera. Parte hartzeraz gonbidatzen ditugu Arrasateko entitate guztiak. Etor daitezela lasai gugana, eta azalduko diegu zein urrats egin behar dituzten, oso errazak dira eta".



MIREN BARRENETXEA
AZK

"Garrantzitsua da ahalik eta entitate gehien batzea eta bakoitzak bere ekarpena egitea. Gure enpresan euskara oso barneratuta dago, eta etxe barruan erraz moldatuko gara. Baina ariketa interesgarria da, batez ere, kanpotik gurera etor daitezkeenentzat".



JOSE LUIS SALABERRI
ARRASATE RUGBY TALDEA

"Oraindik ez dugu gaia nahi bezala landu, pandemia dela-eta elkartzeko zailtasunak izan ditugulako. Baina klub barruan ia %100ek euskaraz daki, eta ziur nago, nola edo hala, arazo handirik gabe barneratuko dugula Euskaraldiak dakarren guztia".



MARTA IZAGIRRE
ARRASATE MUSIKAL

"Aurrekoan, norbanako gisa aritu ginen irakasleok, eta orain, entitate gisa babestuko dugu Arrasate Musikalen. Kanpotik gurera datozeinei euskaraz lasai aritzeko gunea jarriko diegu, eta ziur nago irakasleen arteko barne arigune bat ere sortuko dugula".



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Konponbidea

Datorren ikasturtearen antolaketa korapilatsua izango da: ikastetxeetan kutsatzeko arriskua ekiditeko komenigarria da gela bakoitzean hamabost ikasle baino gehiago ez sartzea. Eta ikastetxe gehienek ezin dute baldintza hori bete. Konponbideetariko bat ikasle talde txikiak eratu, hutsik dauden ikastetxeak berrerabili eta irakasle gehiago kontratatzea izan daiteke.

EAEn badago erakunde bat, ISEI izenekoa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen maila akademikoa neurtzen duena. 2015eko udaberrian, ISEIk Debagoieneko ikastetxe batean 2. DBHko ikasleek ikasi zutena neurtzeko azterketa bat egin zuen eta ia erdiak kurtso hasierako mailan zeuden.

Hirugarren ebaluazioan, ordea, ikasle gehienek kurtsoa gainditu zuten. Zientifikoki frogatuta dago hiruhileko bat nahikoa dela edukiak emateko eta kurtsoz pasatzeko. Eta esperientzia hau 2. DBHn ez ezik, ziklo osora ere zabaldu daiteke.

Beraz, datorren kurtsoan hamabost ikasle baino gutxiagoko taldeak antolatu eta kurtsoa hiru hilabetera murriztuz gero, akademikoki ez dute ezer galduko.

OHARRAK

Pentsiodunak

Irailera arte ez dute elkarretaratzerik egingo.

ARTk, batzar orokorra

Astelehenean egingo dute, 18:00etan, Mojategin.

Ibilbide gidatua

Gaia: Esteban Garibai eta Pedro Biteri. Hitzordua, Plazan: 11:00etan, euskaraz; 12:30ean, gaztelerez.

Ezohiko San Juan Jaiak ahalik eta ondoen pasa dituzte arrasatearrek

San Juan jai gosea zegoen, eta nola edo hala ase dute herritarrek. 23an pregoia, salbea eta ekitaldi simbolikoa egin zituzten, eta 24an eta 25ean hainbat kalejira. "Jende gutxiago" sumatu dute tabernariak, baina segurtasun neurriak "barneratuta" zituztela

Xabi Gorostidi ARRASATE

Txosna Batzordekoek botatako pregoiarekin hasi ziren ezohiko San Juan jaiak, ekainaren 23an. Txosnagunerik gabe, ezohiko leku batean bota zuten txupina, Santa Barbara parkean, eta jai parekide eta euskaldunak bizitzeko aldarria egin zuten. "Gogoratu jaietan ez dela inolako erasorik onartuko. Gora jai herrikoi, parekide eta euskaldunak!", adierazi zuten pregoia irakurtzean.

23an ere beste bi hitzordu garrantzitsu izan ziren. Lehenik eta behin, salbea. Lagun ugari batu ziren San Juan Bataiatzailean; musukoak jarrita eta prozesiorik gabe, hori bai. Gauean, ordea, herriko kultur eragileek eta Udalak antolatutako ekitaldi simbolikoa egin zuten Plazan. Eragileen ordezkariak piztu zuten sua, eskuetan argi-zuziak hartuta, eta ostean, askotariko emanaldi laburrak taularatu zituzten: txistulariak, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak taldekoen dantzak, Ane Zuazubiskarren bertsoak, trikitilariak, gaiteroak eta *Gora Arrasate* ereserkia danborradako eta Gokobaluko kideek jota. Aipatu behar da ekitaldiaren antolaketarekin lotuta EH Bilduk oharra kaleratu zuela, besteak beste, esanez, "Udal Gobernuak aldebakartasunez" kudeatu zuela ekitaldia; euren ustez hobetu ahaliko ziren aspektuak zeudela.

Kalejira ugari

23ko gaua pasata, meza nagusia egin zuten parrokiari. Goizean zehar ere hainbat kalejira aritu ziren herriko bazterrak alaitzen: gaiteroak, Arrasate Musikalekoak eta trikitilariak, besteak beste. Eguenean, ordea, Txatxilipurdiko lagun txanda izan

zen. Gazteei jaiak alaitzeko kalejira egin zuten Eguzkilarurekin, atzetik bizikleta-tropeltxoaren laguntzarekin.

Jende gutxiago, eta neurriekin

Beste herri batzuetan ikusitako irudien ostean, kezka eta urduritasun puntu bat zuten herriko tabernariak jai-giroan jendeak nola erantzun zuten ikusteko, baina lehen bi egunak pasata, herritarrek "neurriak errespetatu" dituztela azaldu dute. "Une oro eduki dugu per-

tsona bat atean, edukiera kontrolatzeko. Guretzat erronka zen segurtasuna bermatzea, baina jendea kontzientziatuta aritu da, eta helburua lortu dugu. Pozik gaude", adierazi du Etxoste tabernako Jokin Mujikak. Jende kopuruari buruz galdetuta, denek egin dute bat: beste urte batzuetan baino jende gutxiago aritu da. "Jaiak nola antolatu diren ikusita, jende askoz gutxiago igarri dugu", adierazi du Kajoi tabernako Antonio Murillok.



23ko salbean, ikusleak musukoak jantzita. MARKEL ARRAYAGO



Txosna Batzordekoen pregoia. GOIENA



23 gaueko ekitaldi simbolikoan, dantzariak, suaren inguruan dantzan egiteko prest. IMANOL SORIANO



Txatxilipurdikoak, kalejira hasi aurretik, Eguzkilarurekin. TXOMIN MADINA



San Juan bezperako gauean, jendea Olarte kaleko tabernetan. IMANOL SORIANO



Txarangako partaideak, sakabanatuta, distantziak gordetzen. ANTONIO MURILLO

2-17 urte bitartekoek badute zer egin uztailean

Txatxilipurdik asteen iragarri du uztailean ekintza dinamizatuak eskainiko dituela 2 eta 12 urte bitartekoentzat; hiru astez eta doan. Mondrak eta Ointxe!-k ere gertu dute guztia uztaileko campusetarako, eta herriko gazteek badute zer egin eta non aukeratu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aurtengo egoera nahasiak asko zaildu die plangintza aisialdi antolatzaileei, baina uztailean hasi orduko lortu dute eskaintza mahai gainean jartzea, eta gurasoek eta haurrek ziur esker-tuko dutela.

Txatxilipurdi

Aurreko astean, 8 eta 17 urte artekoentzako aisialdi aukerak definituta zeuden, baina hutsunea zegoen 2 eta 8 urte bitarteko haurren eskaintzan. Hala, Txatxilipurdik asteen eman du aditzera 2 eta 12 urte arteko gazteentzako eskaintza, euren kabuz eta "auzolanean" eskainiko dutena. Hiru astez emango dute euskarazko aisialdi zerbitzua, astelehenetik ostegunera, eta bi orduz: 11:00etatik 13:00etara. Taldeetan banatuta egingo dituzte ekintzak, eta talde bakoitza herriko gunen batean arituko da. Egunero bost talde egingo dira, asko jota, eta bakoitzean gehienez 15 lagun arituko dira –hamahiru haur eta bi begirale–. Parte hartzeko ez da izenik eman behar, eta doako zerbitzua izango da. Hauek izango dira, zehatz-mehatz, zerbitzua emango duten asteak: uztailearen 6tik 9ra, uztailearen 13tik 16ra eta uztailearen 20tik 23ra.

Aste bakoitzaren bezperako barikuan jakinaraziko du Txatxilipurdik hurrengo asteko ekintzak zein gunetan egingo diren. Komunikabideetan horren berri emateaz gain, udalekuean parte hartzen duten gurasoei zuzenean helaraziko diete informazio hori. Neurri zorrotzak hartuko dituzte, udaldiko eskaintzan parte hartzea segurua izan dadin. Hala, COVID-19aren sintomak dituztenek –sukarra, arnasteko zailtasunak, eztula...– ezin izango dute parte hartu; ekintzetan parte hartu aurretik etetik tenperatura hartuta joan



Bi gaztetxo, maskarekin, Txatxilipurdiren udalekuean. TXATXILIPURDI

TXATXILIPURDIK ASTERO EMANGO DU ADITZERA EKINTZAK ZEIN GUNETAN EGINGO DITUZTEN EKINTZAK

beharko dute haurrek; 6 urtetik gorakoek musukoa jarri beharko dute bi metroko distantzia bermatu ezin daitekeen ekintzetan eta musukoak etxetik eroan beharko dituzte; eskuak garbitzea derrigorrezkoa izango da ekintzak hasi aurretik, bitartean eta ostean ere –gelak Txatxilipurdik jarriko ditu–. Parte hartzaileen konpromisoa eskatu du Txatxilipurdik, segurtasun neurriak errespetatzeko eta ekintzak segurtasunez egiteko.

Esan beharra dago gazte txoko zerbitzuaren bitartez 17 urte arteko nerabeentzako aisialdi aukerak eskainiko dituela Udalak, *Udaixe* programaren baitan.

Ointxe! eta Mondra

Ointxe!-k bi campus antolatu ditu: bata, saskibaloian lehen urratsak egiteko; eta bestea, aurretik hartutako jakintzak

sakontzeko. Lehenari *Stop&Go* izena jarri diote, eta 2008 eta 2012. urte bitartean jaiotakoei zuzenduta dago. Musakolan egingo dute, lau astez –hilaren 29an hasiko dira–, 09:00etatik 14:00ak arte. Prezioak, hauek: aste bat, 90 euro; bi aste, 170 euro; hiru aste, 240 euro; eta lau aste, 300 euro. Bigarrenari *Elite Skills* izena jarri diote. Iturripen egingo dute, hiru astez –hilaren 29an hasiko dira–, 10:00etatik 14:30ak arte. Prezioak, hauek: aste bat 100 euro; bi aste, 180 euro; eta hiru aste, 250 euro. "*Stop&Go* lehen bi asteetarako ez da apenas plazarik geratzen; bai, ordea, azken bi asteetarako. *Elite Skills*-eko lehen bi asteetan ez dago plazarik jada", azaldu dute klubetik.

Mondrak ere gertu du udako campusa. Uztailearen 6tik 24ra egingo dute; 8-12 urte bitartekoentzat, Mojategin. Esaterako, surfean aritzeko Donostiara egin izan ohi duten txangoa ez dute egingo, baina gai interesgarriak landuko dituzte aktibitateen bidez: 1. astean, ingurumena ezagutu eta zaindu; 2. astean, kirol inklusiboa; eta 3. astean, elikadura eta lehen sorospenak.



Debagoieneko AEK-ko langileak, artxiboko argazki batean. GOIENA

Zuricheko unibertsitateak eta AEK-k hitzarmena sinatu dute

Hango Hizkuntzalaritza Konparatuko Saila eta AEK elkarlanean arituko dira euskara ikertzeko ekimen batean

X.G. ARRASATE

Arrasateko AEK-k eta Zuricheko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Sailak hitzarmena sinatu dute, asteen, euskararen inguruko ikerlan bat Arrasaten abiatzeko.

Eta nolatan hain urruneko erakunde baten eta Arrasateko AEKren arteko konexioa? Bada, arrasatear baten bitartez. Arrate Isasi-Isasmendi da bera, eta euskal hiztunak eta euskara aztertzen ari da Zuricheko Unibertsitatean.

Hizkuntza ergatiboaren prozesamendua ikertzen ari da; zehatzago esanda, euskara bezalako hizkuntza ergatiboa hitz egiteak hiztunaren kognizioari nola eragiten dion. Horretarako, beharrezkoa da euskal hiztunekin eta gaztelania hiztunekin hainbat proba eta esperimendu egitea. EHUKo Gasteizko Letren Fakultatean egin izan dira, bai-

na COVID-19aren eraginez ezinezkoa izan da.

Hala, Arrasateko AEK-k irtenbidea emateko proposamena egin zuen: Herriko Plazan dagoen euskaltegiko egoitza erabiltzea, ekain bukaeran eta uztailean zehar. Trukean, unibertsitate mailan euskararen eta beste hizkuntza batzuen inguruan dauden ezagupenen inguruko tailerrak eta solasaldiak eskainiko dizkie Arrate Isasi-Isasmendik AEK-ko irakasleei eta ikasleei.

Parte hartzeko deia

AEK-k eta Arrate Isasi-Isasmendi ikerlariak herriko gazteei parte hartzeko dei egin diete. 18-40 urte arteko pertsonen parte hartu dezakete eta baldintza bakarra da guraso biengandik hizkuntza bera jaso izana –euskara edo gaztelania–. Aurrez izena eman beharko da formularioan.

ion

ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak

Konponketa txikiak eta handiak

24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Deitu!!!



Egurrezko habez jositako hezurdura agerian dago une honetan. ALFONSO DONNAY



1943an Gomestio baserriari ateratako argazkia. INDALECIO OJANGUREN

Egurra, elementu nagusia

Indalecio Ojanguren mendizale eta argazkilaria eibartar ezagunak ateratako argazkia da, 1943koa. Bertan, argi ikusten da baserriaren fatxadak egurrezko elementuak zituela, eta ia baserri osoa egurrezkoa zen hipotesiarekin bat egiten du horrek.

Gomestio, XV. mendean sagardoa egiten zuen harribitxi ezkutua

Garaia Parke Teknologikoaren eta Erguin artean dagoen baserrian eraisketa selektibo bat egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia. Lehen datazioei esker, XV. mendeko dolare-baserria dela jakin berri dute, "zurezko arkitektura gorena" duena

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalak baserria interes lokaleko katalogotik kanpo utzi ostean, hura eraisteko erabakia hartu zuten gaur egungo jabeek. Eta hori egitera zihoa-zela ohartu dira baserria XV. mendekoa zela eta bitxikeria ugari zituela. Udalak eraisteko baimena eman zien, baina hori egin aurretik ikerketa egin beharra zegoela adierazi zieten, ustezko zona arkeologikoa izan zitekeelako.

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailarekin harremanetan jarri ziren. "Ondare Saileko arkitekto Mertxe Urteagak argi ikusi zuen hasieratik Erdi Aroko baserri bat izan zitekeela. Hasierako susmoak baieztatzeko, laginketa batzuk egin zituzten, baserria noizkoa izan zitekeen jakiteko, eta, gure harridurarako, XV. mendeko

baserria dela jakin dugu. Ez genuen inondik inora halakorik espero", azaldu du baserriaren jabeen sendiko Alfonso Donnayk.

Zurezko arkitektura "gorena"

Baserria XV. mendekoa zela jakin ostean, eraisketa selektibo bat egiten hasi ziren; hau da, baserria goitik behera desmuntatzen hasi ziren, hezurdura bistaratzeko eta piezak banan-banan aztertzeke. "Aldundiaren nahia da mende hartako arkitektura hobeto ezagutzea eta gure historiari buruzko jakituria handitzea", azaldu du erais-

"EUSKAL HERRIAN EGINDAKO ZURAJE LANDUENAREN ADIBIDE GARBIA DA GOMESTIOKOA"

ketan eta ikerketan parte hartzen ari den Ibon Telleria arkitektoak. Horretarako, diziplina askotarikoa adituak ari dira bertan lanean; arkitekturan eta arkeologian adituak, nagusiki.

Baserriaren egitura azaleratzen joan den heinean zurezko hezurdura "zoragarria" duela azaldu Telleriak. "Euskal Herrian egin den zurajerik landuenaren, garatuenaren eta hoberenaren adibide garbi bat da Gomestiokoa. Harrigarria da XV. mendean egindako eraikin hauek duten lanketa maila. Egitura nagusian 12-13 metroko zurezko pieza erraldoiak aurkitu ditugu, eta geroagoko garaietan egin diren eraikinetan ikusten ez den kalitatea du eraikin honek".

Baserri ia osoa zurez egin zegoela uste dute. "Zuraje elementu bertikal, horizontal eta inklinatuz dago eginda hezur-

dura osoa, zumezko saski erraldoi bat balitz bezala. Eta bertan oholtzatuta zegoen egurrezko fatxada ere. Teilatua izan ezik gainontzeko elementu guztiak egurrezkoak zirela uste dugu".

Sagardoa egiteko

Zurezko hezurdura konplexua edukitzeaz gain, sagardoa egiteko erabiltzen zela ere ondorioztatu dute. "Sagardoa egiteko palanka-dolarea duela ikusi dugu, eta horrek argi uzten du bertan sagardoa egiten zutela. Makina horretako prentsatzeko palanka ez dugu aurkitu, baina askak, habeak eta halako aztarnak, ordea, bai".

Baserriak 17x18 metroko oina zuen eta bi solairu nagusiz zegoen osatua. "Behe oina garai erraldoi moduko bat zen. Lurzoruaren irregulartasunak xurgatzen zituen, eta bertan biltegitratzen zituzten sagarrak, bestelako zerealak eta baita sagarren zuku ere. Lehen solairua askoz abstraktuagoa zen, eta bertan zegoen, besteak beste, sagardoa egiten zuen makina".

Behin-behineko datazioa

Arkeolan enpresakoak arduratu dira lehen datazio lanak egiteaz,

50EKO HAMARKADAN, ARRASATERA LANERA ETORRITAKO 15-16 FAMILIA EGON ZIREN BERTAN BIZITZEN

eta argi utzi nahi izan dute behin-behineko datazioak direla esku artean dituztenak une honetan. "Egurraren lehen datazioek argi uzten dute XV. mendekoa dela. Orain, ordea, laginketa gehiago egin behar ditugu, egurra mende hartako zein hamarkadatan moztu zuten jakiteko".

Arrasaten orain arte datatu den baserririk zaharrena den galdetuta, zera adierazi du Arkeolan enpresako Josue Susperregi adituak: "Hori zehatz-mehatz jakiterik ez dago. Ziur-rirenik, orain arte datatu den zaharrena da, baina ez du esan nahi zaharrena denik. Gipuzkoako dokumentazio gehiena XVI. mendean hasten da; beraz, hortik atzerako guztia ikertzeke dago. Kasu honetan gertatu den bezala, baliteke gaur egun zutik dagoen baserri bat hau baino zaharragoa izatea, eta bertako jabeek horri buruz ezer ere ez jakitea".

Immigraenteen ostatu

Gaur egungo jabeek 50eko hamarkada inguruan erosi zioten baserria Bergarako Garitano familiari. "Bertara bizitzera joatea zen asmoa, baina beste erabilera bat eman zitzaion. Baserrira paretaz josi eta hamabi etxebizitza txiki sortu zituzten bertan, gero, Arrasatera lanera zetozen familia immigranteei alokatzeko. Baserriari beste bi eranskin gehitu ostean, 15-16 familia egon ziren bertan bizitzen", azaldu du Alfonso Donnayk.



2019ko Lorabari azokako irudia. GOIENA

Herriko ekoizleak babesteko azoka bihar

Azken urteetako Lorabari Astearen egitura erabat aldatu den arren, bihar, zapatua, azoka egingo dute Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan; domekan, aldiz, bisita gidatua egingo dute Salaberri hariztira. Bisitarako, aurrez eman behar da izena

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Egoera berezia bizitzen ari dira azokak aurten; eta, ondorioz, baita ekoizleak ere. Urtero egiten den Lorabari azoka aukera ona izaten da herriko ekoizleentzat euren produktuak atera eta saltzeko. Maiatz inguruan egiten da Lorabari azoka, Aramailur elkarteak antolatuta. Aurten, baina, atzeratu egin behar izan dute, egoerak hala behartuta.

Denboran berandutxoago bada ere, egitea erabaki dute, aurten zortzigarreneguz. Hala adierazi du azokako antolatzaile ibiltzen den Irati Mujikak: "Azokak egitea posible dela ikusita, erabaki dugu egitea. Izan ere, uste dugu aprobetxatu behar dugula bertako ekoizleei merezi duten babesa erakusteko".

Bihar izango da

Bihar, zapatua, egingo dute azoka, Bizente Goikoetxea plazan: "Estalpe bat jarriko dugu eta bertan izango dira Aramaioko ekoizleak eta baita kanpotik

etorriko direnak ere: guztira, 10 inguru. Musika ere izango dugu goiza girotzeko".

11:00etan hasiko dute azoka eta erakusmahaiak egongo dira jarrita 14:00ak arte. "Herriko barazkiak, marmeladak, gatza, zukuak, ardi-gazta..." jarriko dituzte salgai. Herritarrak bertokoa kontsumitzera animatu nahi ditu Mujikak. Modu horretan, "ingurunea ezagutzuz, bertokoa janez, bizitza zainduz".

Domekan irteera gidatua

Lorabari asteburua azoka baino gehiago izango da. Zapatukoa amaituta, domekan irteera gidatua egingo dute Salaberriko agestoiara –hariztira–. Errez kooperatibako Markel Arriola zerbait.

HERRIKO BARAZKIAK, MARMELADAK, GATZA, ZUKUAK... EGONGO DIRA SALGAI BIZENTE GOIKOETXEA PLAZAN

bengoa baso ingeniariak gidatuko du saioa: "Salaberri hariztia Udalaren esku utzi zuten 2015ean; eta, hain zuzen, konpromisoa hartu zen hariztia zaindu eta hobetzeko".

Asmoa izan da interpretaziorako eremu bat sortzea, Aramaioko basoek izan duten bilakaera historikoa ikusi eta interpretatu ahal izateko. Horrez gain, "ekosistemak dituen dinamika" azalduko dituzte.

Irteera egingo dute bi taldetan banatuta eta bi bisitak euskaraz izango dira. Lehenengo txanda 10:00etan abiatuko da, kiroldegitik; eta bigarrena abiatuko da 12:30ean. Txanda bakoitzean 15 lagunendako tokia egongo da. Bisita gidatuan parte hartu gura duenak izena eman beharko du 945 44 50 16 udaletxeko telefono zenbakian.

Bisita egiteko ez da behar ezer berezirik; arropa eroso eramatea gomendatzen da, eta, euria egingo balu, euritarako aproposak diren oinetakoak.



GOIENA

Aspaldiko partez, bertso saioa

Itxialdiaren ondorengo lehenengo bertso saioa egin zuten zapatuan Iturrieta sagardotegian. Xabi Igoa, Manex Agirre, Ane Zuazubiskar eta Peru Abarrategi aritu ziren bertsoetan, Lierni Altunak gidatuta. Adin guztietako bertso-zaleak batu ziren; giroak laguntzen zuen, eta arratsalde-pasa ederra egin zuten hara joan ziren bertso-zaleek.



MERTXE MONDRAGON

Garo-sortak etxe aurreetan

San Juan egunez ohitura izaten da etxe atarietan garo-sortak jartzeko. Hala, eguaztenean, ekainaren 24an, urteroko ohiturari jarraituz, hori egin zuten Matxain kaleko atarietan. Lehenengo, garoak batu, eta ondoren, atari aurreetan jarri zituzten sorta ederrak, aspaldiko usadioak dioen bezala arima txarrak uxatzeko.

Garraiorako dirulaguntzak uztailean eskatu behar dira

Arabako Foru Aldundiak argitaratu ditu garraiorako ematen dituen dirulaguntzei buruzko oinarriak. Aramaiotik kanpo ikasten duten ikasleei zuzenduta daude laguntzak –unibertsitate ikasketak edo prestakuntza zikloak ikasten dituztenei–.

Uztailaren 1etik 24ra bitartean eskatu beharko dira laguntzak, leku hauetan: Gazteriaren Foru

Erakundearen bulegoan; Aldundiarekin hitzarmena daukaten udal erregistroetan; Laudioko eta Guardiako bulegoetan –hitzordua eskatuta–; edo, telematikoki, egoitza elektronikoa.

Bestalde, dagoeneko martxan da garraio erregulararekin eta herrigune nagusiekin loturata eskaintzen duen zerbitzua. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea –aurreko eguneko 20:00ak arte–: 945 18 20 60 edo araba.eus/alavabus ataria. Egunero ematen du zerbitzua.

Agurtu dituzte seigarren mailako ikasleak

Ekainaren 19an amaitu zuten ikasturtea San Martin eskolako ikasleek. Ezohiko ikasturtea izan da aurtengoa, eta, etxean egin dituzten hilabeteen ondoren, gustura hartu zuten berriro ere lagunekin elkartzeko unea. Zuzendaria ere gustura geratu da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Ezohiko ikasturteari agur esateko unea iritsi zitzaizen San Martin eskola osatzen duten ikasle, irakasle eta gurasoei. Barikuan, ekainaren 19an, egin zuten azken jaia; protokoloak arautzen duen moduan, talde txikietan eta tarreak errespetatuaz elkartu ziren eskolan 2019-2020 ikasturteari agur esateko.

Bailaran, lehenengoak ixten
Martxoaren 11n itxi zituen atea San Martin eskolak; bailaran lehenengoak izan ziren atea ixten. Herri eskolako zuzendari Saioa Uriartek dio "sekula" ez zuela pentsatuko horrela zer bait bizi beharra izango zutenik. "15 egunerako itxi genituen atea, eta astetik atera ematen zigun informazioa Hezkuntza Sailak;

ez genekien zein izango zen etorkizuna", gogoratzen du Uriartek.

Egoera berrira ondo moldatu direla dio: "Eskola ondo prestatuta daukagu eta ez dugu zailtasunik izan". Teknologia aldeetik ondo prestatuta egoteak ahalbideratu du ikasleekin eta familiekin harremana izatea.

Aramaioko herri eskolan HH eta LH mailako haurrak dau-

delak kontuan hartuta, lan egiteko modua horiei zuzenduta antolatu dute. "Haur Hezkuntzako familieei proposamenak bidali dizkiegu, etxean txikiekin egiteko modukoak", dio Uriartek. Familia bakoitzak izan dituen aukeren eta egoeraren arabera egin ditu proposamenak.

Ordenagailua: komunikaziorako
Lehen Hezkuntzako ikasleekin komunikaziorako tresna izan da ordenagailua: "Komunikaziorako tresna moduan ordenagailua erabili dugu; baina proposamen guztiak ez dira ordenagailuan egitekoak izan. Etxean egin beharreko lana beste era batera ere antolatu dugu".

Martxo erdialdean hasi zen alarma egoera uste baino gehiago luzatu da. Hala, apirilaren 28an ospatzen den San Prudentzio eguna ere bete-betean harapatu zuen egoera bereziak. Eskolak, baina, badu egun berezi hori ospatzeko ohitura, bezperan erretreta jota. Eta aurten ere horrelaxe egin dute: modu berezian ospatu zuten San Prudentzio. *Online* ikastaroen bitartez ikasi zuten umeez danborrak egiten, eta erretreta praktikatzeko aukera ere izan zuten.

Auzoz auzo eta kalez kale Aramaioko txoko guztietara iritsi zen furgoneta musikarekin, eta geldialdiak egin zituen, haurrek danborrak eta txirulak jo eta abes zezaten.

Elkarrekin, talde txikietan

Haurrek etxean emandako denbora luzearen ondoren, barikuan izan zuten berriro ere lagunekin elkartzeko aukera. "Umeez gaitasun handia dute egoera ezberdinetara egokitzeko. Beste edozein pertsona bezala, eurak ere

nekatu dira, eta gustura hartu dute lagunekin egoteko aukera", azaldu du Uriarte zuzendariak.

Azken asteetan neska-mutiko batzuek izan dute aukera elkarrekin egoteko, baina ez denek. Horregatik, barikuan egindako agurra oso positiboa izan zela gaineratu du Uriartek: "Harreman hori izan ez dutenendako eta guztiendako, orokorrean, oso positiboa izan zen. Elkar agurtzeko aukera izan genuen eta, bide batez, azken hilabete hauetan nola sentitu diren adierazteko unea ere izan zen".

Ordubeteko saioa egin zuten, talde txikietan banatuta. Urteroko ohiturari jarraituz, LHko 6. mailako ikasleek agurra izan zen barikuko jaia. Izan ere, datorren ikasturtean, Aramaioko eskola utzi eta institutura joango dira aipatutako ikasleak.

Ikasturte berria

Ikasleekin egin beharreko lana amaitu duten arren, irakasleak oraindik lanean daude ikasturtea amaitzen. "Oraindik ez gara hasi ikasturte berria antolatzen, eta horretan ere hasi beharko dugu", dio zuzendariak.

Ikasturte berriko gorabeherak "airean" daudela dio; Hezkuntza Sailak esandakoa egin behar izaten dutela eta aginduak momentu batetik bestera alda daitezkeela.

2019-2020ko ikasturtean 117 haur eta gazte izan dituzte Aramaioko San Martin eskolan: HH eta LH mailak batuta.

AZKEN HILABETEETAN NOLA SENTITU DIREN ADIERAZTEKO UNEA IZAN ZEN BARIKUKO JAIALDIA



Ikasle talde bat, musukoekin, agur ekitaldian. ANA ATXA

Eskolako jangelan sartu izana salatu du Aramaioko Udalak

Martitzen gauean izan zen gertaera; jangelako atea apurtu eta aulki batzuk atera zituzten patioan

A.E. ARAMAIO

San Martin eskolako jangelako atea apurtu eta barrura sartu ziren martitzen gauan ezezagun batzuk. Handik aulki batzuk kanpora atera izana ere salatu du Udalak. Izan ere, jangelatik

aulkiak hartu eta patioan lasai egon ziren.

Hain zuzen ere, gertaera hori salatu du Udalak: "Berriro ere guztion den eta guztion artean ordaintzen dugun jabetza bat inongo lotsarik gabe apurtu eta

nahi bezala erabili dute herritar batzuek".

Apurtutako atea lehenbailehen konponduko dutela gaineratu dute udal ordezkariak, eta espero dutela berriro ere horrelakorik "ez gertatzea". Horretarako, ezinbesteko ikusten dute adinez nagusiak direnek kontzientzia izatea jabetza publikoa guztion dela: "Denon artean ordaintzen eta mantentzen dugula denon zergetatik"; eta hau adin txiki-koekin lantzea guztien ardura dela gaineratu dute.



Sillak atera zituzten kanpora. SAN MARTIN ESKOLA



Tio Teronen Semeak taldeko kideak dantzan, Antzuolan. AITOR AGIRIANO

Bost ikuskizun uztailean, kaleak girotzen segitzeko

Antzerkiari, dantzari eta zirkuko hainbat diziplinari egingo diete lekua herriko txokoek datozen lau asteetan, Kultura Sailari esker, eta entzute handiko konpainiak etorriko dira; besteak beste, Tio Teronen Semeak, Hika Teatroa eta The Funes Troup

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Kale ikuskizunei egin ohi diete lekua herriko txokoek uztailean, eta aurten ere ez dute hutsik egingo, egoera bestelakoa izan arren; antzerkia, dantza eta zirkua izango dira protagonista nagusiak. Kanean izan arren segurtasun neurriak bete behar direla gogorarazi dute Udaletik;

hala, edukiera aulki kopuru jakin batera mugatuko da eta horien artean bi metroko tartea utziko dute. Derrigorrezkoa izango da, gainera, ikusleek maskara jantzita izatea.

Dantzak eta umorea

Eguaztenean, uztailaren 1ean, jarriko da abian programa, Goi-

tibera taldearen *Yijaaa!!!* ikuskizunarekin. Umorea oinarri dela, eta hainbat tramankulurekin baliatuta, ametsi haizea emango dien antzerkia eskainiko du konpainia bizkaitarrak, Herriko Plazan.

Rojo Telon konpainiako hiru emakumeek zirkua buelatuko diziplina ezberdinekin osatuta-

ko ikuskizuna eskainiko diete herritarrei.

Entzute handia duen Tio Teronen Semeak taldeak, osterara, dantzak umorea eta doinu eza-gunak bateratuko ditu uztailaren 10ean egingo duen *Festimentua* ikuskizuneari.

Pailazoak ikusteko sarrerak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute uztailaren 17an, Ibarra kiroldegian. Martxoaren 13rako iragarri zutena da hori; orduan bertan behera utzi behar izan zen osasun larrialdiagatik.

Orduan sarrerak erosi zituztenek gorde egin ditzakete oraingo emanaldirako, edo itzuli eta dirua berreskuratu; Arkupeko sarreratik pasatu beharko dute horretarako, ekainaren 29tik uztailaren 7a bitartean. Udaletik iragarri dute itzultzen direnak berriro salgai jarriko dituztela eta uztailaren 8tik 16ra bitartean erosi ahal izango direla, 5 eurotan, Arkupen bertan.

Ekainekoekin "gustura"

Uztaileko egitarauak *7x7 kultura kanean* egitasmoaren lekukoa hartuko du. Ainhoa Cabero zinegotzia pozik agertu da ekaineko emanaldiekin: "Eskerrak eman dizkigute herritarrek. Umeendako antzerkiek harrera ona izan dute, baina bereziki helduendako emanaldiek izan dute arrakasta".

Uztaileko egitaraua

Kanean izan arren edukiera zainduko dute eta maskarak jantzita egon beharko dute ikusleek.

Uztailak 1

- 19:00 Goitibera taldea: *Yijaaa!!!* Herriko Plaza.

Uztailak 8

- 19:00 Rojo Telon konpainia: *Kabaret*. Kurtzebarri eskolako kantxa.

Uztailak 10

- 20:30 Tio Teronen Semeak taldea: *Festimentua*. Herriko Plaza.

Uztailak 15

- 19:00 Hika Teatroa konpainia: *Tonbola*. Herriko Plaza.

Uztailak 17

- 18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak: *Bizi dantza*. Kiroldegia.

Uztailak 22

- 19:00 The Funes Troup konpainia: *Aukerak*. Herriko Plaza.



MIRARI ALTUBE

San Juan bezpera girotzen

Osasun larrialdia dela-eta San Juan bezpera girotzeko ekitaldirik ez da izan aurten, baina herriko txistulariek keinutxo bat egin gura izan zioten egunari, eta kaleak girotzen jardun zuten martitzen iluntzean. Loramendi kanean hasita egin zuten kalejira, eta sanjuanetako

zortzikoa jo hainbat gunetan. Herritarrek txaloekin eskertu zieten ahalegina.

Bestetik, herriko taldetxo batek irak bota zituen atarteetan goizaldean, sasoi bateko ohiturari eutsita, eta gurutzak ere jarri zituzten hainbatetan.

Uztaileko bonuak eguaztenean jarriko dituzte salgai

Uztailaren 1arekin batera beste 1.200 bonu jarriko ditu salgai Udalak, herriko dendatan, ostalaritza zerbitzuetan eta enpresa txikietan erabiltzeko. Oraingoan ere, 1.000 salduko dira 50 euroko taloitegiak (herritarrek 40 euro ordainduko dute), eta 200, osterara, 5 euroko taloitegiak egongo dira eskuragai (4 euro ordainduta). Aurrekoetan legez, Arkupera joan beharko dira herritarrek horiek eskuratzea; hona hemen ordutegia: 09:00-13:00 eta 17:00-20:00. Lehen hamabost egunetan aretxabaletarrek lehen-tasuna izango dute.

Abuztuan ez da bonurik salduko eta ekimenari irailen ekingo diote berriro.

Musika eskolako izen-emate epea zabalik dago

Leizarra musika eskolak zabaldu du matrikulatzeko epea eta horretarako azken eguna uztailaren 12a izango da. Online egin beharko da eta Mariatxen Urkia zuzendariari deitu beharko diote interesatuek (609 83 53 17). Musika eskolak jasotzeko, instrumentu bat jotzen ikasteko zein euskal dantzetan jarduteko aukera izango dute herritarrek Leizarran. 5 urtetik gorakoek eman dezakete izena (4 urtekoen dantza talderik ez da sortuko aurten) eta ez dago adin mugarik. Eskolako kideak hasita daude ikasturtea antolatzen eta egoera berrirako ezarritako "segurtasun protokoloak kontuan hartuta" izango da hori.

"Aske" izateko eskubidea aldarrikatzea helburu

Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna da ekainaren 28a eta hori gogora ekarri gura du Mugimendu Feministak; domekarako hainbat ekitaldi antolatu ditu eta Udalak ere bat egin du iluntzean, Herriko Plazan, egingo den elkarretaratzearekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Debagoien mailako ekitaldirik ez da izango aurten, baina Aretxabaletako Mugimendu Feministak -Pikarraituz eta Erdu talde feministak- Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenak kalera aterako ditu domekan.

Ohiko elkarretaratze soiletik harantzago joan nahi izan dute eta, bereziki, Pikarraituzeko gazteen proposamenak aintzat hartuta osatu dute egitaraua; performancea eta desfilea, esaterako, horien eskutik datoz, nahiz eta besteek ere parte hartu. "Normaltasun berria deritzona abian den honetan inoiz baino gehiago galdetu gura dugu zer den normala eta zer iritelen den eredu heteropatriarkal normatibo horretatik", diote kideek.

Udal Gobernuaren adierazpena

Udal Gobernuak adierazpen instituzionalaren bitartez esan du LGTBI+ eskubideei dagokienez aurrerapausoak eman badira ere

Eguneko ekitaldiak

Aretxabaletako Mugimendu Feministak antolatutako ekitaldiak dira, eta Udalak bat egin du iluntzeko elkarretaratzearekin. Herriko Plazan izango dira guztiak eta segurtasun neurriak -1,5 metro eta maskarak- gogoan izateko eskatu dute antolatzaileek.

Ekitaldiak:

- **13:00** Performancea Pikarraituz taldekoen eskutik.
- **18:00** LGTBQ+ marrazte saio kolektiboa.
- **19:00** Elkarretaratzea eta desfilea.

eskubide horien onarpen formal hutsetik ez dela pasatu: "Zoritxarrez, batzuetan ez da behar adina berme komunitate honen eskubideak egiaz errespetatzen". Gaineratu du jendarteak eta erakundeek "berdintasuna eta diskriminaziorik eza jarri dituztela jarduera esparru nagusien artean". Ildo horretatik, Udal Gobernuak konpromisoa hartu du "jendarte errespetuzkoagoa, bidezkoagoa eta integritzaileagoa" eraikitzeko.

EH Bilduren "gonbidapena"

EH Bilduko ordezkariak adierazi dute adierazpen hori adosteko "inolako kontakturik" ez dela egon Udal Gobernuaren aldetik eta "guztien iritziarekin aberatsagoa" izan zitekeela; testuko hainbat kontu aldatuko litzuketela gaineratu dute.

Mugimendu feministak, bereziki gazteek, erakutsitako "konpromisoa" nabarmendu dute eta ekitaldietan parte hartzea gonbidatu dituzte herritarrek.



Neska-mutiko mordoia UDAko futbol campusean, iaz. UDA

UDaren futbol campusean izena emateko azken eguna domekan

Uztailaren 6tik 24ra bitartean egingo dituzte, eta 2008 eta 2011. urte arteko neska-mutikoei bideratu diote

M.A. ARETXABALETA

Ez du aurreko urteetako antziz izango UDAk antolatutako campusak, baina oraingoan ere futbola izango dela ardatz iragarri dute kirol elkarteko kideek. Uztailaren 6tik 24ra bitartean egingo dute, eta 2008tik 2011ra artean jaiotako neska-mutikoei bideratu diote. 100 umerendako tokia egongo dela iragarri dute, eta izena emateko epea ekainaren 28a arte dago zabalik; formulario bat bete behar da -*labur.eus/UDAkampus*- . Argibideak gura izanez gero, Ainara Muga kudeatzailearengana jo behar da: 658 73 14 71 eta *uda.kudeatzailea@gmail.com*.

Goizez, ordu eta erdi

Ibarra futbol zelaia izango dute elkartzeko gune, eta ekintza ezberdinak egingo dituzte han. Adinaren arabera taldeak osatuko dituzte, eta ordutegi

ezberdina zehaztu dute horien dako: 2010ean eta 2011n jaiotakoak: 09:45-11:15; eta 2008an eta 2009an jaiotakoak: 11:30-13:00.

Talde bakoitzean gehienez hamar kide izango dituztela adierazi dute: "Taldea murriztu hauek monitoreen aldetik haurrei gertutasun handiagoa eta lanketa zainduagoa eskaintzeko aukera ematen dute, batetik, eta, aldi berean, egungo osasun egoerari modu egokian erantzuteko segurtasuna dugu, pilaketak saihestuz".

Bizikletan ibiltzeko jantziak

Bestetik, bizikletan ibiltzeko arropa atera du UDAk, kirol arropak ekoizten dituen Gobik enpresarekin. Jantzi motza, luzea eta txalekoa daude aukeran eta eskaera egiteko Gorka Etxaberekin edo Alfredo Meaberekin jarri behar da harremanetan; azken eguna ekainaren 28a da.



Herriko zebra-bide bat kolore biziekin margotuta, domekako egunari keinu egiteko. M.A.

Patroiak egiten eta josten irakatsiko du Katalin Antxiak

Patroigintza eta joskintza ikastaroa eskainiko du Katalin Antxia Abasolok, beste urte batez. Uztailaren 6tik 10era izango dira eskolak (09:30-12:30), bost egunez jarraian, Arkupe kultur etxean, eta izena emateko epea zabalik dago; hona hemen bidea: *info@modubat.fr*. Prezioa da 190 euro eta horren barruan sartzen da materiala eta josteko makina.

Zuzeneko hitzaldiak eskainiko dituzte KZgunean uztailean

KZguneak eskaintzen dituen ikastaroak Youtubeko kanalaren bidez jarraitu ahal izango dira uztailean ere, maiatzean eta ekainean egindako legez; goizez zein arratsaldean eskainiko dituzte. Horien gaineko argibide gehiago jakiteko, *KZgunea.eus* webgunera jo behar da. Hitzaldi horietarako sarrera librea izango da.



Fernando Eskoriatza plaza. IMANOL BELOKI

Bost ardatz nagusi aurrekontu berrietarako

Diru-sarrerak milioi bat eurotik gora murriztuko direnez, aurrekontua egokitu du Udalak. COVID-19aren ondorioei aurre egiteko, berriz, bost ardatz nagusi batzen dituen berreraikuntza plana jarriko dute bai, eta baita merkatariei laguntzeko bonuak ere

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ekaineko ezohiko osoko bilkura izan zuten joan den egunean Eskoriatzako udalbatzako kideek. COVID-19aren ondorengo berreraikuntza programa izan zuten hizpide, eta baita 2020ko Ordenantza Fiskalak aldatzea ere, besteak beste.

Eskoriatzako Udalaren 2020ra begirako hasierako aurrekontua 5.852.545, 50 eurokoa zen, baina COVID-19aren krisiak eraginda diru sarrerak milioi bat eurotik gora jaitsiko dira. Foru-funtsa da gehien jaisten den partida, %25, baina baita zerga eta tasa bilketatik datozenak ere: jardue-ekonomikoen gaineko zergen bilketak ere behera egin du, bai eta hondakinen bilketaren eta espazio publikoaren okupazioaren tasak ere –terrazak jartzea–, hori baita COVID-19aren osteko berreskuratzeko programan planteatutako neurrietako bat. Udal-instalazioa –kiroldegia– ixteagatik eta ekintzak bertan behera uzteagatik ere diru-sarrerak

murriztu dira. Beste aldetik, dirulaguntzen partidak murriztea ere aurreikusi du Udalak, bai laguntza-programa bertan behera geratu delako, bai gastupartida kentzea planteatzen delako. Ondorioz, egokitutako aurrekontua 4.682.758, 32 eurokoa izango da.

"Diru-sarreraren murrizketa gastuen aurrekontuari aplikatu ondoren, eta gastatutako edo konprometitutako zenbatekoak deskontatu ondoren, eta udal teknikarien proposamenen arabera beharrezkotzat jotzen diren gauzatze-partidak doitu ondoren, 36.000 euro inguruko aurrekontu-superabita lortu dugu", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Hirigintza eta Mugikortasun ba-

BOST ARDATZ EZARRI DITUZTE AURREKONTU BERRIAN, PROGRAMA BERRIETARA EGOKITZEKO

tzordeburuak. Murrizketa, berriz, hainbat partidatan planteatu dute, eta gehien jaisten direnak inbertsioak –376.081,73 euro– eta gastu arrunta –525.813,45 euro– dira.

Berreraikuntza plana

Enpresetan, saltokietan eta ostalaritzako negozioetan izaten ari den ondorioei aurre egiteko, 540.000 euro inguru bideratzea proposatzen dute, bost jarduerardatzetan bildutako hainbat programatar: egoera ahulenean dauden sektoreei laguntzea, ekonomia suspertzeko txoke-neurriak, gizarte eta kultura jarduerak seguru berreskuratzea, pandemiaren prebentzioa eta klima-aldaketari eustea.

'Eskoriatza bizirik bonuak'

Erosketa-bonuen programa ere jarriko du martxan Udalak. Bonuak Ibarraundin erosi ahal izango dira, eta herritar bakoitzak sorta bat erosi ahal izango du, gehienez, hilean.

'San Juan' dantza grabatu dute Eskoriatzako dantzariak

Gorosarri plazan grabatu dute Eskoriatzako txistulariek eta Beheko Errota musika eskolako dantzariak bideoa

I.B. ESKORIATZA

COVID-19ak eragindako egoera dela eta, Eskoriatzako Udalak San Juan bezperan egin ohi diren jarduerak ez antolatzea erabaki du; betiere, jende pilaketak saihesteko asmoz. Hala, ez da tantairik igo, ez da surik egon, baina egun horretan Euskal Herriko plaza eta herri askotan dantzatu ohi den *San Juan* dantza grabatu dute Eskoriatzako txistulariek eta Beheko Errota musika eskolako dantzariak; bideoa ikusgai dago *Eskoriatza bizirik* Youtubeko plataforman

edo *Goiena.eus* webgunean. Txistulariekin batera, sei dantzari hartu dute parte ikus-entzunezkoan, eta Gorosarri plazan grabatu dute.

San Juan bezperako surik egon ez arren, eta Santa Ageda neska-mutilek tantaia igo ez arren, beste une batean igotzeko asmoa agertu dute egun horretako protagonistek. Hala ere, ez dira guztiz suspendituta geratu, baizik eta atzeratuta, osasun egoera aldatu arte. Horrela adostu du Udalak 2003an jaiotako gazteekin.



I.B.

Bizitzak erdigunean jarrita

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak –sindikatu eta eragile askok osatutako plataforma– mobilizazioak deitu zituen joan den egubakoitzerako, eta Eskoriatzan ere bat egin zuten aldarrikapenarekin. Hala, *Publikoa eta funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenik bizitza!* lelopean batu ziren zenbait herritar plazan.

OHARRAK

Olazar Erretiratu Elkarteak

Olazar Erretiratu Elkarteak martxoaren 18an ziren egitekoak urteko batzar orokorra. Ezin izan zuten egin, eta lehenbailehen egin gura dute. Izan ere, juntako zortzi kideetatik bost aldatu behar dira. Hala, batzarra Zaldibar antzokian egiteko eskaera egingo diote Udalari, eta elkartean dituzten beste zenbait beharren bueltan ere galdetu.

Zarimutz auzoko San Pedro jaia

San Pedro egunean, Zarimutzen, urtero izaten dira meza eta luntxa. Hala, auzotarrak batzeko eguna ere bada. Aurten, baina, meza eta luntxa bertan behera geldituko direla jakinarazi dute auzotarrek.



Gaztañaduiko ur-jauziaren argazkia pareko zubitik aterata. I.B.



Zuhaitz adarrekin dago beteta ur-jauzi ingurua. I.B.

Gaztañaduiko ur-jauzia, adarrez inguratuta

Mazmela auzoan dagoen Gaztañaduiko ur-jauzi ingurua bainu bat hartzeko ezaguna da Eskoriatzako gazteen artean. Hala ere, gaur egun, adarrez beteta dago ingurua, eta ezin da lehen moduan bertatik salto egin, eta ezta behealdera jaitsi ere

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eguraldia portatzen denean herriko zein bailarako gaztetxo askok Mazmela auzoko Gaztañadui auzora joateko aprobetxatu izan dute, bertan dagoen ur-jauzitik uretara salto egiteko, edo bertako putzuan pixka bat freskatzeko. Hala ere, inguru guztia adarrez beteta dago, eta uretara iristeko lehen zeuden pasabideak moztuta daude.

Ur-jauzira pasoa moztuta

Herrigunetik Aingeru Guardako bidegorria hartu, eta Kuartuena auzoa pasata iritsi daiteke bertara. Uretara salto ederra egin daiteke bertan, eta dagoeneko hasi dira herriko zenbait gazte

bertara joaten. Hala ere, ur-jauzira ezin da pasatu, eta beldian eguzkia hartzen edo ur-jauzitik gorago erreka bazterrean bainatzen aritzen direla adierazi du Juan Karlos Bengoa bizilagunak: "Ur-jauzi puntara joateko bidea adarrez bete dute, eta baita ur-jauzi azpiko putzura joateko bidea ere. Egunotan etorri izan dira haurrak eguzkia hartzera, edo ur-jauzitik gorago joanda erreka bazterrean pixka bat bustitzera, baina lehen moduan ezin da aritu bertan ur-jauzitik salto egiten. Goiko pasabidea moztuta dago, eta baita lehen zegoen iturri zaharrera joateko eta ur-jauzi pareko putzura ematen zuen bidea ere".

Bizilagunentzat konpromisoa

Inguruan bizi direnentzat konpromiso handia dela bertan jendea aritzea gaineratu gura izan du Juan Karlos Bengoa: "Gertatu izan da ezbeharren bat edo beste, eta, egon daitekeen arriskuaz gain, zikinkeria asko ere batu da bertan jendea aritu izan denean. Presako putzua ere urtero-urtero bete egiten da lurraz, eta, hala, sakonera ere aldatzen doa. Beraz, salto egitean ere aurretik konprobatu behar izaten da salto egin daitekeen edo ez. Nik ez dakit nork jarri dituen adarrak eta pasabidea moztu, baina zerbait gertatuz gero guk izatea ardura hori ere ez da samurra".

Su ederra piztu dute udako solstizioari ongiatorria egiteko

San Juan bezpera eguneko ekitaldiak modu berezian ospatu arren, giro ederra izan dute Leintz Gatzagan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

San Juan bezperako ekitaldiak izan zituzten martitzen gauean, Leintz Gatzagan. 21:00etan, San Migel plazan afaldu zuten herritarrek; eta, ohiko menua aldatuta, txistorra eta hirugiharra izan zuten menuan, urteroko sardina-jana beharrean. Bapo afaldu eta gero, 22:00etan, San Juan sua piztu zuten plaza erdian, eta horren bueltan batu ziren herritarrek. Edozelan ere, aurtentzen ezin izan dute urtero animatzen diren herriko ausartek suaren gainetik salto egin, udal ordezkariak halaxe erabaki baitzuten.

Ezohiko eran izan arren, San Juan bezperako ohiturei eutsi gura izan diete gatzagarrek, eta, urtero moduan, solstizioari ongiatorria egiteko su ederra prestatu zuten martitzenean. "Aurtentzen berezia izan da San Juan bezpera eguneko ospakizuna. Hala

ere, xarma berezia du egun honek, eta ekitaldi polita izan dugu, baita giro ederra ere", adierazi du Garazi Orobengoak, Ogasun zinegotziak.

Segurtasun tarteak errespetatuz

"Afaltzeko hamar mahai jarri genituen San Migel plazaren bueltan, eta mahai bakoitzean bost pertsona izan ziren eserita. Batetik bestera, gainera, segurtasun tarte ederra utzi genuen, eta oso ondo errespetatu zituzten egunerako jarritako neurriak herritarrek. Jatekoari dagokionez, berriz, guztira, bost kilo hirugihar eta hamar kilo txistor prestatu genituen, eta afaltzeko, 60 edo 70 lagun inguru batuko ginen, gutxi gorabehera. Egunaren balorazio positiboa egiten dugu, eta herritarren jarrera nabarmendu gurako genuke", adierazi du Garazi Orobengoak, Ogasun zinegotziak.



Leintz Gatzagan martitzenean piztutako San Juan sua. GARAZI OROBENGOA

SAN PEDROAK ESKORIATZAN

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
EKAINAREN 29AN, ASTELEHENEAN, 18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Jone Olabarria ESKORIAITZA

Orain arte ezagutu diren San Pedro jaiek hurrengo aldi batera arte itxaron beharko duten arren, eskoriatzarrek zenbait ekintzaz gozatzeko aukera izango dute aurten; betiere, segurtasun neurriak errespetatuz.

San Pedro egunaren bezperan hasi eta Euskal Jai egunarekin bukaera eman ohi diete San Pedro jaiei herritarrek, eta aurten COVID-19ak eraginda bertan behera geratu diren arren, ekainaren 28an eta 29an musika nagusi izango duten ekintzak izango dira Eskoriatzan.

Danborradako doinuak

San Pedro egunaren bezperan, ekainaren 28an, egin ohi du ez-tanda festak Eskoriatzan, txupinazoaren ostean. Egun berean egiten den eta festetako ekintza kuttunetarikoa izaten den danborradak ez ditu aurten herriko kaleak zeharkatuko. Horien ordez, baina, zenbait ekintza prestatu ditu Eskoriatzako Udalak; goizetik hasita, diana izango da txistulariekin, 10:00etan, eta, eguerdiko giroa musikatu, trikitilariak egingo dute kaleji-



Euskal Jai egunean egin ohi dute herri bazkaria eskoriatzarrek. Irudian, iazko bazkaria herriko plazan. GOIENA

Ohiko jai barik, festarako prest eskoriatzarrak ere

Aurtengo San Pedro jai bereziak girotzeko asmoz, ekintza ugari antolatu ditu Eskoriatzako Udalak herriko zenbait talderekin batera. Goiena telebistak jarraipena egin, eta sanpedroetako saioa emitituko du astelehenean, Eskoriatzan grabatua

ra herriko kaleetan zehar, 13:00etan.

Arratsaldera begira, kanpai jotzaileak arituko dira, 18:30ean; eta, 19:00etan, bandaren kalejira ibiliko da kalerik kale, herria girotzen. Iluntzean, berri, danborrik ez, baina danborradako doinuak izango dira entzungai Eskoriatzako kaleetan zehar; DJ Motoren ardura izango da auzoz auzo danborrada giroa jartzea, 21:30etik 23:30era arte.

San Pedro eguna, gertu

Bezperan moduan, San Pedro egunean ere, ekainak 29, txistularien dianak hasiko du jaieguna. Bi elizkizun nagusi ere egingo dituzte San Pedro jaien baiten: ekainaren 28an, meza nagusia egingo dute, 12:00etan; baita hurrengo egunean, ekainaren 30ean: herriko hildako guztien aldeko elizkizuna izango da.

Aurreko egunean bezala, bandak kalejira egingo du, 19:00etan, eta, musikarekin jarraituz, DJ Motok girotuko ditu herriko kalea eta auzo ezberdinak, 18:30ean hasi eta 22:30era arte.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Gu ere
eskoriatzarrekin!

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20555 Aretxabaleta

943 71 41 57

harrera.juhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu



AINGERU
Gasolindegia S.L.



Aingeru Guarda pasealekua z/g
20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 53 73



1986. urteko San Pedro jaietan sokamuturra plazan, Teleskoko irudietan.

Saio berezia Santa Marina plazatik

Aurten ohikoa den moduan ospatu ezin izan diren jaietan egin bezala —Bergarako jaiak, San Juan jaiak eta corpusak—, Goiena telebistak saio berezia eskainiko du astelehenean, hilaren 29an. Eskoriatzan bertan grabatua, Santa Marina plazan, Miren Arregi kazetariak gidatuko du saioa eta herriko eragile ezberdinekin batera San Pedro jaiak izango dituzte hizpide.

Erreportaje eta elkarrizketa ezberdinen bitartez San Pedro jaien ohiko ekintza batzuk ezagutzeko aukera egongo da 45 minutu iraungo duen *Hemen Debagoiena* saio berezian: txirindulari lasterketa motela, Jose Ramon Zubizarreta alkatearekin elkarrizketa, atzerrian bizi diren eskoriatzarren mezuak, jaietako kartela izango litzatekeena ezagutu, urteetan atzerako San Pedro jaiak ezagutu...

Musika, protagonista nagusi

Hain zuzen ere, iluntze partean kaleak girotzeaz arduratuko den DJ Motok azaldu du prestatutakoa: "Bezpera egunean, danborradako doinuak jarrita herriko kaleetan zehar ibiliko gara, danborradak egin ohi duen bide bera jarraituz. San Pedro egunean, baina, zaharren egoitzan hasiko dugu ibilbidea, haiek ere musikaz goza dezaten, eta ostean, herriko gune askotatik pasako gara. Bi saioak kamioi baten gainetik egingo ditugu".

Youtube bidez

Ohiko moduan egiteko ezintasunagatik, alkatearen agurra *Eskoriatza bizirik* Youtube plataformako kanalean dago ikusgai. Jose Ramon Zubizarreta alkateak dei egin du "modu berezian" bada ere San Pedro jaiak ospatzeko: "Gaixotasuna tartean egonda ere, guk aurrera egiten saiatu behar dugu. Jai bereziak izateak ez du esan nahi jai tristeak izango direnik. Jai hauetan norbera protagonista izan eta kontziente izan behar dugu non gauden eta nola gauden; batez ere, zer egiten dugun".

Etorkizunera begira ere mezua helarazi nahi izan du Zubizarretak: "Itxaropenak nagusi izan behar du; hemendik irten-go gara, eta datorren urtean hobeto ospatuko dugun esperantzarekin".

Antzinako San Pedro jaiak

Era berean, antzinako San Pedro jaiak gogora ekarri nahi izan dituzte, eta Teleskoko bideoa eta irudiak berreskuratuko dituzte kanal berean. Hala, *Eskoriatza bizirik* kanalean, ekainaren 28tik aurrera, 1986tik aurrerako Teleskoko bideoak jarriko dira, San Pedro jaietan orduan egiten ziren ekintzetako zenbait batuta: bigantxak, danborradak... eta baita Eskoriatzako ereserkia estreinatu zeneko bideoa ere, 1988. urtekoa.

Balkoiak apaintzeko eskaria

Udalak eskoriatzarrak animatzen ditu balkoiak eta leihoak apaintzera, ikurrinekin eta Eskoriatzako banderarekin. Banderak salgai daude Dorleta liburudendan, Zarus goxo-dendan, Carmen mertzerian eta Compostela tabernan, 10 eurotan.

San Pedro jaietako egitaraua

Jaiak ospatzeko, "ekitaldi sinbolikoak" antolatatu ditu Udalak.

Ekainak 28, domeka

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **13:00** Trikitilarietako kalejira.
- **18:30** Kanpai jotzaileak.
- **19:00** Bandaren kalejira.
- **21:30-23:30** Danborradako doinuak, DJ Motoren eskutik.

Ekainak 29, astelehena

- **10:00** Diana.
- **12:00** Meza nagusia.
- **19:00** Bandaren kalejira.
- **18:30-22:30** Musika kalez kale, DJ Motorekin.

Ekainak 30, martitzena

- **12:00** Hildako guztien aldeko meza.



Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA



Intxaurtxueta 16, behea
 ESKORIATZA
 T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



MARTIN frutategia

Frutan eta txarkuterian espezialista

Gu ere eskoriatzarrekin!

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58



Lasterketa motelaren hasierako urteak. ESKORIATZA IRUDITAN



Iazko bizikleta lasterketa motela. GOIENA

Frenorik gabe motelena izatearen abilezia landua

Urte asko dira sanpedroetan, Jose Aranburuzabala 'Trankil'-en ekimenez, bizikleta motelaren lasterketa egiten hasi zirenetik, nahiz eta gerora egiteari utzi zioten. Duela zazpi urte berreskuratu zuten proba, baina aurren, halabeharrez, ez dute egingo

Eneko Azurmendi ESKORIATZA

Jose Aranburuzabala *Trankil* ezizenez ezaguna zenak imajinario aberatsa zeukan eta urteetan Eskoriatzako jaiak bultzatzen eta antolatzen lan egin zuen. Behin eta berriro erakutsi zuen diru asko barik ere antolatu zitezkeela ekitaldi alai, desberdin eta arrakastatsuak, eta horren adibide da bizikleta lasterketa motela, urte asko dela sortu zuena. Gerora, urte askoan egin gabe egon ostean, duela zazpi urte berreskuratu zuten proba, jaietako azken egunean.

Orduetik, Lander Billarrek urtero parte hartu izan du. "Lehenengo urtean, kasualitatez, erosketa batzuk egitera etorri nintzen plazara, eta esan zidaten proba egitekoak zirela eta animatzeko. Gutxi batzuek hartu genuen parte, eta esperientzia polita izan zen. Irabazi egin nuen eta hemengo dendetako otarre bat izan zen saria. Ilusio handia egin zidan, eta, harrezkero, urtero hartu izan dut parte". Lau urtetan irabazle ere izan da. "Irabaztea gutxienezkoa da. Ondo pasatzea da helburua, eta herri-tarrek barre batzuk egitea".

Lasterketaren bitxikeriak

Kanporaketa bidez funtzionatzen du lasterketak, binaka. Batek aitona berruhandia jartzen du eta besteak, amonarena. 60 metro dira, eta helburua da distantzia hori ahalik eta denbora gehienez egitea, frenorik ez daukan bizikleta batean. Hau da, helmugara lehenengo iristen dena kanporatuta geratzen da. Era berean, ezin da atzera egin, eta hanka lurrean jartzen duena ere kanporatuta geratzen da.

"Buruhandia jartzean, ikusten duzun tartea oso txikia da. Buru-buila batean moduan zaude barruan, zure arnasa entzuten duzu eta, bat-batean, bestearen gurgila ikusten duzu ondoan. Estresa sortzen du egoerak, baina emozio handia ere bai; batez ere, herri-tarren oihuek", nabarmendu du Billarrek.

Gazteen parte-hartzea bultzatuz

Goio Uribe eta Bixente Inurra-tegi dira probako bi epaimahai-kideak. "Pena da jende gazteak ez duela parte hartzen, lotsagatik edo. Gustatuko litzaiguke gazte gehiagok parte hartzea aurrerantzean", dio Uribek.

AUTOS RIBELOGA

Aukerako eta auto berrien salmenta eta konponketa	Auto garbigailua
Mekanika orokorra	Karrozeria zerbitzua
	Leihoen tindatzea

Torrebaso pasealekua - 20540 Eskoriatza
www.autos-ribeloga.com - Tel: 943 71 00 95 / 943 71 0096

Gu ere eskoriatzarrekin!

Gu ere eskoriatzarrekin!

- Urrestilla- -Aldatz-
- Alkazar- -Akeita-
- O'Dogherty-

Kontzertuaren orde, bi aldiz egingo dute kalejira

Eskoriatzako musika bandak, sortu zenetik lehenengoz, ez du kontzerturik emango San Pedro egunean, ezohiko egoerak baldintzatuta, eta hori "penaz" hartu dute; hala ere, kalejira bi aldiz egingo dute: bezperakoaz gain, egunean bertan ere bai

Eneko Azurmendi ESKORIATZA

Eskoriatzako musika bandak lau hitzordu garrantzitsu izan ohi ditu San Pedro jaietan. Haurren eta nagusien danborradak, San Pedro bezperako kalejira eta San Pedro eguneko plazako kontzertua. Azken hau izaten da bandaren hitzordu nagusia. "1984. urtean banda sortu zenetik, urtero egin izan da kontzertua, tradizio handia dauka. Ni 13 urterekin hasi nintzen bandan, bonbardinoaz jotzen, eta beti egon izan da kontzertua, urtero", adierazi du Jesus Urrutiak, Eskoriatzako musika bandako zuzendariak -bi urte daramatza bandako zuzendari-.



Musika bandaren kalejira, antzina, San Pedro bezperan. ESKORIATZA IRUDITAN

Denetik edukitzen du kontzertu horrek, eta herritarren gustukoa izaten da. "Batetik, alde klasikoak edukitzen du, eta, bestetik, alde modernoagoa. Iaz, esaterako, Bon Jovi jo genuen. Azken finean, kalerako, giroa jartzeko egokia delako musika modernoa. Gaur egun, bandek denetik jotzen dute".

Kontzerturik ez, lehenengoz

Aurten, halere, ezin izango dute egin, egoerak hala behartuta. "Kontzertu inportantea izan ohi da guretzat, jende ugari batzen da eta oso polita izaten da. Aurten ezin izango dugu egin, eta pena handia ematen digu horrek". Horren orde, halere, bi aldiz egingo dute kalejira. Hala, bezperakoaz gain, San Pedro egunean ere egingo dute, arratsaldean. "Beste modu batera bada ere, bandak presentzia edukiko du aurtengo jaietan, eta gure ekarpena egin ahal izango dugu. Beraz, gustura eta pozik gaude", dio Urrutiak.

Bi kalejirak, ezberdinak

Kalerako errepertorioa prest daukatela azaldu du Urrutiak,

eta bi egunetan ezberdina izango dela gaineratu du. "Lehen egunean pieza batzuk joko ditugu eta bigarrenetan, beste batzuk. Hori bai, batzuk errepikatuta ere egingo ditugu". Lehen egunean, esaterako, Eskoriatzako ereserkia joko dute eta bigarrenetan, kalejira "normala" izango da. Biak ala biak 19:00etan hasiko dituzte.

Danborradaren ibilbidea

Ibilbideari dagokionez, danborradak egin ohi duena egingo dute bi kalejirek, gutxi gorabehera. "Modu horretan, herri osoa hartzeko aukera daukagu. Eskoriatza ez da oso handia; beraz, ez dago arazorik eta herritar guztiek edukiko dute banda entzuteko aukera. Jaiak direla eta, kaleak girotzea izango da gure helburua, modu xumeagoan bada ere, festa giroa arnasteko", adierazi du Urrutiak.

Urduritasunik ez dagoela gaineratu du zuzendariak. "Trankil gaude. Aurtengoa ezberdina izango da, eta pena da kontzerturik ez dela izango, baina dagoeneko eskarmentua dugu eta musikariak lasai daude".



ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

Gu ere eskoriatzarrekin!

Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza - Tel.: 943 71 45 06 - www.mirvat.com



IKERRA

Gu ere eskoriatzarrekin!

Tel. 943 533 831 - 630 087 071 - ikerra@ikerra.com



Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainaren 16an bete zituen 20 urte Bergarako kartzela zaharrak. Eraikina bera 1866an eraikitzen hasi eta 1873an bukatu zuten, baina 2000. urtera arte ez zen gazte bergararrendako "askatasun gune" izaten hasi. Ordutik hamaika abentura eta kalentura bizi izan dituzte bertan, eta gaur egun Bergarako espazio ezinbestekoetako bat da, sormenerako eta kultura eskaintzarako gune oso garrantzitsua.

2020an ez da Pentekosterik izan, baina online eskaini ziren kontzertu guztiak, Bergarako askotariko taldeen eskutik emandakoak, kartzela zaharreko agertoki nagusian grabatu ziren, adibidez. Ziega bakoitzak ia erabilera bat dauka; liburutegi bat, zinema areto bat, rokodromo bat... Areto nagusiaren bueltan dauden ziegez gain, kanpoko terraza oso erabilia izaten da bereziki eguraldi ona egiten duen egunetan; ortu bat ere badute bertan, besteak beste.

Etxebizitza berriak Mizpildin?

Urteurren bereziaren bueltan, kartzela zaharra erabiltzen duten kolektiboengana jo du GOIENAK, eta, gune autogestionatuaren etorkizunaren gainean galdetuta, horietako batzuek kezka agertu dute, Mizpildi kalean etxebizitza berriak eraikitzeke kartel bat agertu delako azken egunotan. Gune historikoa birgaitzeko plan bereziaren barruan 2013ko otsailetik badago proiektu bat Mizpildi kaleko lehen zenbakiko eraikina birgaitzeko. Udalean galdetuta, baina, bertan ezer eraikitzeke asmoen berri ez dute jaso oraingoz. Kartzela zaharreko kolektiboen artean "susmagarria" da Bergara eta inguruotan horrenbeste enpresa eraikitzaile izanda Derioko enpresa baten izena agertzea: "Errezeloz hartzen dugu Derioko enpresa baten izena ikustea; Bergaran hainbat eta hainbat enpresa eraikitzaile daude, eta Derioko enpresa bat etorri behar da hona etxebizitza berriak egitera? Uste dugu zer-bait arraroa badagoela hor, bai-

"BEHARREZKO TOKI BAT DA GURETZAT, KULTURA-GUNE OSO GARRANTZITSUA"

ANGIOLILLO LIBURUTEGIA



Kartzela zaharreko areto eta agertoki nagusiak, goiko pisutik aterata, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Kartzela zaharra, askatasun gune

Ekainaren 16an, 20 urte bete zituen kartzela zaharrak, hainbat bergararrendako "ezinbesteko espazio" eta egun gutxienez hamar kolektiboren etxea denak; kezka sortu da eragile horien artean, epaitegi ondoan etxe berriak eraikitzeke proiektu bat dagoelako

na, oraingoz, ez dugu informazioz. Ikusiko dugu zer gertatzen den". Etxebizitza berriak eginda ere kartzela zaharreko funtzionamenduan zein eragin izango zukeen zehazteke dago.

"Ezinbesteko gune" askorentzat

Hamar kolektibok osatzen dute gaur egun Kartzela Zaharreko Koordinadora, eta kolektibo horiendako guztiendako "ezinbesteko gune" bihurtu da. "Betidanik egon da kartzela zaharreko eraikinean liburutegiak izateko kultura. Berez, Angiolillo liburutegia kartzela zaharreko lau-

"BESTE TALDEEKIN PROIEKTU HERRIKOI BAT PARTEKATZEKO AUKERA EMATEN DU"

KOPLA BARIK BERTSO ESKOLA

garren liburutegi proiektua da. Beharrezko toki bat da guretzat, bai pertsona bezala zein talde bezala ikasteko eta jende ezberdinarekin erlazionatzeko", adierazi dute Angiolillo liburutegikoek. Ziega baten dagoen liburutegiak Michele Angiolillo izena hartu zuen, orduko Espainiako gobernuburu Canovas del Castillo erailteagatik garrotez exekutatu zuten anarkista italiarraren omenez; 1897ko abuztuaren 20an hil zen Angiolillo Bergaran, 26 urte zituela. "Kartzela zaharra Bergarako kultura gune garrantzitsuenetako bat

"INTERES EZBERDINAK DITUZTEN PERTSONAK ELKARTZEA OSO ABERASGARRIA DA"

DYNAMO ZINEKLUBA

izaten jarraitzea espero dugu", gaineratu dute.

COVID-19ak mundua hankaz gora jarri aurretik, kartzela zaharra ia astero erabiltzen zuten Kopla Barik bertso eskolakok: "Beste talde batzuekin proiektu herrikoia eta alternatiboa partekatzeke aukera eskaintzen du. Mila momentu on pasatu ditugu bertan eta ikasteko aukera ematen digun tokia da. 20 urte hauetan bezala, egoera berrietara moldatu behar dugu; seguru gaude beste 20 urte beteko dituela, osasunez gazte dago eta!".

"XAXATZEN JARRAITU BEHARREKO ASKATASUN GUNE BAT DA, DENOI ZABALIK"

MAIJOKU ELKARTEA

Zinema aretoa zortzigarren ziegan
Dymano zinekluba da kartzela zaharrean urte luzez diharduen beste talde bat. Euskal Herriko zinema aretorik txikiena ireki zuten 2018ko uztailaren 20an, zortzigarren ziegan, 2005ean itxi zen Novedades aretoko 18 aulkirekin, oihal originalarekin eta beste zenbait apaindurarekin: "Kultura-gune askea eta irekia da kartzela zaharra. Aldi berean eta modu irekian, interes edo jakin-min ezberdinak dituzten pertsonak elkartzeko gara, eta aniztasun hori aberasgarria da denontzat. Etorkizun oparoa dugu aurretik, orain arteko esperientziak etorkizunerako bidea lausotuko du eta!".

Kartzela zaharrean elkartzeko den beste talde bat da mahai jokoen sustapenerako eta hedapenerako sortutako Maijoku elkarte. "Oso gustura gaude kartzela zaharrean, xaxatzen jarraitu beharreko askatasun gune bat da guretzat, herritar denei zabalik dagoena".

Kartzela zaharrean egin diren Bergarako Elektronika Topaketek ere arrastoa utzi dute Bergarako eta Euskal Herri osoko elektronika-zaleengan; 2020ra begira ere gogotsu zeuden, baina, oraindik azken erabakia hartu ez badute ere, aurtengoa suspenditu egin beharko dute, seguruenik: "Gure kuarter nagusia da kartzela zaharra, espazio aske bat gauzak pentsatzeko eta egiteko. Bizi dugun egoera arraro honek asko zailtzen digu etorkizunean pentsatzea".

Txapa, kolektibo beterranoena

Badago 1984a ezker martxan dagoen proiektu bat: Txapa irrati libre. "Ez dugu inongo dirulaguntzarik jasotzen, irrati libre eta autogestionatu bat gara. Gure lanari esker doa aurrera Txapa; asanblada bidez funtzionatzen dugu, denon artean hartzen dira erabakiak hemen". 2019an 35 urte bete zituen Txapak, eta, urteurren ospakizun bueltan Txapako kide Kepa Leturiak GOIENARI esan zioenez, "beharrezko erreminta" bat izaten jarraitzen du Bergarako irrati

"GURE KUARTEL NAGUSIA DA, EGITEKO ETA PENTSATZEKO ESPAZIO ASKE BAT"

BERGARAKO ELEKTRONIKA TOPAKETA (BET)



Etxebizitza berriak egingo dituztela iragartzeko kartela, asteon, Mizpildi kalean. A.P.

libreak: "Etorkizuna aurreikus-tea zaila da horren azkar doan mundu honetan, baina Txapa irratia beharrezko erreminta izaten jarraitzen du guretzat. Txaparen balio handiena da herriarena dela; herriari ahotsa ematen jarraitzen badugu, Txapak etorkizuna izango du".

Hainbat lapurreta jasan dituzte

20 urte hauetan jasan dituzten erasoen artean, aipatzekoak dira askotan jasan dituzten lapurretak. 2014ko azaroan, esaterako, 4.000 euroko kaltea eragin zuten lapurrek; txoko guztietan ibili ostean, musika ekipo bat, argazki kamerak, dirua eta beste hainbat gauza eraman zituzten orduan. 2019ko maiatzean elkarretaratze jendetsua egin zuten San Martin plazan, azken hila-beteetan bost alditan sartu zirelako lapurrek kartzela zaharrean. "Oso haserre" agertu ziren kolektibo guztiak: "Gure baliabideak lapurtzeaz gain, gure espazio kutun honi eraso egin diote, eta nahikoa dela esateko batu gara. Denoi eragiten diguten lapurretak egin dituzten pertsonak gaitzesten ditugu eta ezin gara isilik eta geldi geratu egoera honetan sistemak eta gizarteak berak hartzen duen jarrera utziaren aurrean. Eta argi dugu konponbidea ez dela polizia gehiago jartzea edota arma kopurua handitzea, gauzak beste modu batera egin daitezkeela sinisten eta defendatzen dugu".

Bi belaunaldi, irakurketa bakarra

GOIENAKo kameran aurrean erantzutera animatu dira Angiolillo liburutegiko arduradun Aser Polvorosa eta Lubaki Langile Elkartasun Sareko Aitor Kortabarria. Biek diote "sekulako eskola" izan dela eta izaten ari dela kartzela zaharra eurentzat. "Adin ezberdinetako askotariko jendea elkartzen da hemen, eta hori oso aberasgarria da. Denok dugu zer ikasi eta zer irakatsi, eta kartzela zaharra esperientzia horiek partekatze-ko oso toki aproposa da", uste du Polvorosak. Kortabarriak ere

antzeko irakurketa egiten du: "Nire bizitzan leku handia duen gunea da. Jende asko eta oso interesgarria ezagutu dut hemen, eta izugarri ikasi dut".

Barne antolaketan aldaketak izan dituzte azken urteetan, Kortabarriak gogora ekarri duenez: "Gaztetxearen kudeaketa eta antolaketa Bergarako Gazte Asanbladaren [BGA] ardura zen lehen. Gorabehera handiak izan zituen talde horrek eta ikusi genuen gaztetxearen eta asanbladaren aroa agortuta zegoela, antolatzeko beste modu bat behar genuela. Horregatik, eraikin barruan aritzen diren eragile guztiak elkartu eta Kartzela Zaharreko Koordinadora [KZK] sortu genuen". Koordinadora horren barruan lantalde ezberdinak daude: barraren eta bodogaren ardura duen taldea; musika ekipoko lantaldea; mantenturako lantaldea; programaziorako taldea... Kortabarriak azaldu duenez, COVID-19aren aurretik egitarau taldea astero elkartzen zen. Gainera, posible da kartzela zaharra modu finkoan erabiltzen ez dutenek ere ekitaldi bat antolatzeko eskaera egitea; azaltzen zaie zeintzuk diren ekitaldi bat antolatzeko irizpideak eta zehaztutako egutegiak ahalbidetzen badu ez da arazorik izaten eraikina eta bertako baliabideak erabiltzeko.

COVID-19ak ez die utzi urteurrena nahiko luketen moduan ospatzen, baina argi dute helduko dela horretarako aukera.

Kolektibo asko elkartzen dira

Kartzela Zaharreko Koordinadora (KZK) osatzen duten kideak:

- Txapa irratia librea.
- Angiolillo liburutegia.
- Martxanterak talde feminista.
- Kopla Barik bertso eskola.
- Maijoku elkarte.
- Dynamo zinekluba.
- Jau! Haur eta Guraso Asanblada.
- Bergarako Elektronika Topaketa (BET).
- Egubakoitzak
- Berreskuratzen ekimena.
- Lubaki Langile Elkartasun Sarea.

Alarma egoera: aurkezpen bat

Alarma egoera barruan antolatu den ekitaldi bakarra Angiolillo liburutegiak egin zuen ekainaren 12an, DUT taldearen liburua aurkezteko. "Oso ondo joan zen. Helburua ere bazen erakustea posible dela normaltasun berriak eskatzen dituen baldintzekin halako ekitaldiak antolatzea". Irailetik ekainera funtzionatu ohi du kartzela zaharreko egutegiak; aurtun, COVID-19ak eraginda, ohi baino ekitaldi gehiago egongo direla aurreikusten dute.



Izan Bidea ekimenaren barruko manifestazioa Bergaran, maiatzaren 29an. JULEN IRIONDO

Ugarrixara martxak Bergaratik eta Antzuolatik, presoen alde

Izan Bidea ekimenaren barruan antolatu dute ekitaldia domekarako; bi martxak Ugarrixan batuko dira, 12:00etan

J.B. BERGARA

Sarek abian jarri duen dinamika berria da Izan Bidea, euskal presoek eta iheslarien egoerari irtenbide bat ematea duena helburu: "Herri honen elkarbizitzaren eta bakearen aldeko ibiltarien sare erraldoia osatu nahi dugu; taldean, lagunartean, familian edota bakarka kilometroak egin edota urratsak ematera animatu nahi zaitugu, dinamika honi ekarpena eginez". Ekainaren 22an, astelehenean, ekimena aurkezteko bilera irekia egin zuten kartzela zaharrean.

Ibilbide luzea eta motza

Domeka honetan Antzuola eta Bergara artean egingo dituzte kilometroak. Ibilbide bi egongo dira, luzea eta motza. 09:00etan San Martin plazatik abiatuko dira bergararrak eta ordu berean, Antzuolako udaletxe plazatik,

antzuolarrak. Bergararrek San Martin plazan hasiko dute ibilbidea eta Galartza, Besasti, Uzarraga eta Gorla zeharkatu ostean Ugarrixan elkartuko dira 12:00etarako. Ibilbide motza egin behar dutenek, berriz, 10:30ean elkartuko dira San Martin plazan eta bertatik Uzarraga eta Beteixo igaro ondoren 12:00etarako Ugarrixara helduko dira. Antzuolarrak, ibilbide luzearen barruan, 09:00etan plazatik irtenda Uzarraga eta Gorla zeharkatuko dituzte 12:00etarako Ugarrixan egoteko; ibilbide motzean, udaletxe plazatik 10:30ean irtenda, Uzarraga eta Beteixo igaro beharko dituzte.

Hortaz, bi herrietako martxak Ugarrixara helduko dira 12:00etarako eta ordu horretan ekitaldia egingo dute. Ekitaldi politikoaz gain jolasak eta luntxa izango dituzte, besteak beste.

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurri
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa legegaitza 1100/025



Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi saila da Euskaraldira entitate gisa batu den taldeetako bat. EUSKARALDIA BERGARA

Herriko 60 entitatek egin dute bat Euskaraldiarekin

Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egitea lortu nahi duen bigarren ariketa erraldoira begirako izen-ematea azkar doa, COVID-19ak prestaketa hankaz gora jarri badu ere; nahi duten entitateek irailaren 27ra arte izango dute aukera izena emateko

Goiena komunitatea

Euskaraldia / BERGARA

Gero eta gutxiago falta da Euskaraldiaren bigarren edizioarako, azaroaren 20tik abenduaren 4ra iraungo duen ariketa erraldoirako. COVID-19ak hankaz gora jarri du mundua eta hankaz gora jarri du ariketa erraldoi hau prestatzeko genuen aurreikuspena. Elkarren artean bi metroko distantziara egon behar ezin gaitu euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egiteko aukeratik urrundu, eta, horregatik, dakizuenez, alarma egoeran ere ez gara geldi egon. Gogoratuko duzuenez, *Etxealditik Euskaraldira* ekimenaren hasierako sustatzaile izan ginen, herriko ahalik eta entitate gehien batzeko sortu genuen *Euskaraldia eskura* -hainbat entitate batu dira ekimen horri esker, modu telematikoan zein presentzian egin ditugun bileretan...

Lantaldeekin lan egiteko aukera murriztu digu COVID-19ak, eta baita lan erritmoa geldotu

ere, baina pozik esan dezakegu dagoeneko Bergaran 60 bat entitate direla 2020ko Euskaraldiarekin bat egin dutenak. Eta espero dugu entitate berriak batuko direla datozen asteetan. Izan ere, konfinamendua arintzen joan den heinean hasi gara denda, zerbitzu, taberna eta jatetxeetara banan-banan joaten, hamar laguneko lantalde bat dugu eta horretarako. Azken aste honetan emaitza oso onak lortu ditugu; toki guztietan oso ondo hartu gaituzte eta gero eta gehiago dira batu direnak.

Herriko enpresengana ere ari gara zabaltzen; batzuek dagoeneko eman dute izena edota agertu dute parte hartzeko interesa hilaren 24an egin genituen

**ENPRESEI BEGIRAKO
BESTE AURKEZPEN
BILERA BAT EGINGO
DUTE EKAINAREN
30EAN, IRIZARREN**

bileretan, eta ekainaren 30ean beste bi aurkezpen bilera egingo ditugu, 11:30ean eta 18:00etan, Irizar jauregian.

Udan ekitaldirik ez, seguruenik

Udan ez dugu ekitaldirik egitea aurreikusirik; normaltasun berrira egokitutako ekitaldiren bat antolatu edo Udalak udarako prestatu duen emanaldietako bat baliatu dezakegu, akaso, Euskaraldia aurkezteko. Baina oraindik ez dugu zehaztu. Hala ere, irailaren 27a izango da hurrengo mugarria, egun horretan itxiko da eta entitateek izena emateko duten epea. Egun horren bueltan seguruenik antolatuko dugula ekitaldiren bat, izena eman duten entitateei esker ona adierazi eta azken trakarako ahalik eta entitate berri gehien erakartzeko.

Gogoratu entitate moduan batzeko edo boluntario gisa laguntzeko ateak zabalik daudela; idatzi edo deitu lasai: bergaraeuskaraldia@gmail.com edo 688 60 43 14 (Asier).



IMANOL BELOKI

Kolonizazioa eta arrazakeria

Greba Asanbladak deituta, mobilizazio jendetsua egin zuten ekainaren 19an herriko kaleetan. Martxaren lehen ekitaldia Fraiskozuri plazan egin zuten, Domingo Martinez de Irala konkistatzailearen omenezko monolitoan; arrazakeria salatzen zuten, eta kolonizazioarekin hasita George Floyden hilketara arte historian izandako "sarraskiak" gogoratu zituzten.



Bandaren lokala atzo goizean, metakrilatoekin eta desinfektatzaileekin. ENRIKE TXURRUKA

Bandaren itzulera domekan, kalejiran eta geldiuene motzekin

Hiruko lerroetan egingo dute kalejira eta geldiuene motzak egingo dituzte, jendeari hurbiltzeko astirik ez emateko

J.B. BERGARA

Ekainaren 23an bueltatu zen Bergarako Banda entseguekin. "Egoerak aginduta, protokolo zorrotz bat jarraituz itzuli gara entseguetara: distantziak mantenduz, metakrilatozko panelekin, aulki eta atrilak desinfektatuz, eskuak garbituz... Okerrena da gure ohiko lokalean hori dena bete ahal izateko bi taldetan eta txandaka egin behar ditugula entseguak, eta horrela askoz zailagoa dela obren muntai. Denboraldi-aurre bat bezala hartuko dugu", adierazi du Enrike Txurruka zuzendariak.

'Pobres y alegres', zuzenean

Lehen hitzordu publikoa domeka honetan izango dute, 11:00etan. "Hiruko lerroetan egingo dugu kalejira, distantziak mantentzeko. Ibilbidean zehar geldiueneak egingo ditugu bi pieza jotzeko, oso motzak, jendeari hurbiltzeko astirik ez emateko". Desfilatzen dugun bitartean, Miguel Gonzalez Bastidaren *Pobres y alegres* martxa ezaguna joko dute. Geldirik joko dituzte Amnabarren *Arraunlariak*, XX. mende hasierako pasodoblea eta doinu berriago bat, Pharrell Williams-en *Happy*-ren moldaketa.

Gaurtik hasita, abian da udako kultura eskaintza

Lehen ekitaldia gaur egingo dute, Errekalde parkean, 20:00etan, eta Arragoa talde bergararraren eskutik folk doinuak entzuteko aukera egongo da. Aurtengo edizioa osatzeko, gainera, Kultura Mahaiaren laguntza izan du Bergarako Udalak



Herriko hainbat eragilek martitzenean egin zuten udako kultura eskaintzaren aurkezpena Espoioian. MAIALEN REGUEIRO

Jone Olabarria BERGARA

Aurten ere eskaintza zabala osatu dute udarako Bergaran, eta ekitaldiak herriko txoko ezberdinetara hedatu dituzte; Espoioian ez ezik, auzoetara eta herriko parkeetara ere zabaldu dituzte edizio berrian. Martitzenean egin zuten aurtengorako prestatu duten eskaintzaren aurkezpena, eta bertan Kristina Markina Kultu-

ra zinegotziak adierazitakoaren arabera, "eskaintza aberatsa" izango da. Era berean, aitortu du Bergarako Udala "pozik" dagoela kultura ekitaldiak berreskuratu izanagatik, "hartzaileen zein sortzaileen onurarako".

Uztailean, eskulan tailerrez, umeendako zinemas, dantza tailerrez eta kale antzerkiaz gozatzeko aukera egongo da. Ekitaldi

bereziki ere antolatutakoak: San Juan auzoan egitekoa den garagardo dastatzea eta Pintura Eguna, esaterako.

Abuztuan, berriz, San Martin plazak helduen zinema hartuko du, musika kontzertuak izango dira herriko toki ezberdinetan eta ikuskizunak ere izango dira gozagai. Abuztuaren 4an, 11n, 18an eta 25ean egingo dute aire

Uztaileko eta abuztuko eskaintza

- **Uzt. 1. 19:00** Garagardo dastatzea. San Juan auzoan.
- **Uzt. 2. 17:00** Helduentzat eskulan tailerra. Seminarioko karpan.
- **Uzt. 3. 22:00** Tito Ramirez Combo. Kontzertua. Espoioian.
- **Uzt. 7. 19:00** Zinea umeentzat: *Pirata arratoia*. Espoioian.
- **Uzt. 8. 20:00** Kale antzerkia: *Turistreatzen*. San Martin plazan.
- **Uzt. 10. 22:00** The Bo Derek's. Kontzertua. Espoioian.
- **Uzt. 15. 21:00** Zine emanaldia. Ubera auzoan.
- **Uzt. 16. 21:00** Haur eskulan tailerra. Seminarioko karpan.
- **Uzt. 17. 22:00** Anaut. Kontzertua. Espoioian.
- **Uzt. 18. 22:30** Sara Zozaya eta Eyharts. Oxirondo plazan.
- **Uzt. 18. 19:00** Aritzeta abesbatzaren emanaldia. Santa Marinaran.
- **Uzt. 21. 19:00** Zinea: *Asterix eta edabe magikoa*. Espoioian.
- **Uzt. 23. 19:00** Antzerki arinak. Errekalden.
- **Uzt. 24. 22:00** Mice. Kontzertua. Espoioian.
- **Uzt. 25. 10:00** Pintura Eguna. Basalgon.
- **Uzt. 29. 19:00** Ipuin kontaketa. Angiozarren.
- **Abuzt. 5. 20:00** Jazz Lounge Quartet. Kontzertua. Osintxun.
- **Abuzt. 6. 22:30** Bulego eta Lemak. Kontzertua. Usondon.
- **Abuzt. 26. 20:00** Xabi Larrea Up. San Martin plazan.
- **Abuzt. 27. 22:30** Xabi Bandini + Indai. Kontzertua. Usondon.
- **Abuzt. 30. 19:00** Iker Lauroba. Kontzertua. Osintxun.

libreko zinema, 22:00etan, San Martin plazan. Eurria bada, Seminarixoko arkupeetan.

Berumuga Bergaran

Berumuga ekimenaren eskutik, Espoioiak lau emanaldi hartuko ditu, beste urte batez. Emanaldiak uztailearen 3an, 10ean, 17an eta 24an izango dira. Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsak-en ardura-dunak egitarauarekin "pozik" agertu da.

Kultura Mahaia

Aurtengo edizioa antolatzekeo, herritar talde batek Kultura Mahaia eratu zuen Gabonen aurretik, eta Udalarekin elkarlanean dihardute herriko kulturari bultzada bat emateko asmoz. Josu Agirre da Kultura Mahaiko ki-deetako bat, eta adierazi du "pozik" daudela Udalak erakutsitako

prestutasunagatik; azpimarratu du azken hilabeteetan sortutako elkarlanak urte osoko ekintzak antolatzekeo balio izango duela.

Segurtasun neurriak

Markinak jakinarazi du, baita ere, ekitaldietarako segurtasun neurriak hartuko direla: "Ekin-tza guztiak eserita ikustekoak izango dira, eta edukiera mugatua izango dute, distantziak bermatu daitezke". Udal langileek erraztuko dute jendeak jarlekua hartzea, eta erantzukizunez jokatzea eskatu dute.

SAN MARTIN PLAZAK AIRE ZABALEKO HELDUEN ZINEMA HARTUKO DU ABUZTUAN ZEHAR

Txanda sistemarekin abiatu du uda denboraldia Agorrosinek

Kanpoko igerilekua eta berdegunea erabiltzeko txanda hartu beharra dago, goizekoa edo arratsaldekoa


J.O. BERGARA

Asteon ireki dituzte Debagoieneko igerileku eta bainu-guneetako hainbat udara begira; tartean, Bergarako Agorrosin igerilekua. COVID-19 gaitzak eraginda, baina, neurri berezie-

kin hartu behar izan dituzte lehen bainuak erabiltzaileek; kanpoko igerilekuko edukiera 525 lagunekoa da eta jolaserako guneak itxita daude, hala nola txirrista eta umeen txorrotak. Erabilgarri dauden guneak da-

gokienez, berdegunea eta Ipintza futbol zelaiko eremu bat solarium gisa erabili daiteke; kanpoko igerilekua, barruko igerileku txikia, barruko igerileku handiko bost kale eta kanpoko komunak erabili ahalko dira.

Berdegunearen edukiera mugatuta dagoenez, markatutako tokietan soilik egon daitezke erabiltzaileak. Kanpoko igerilekua egunero egongo da zabalik, 10:00etatik 20:00etara, baina 14:30etik 15:30era itxi egingo dute, garbiketa egiteko.



Herritarrak bainuan martitzenean.

Igerilekura joan ahal izateko, txanda hartu beharra dago, goizekoa (10:00-14:30) edo arratsaldekoa (15:30-20:00). Abonatuak astebete lehenago har dezakete txanda eta eguneko erabiltzaileek, egunean bertan.

Erreserbatutako txanda hori pasatu arte ezin daitezke beste txandarik hartu zerbitzu berean eta erabiltzaile bakoitzak gehien ere eremu bakoitzetik txanda bat hartu dezake egunero. Txandak online, harreran eskatuta eta telefonoz hartu daitezke.



Zurrategi plazan bi gazte sagar dantza egiten. GOIENA

Sagar dantzak itxaron egin beharko du

Inoizko Kalebarrengo jairik ezberdinenak antolatzea zen asmoa. Izan ere, iturriak 125 urte betetzen ditu, eta aitzakia hori hartuta jai berriak egitea zen auzoko jai batzordeko kideen helburua. Hala ere, ekintzaren bat edo beste egingo dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zurrategiko iturriak 125 urte betetzen dituela eta inoizko jairik itzelenak antolatzeko asmoa zuten Kalebarrenen. Aurten, ordea, COVID-19ak dena irauli du, eta egoerak baimentzen dituen ekintzak egingo dituzte soilik. Hala, jaiak iragartzeko ez da haurren danbor hotsik entzungo; ezta ere Ondarreko gaitariena eta erromeriarena. Askok, gainera, faltan sumatuko dute herritarren artean sekulako arrakasta duen eta gertu-gertutik dantzaten den sagar dantza.

Normaltasun berriak ezarritako arauak errespetatu beharko dituzte antzularrek Kalebarrenen gaurtik domekara bitartean. "Ez dira ohiko jaiak izango, baina iturriak 125 urte bete dituela aitzakia hartuta ekintzaren bat edo beste antolatu dugu. Antzularrei zentzuz jokatzeko eskatu gura diegu, eta, legeak dioen bezala, ekintza guztietan maskara erabiltzea

gomendatzen dugu", adierazi dute Kalebarrengo jai batzordeko kideek.

Aurten, aldiz, ez dute etxez etxe dirua batzeko gutunik bidali. "Iazko diru-poltsari esker antolatu ditugu aurtengo ekintzak", argitu dute.

Osasun babes neurri gisa inguruko herrietatik etorri ohi diren autobusak bertan behera uzteko erabakia ere hartu dute, modu horretan jende pilaketa saihestuz.

Denen gusturako ekintzak

Gaurtik domekara bitartean izango da Zurrategi plazan bat edo beste, jaiak direla gogorarazteko. Gaur, 22:30ean, Udazken taldeak emanaldia egingo

MASKARA JANZTEKO ETA DISTANTZIAK MANTENTZEKO ESKAERA EGIN DU JAI BATZORDEAK

du. "Terrazetan ez dagoen jendearentzat aulkiak jarriko ditugu, distantziak mantenduz".

Bihar, 12:30etik 13:30era, haur, gazte zein helduek etxean aurrez eginiko marrazkiak batuko dituzte; ondoren, murala osatuko dute Zurrategiko arkupeko horman. "Asmoa da jasotako lan guztiekin marrazki kolektiboa egitea". 20:00etan, Kittu txaranga taldearen musika izango da nagusi. "Arren eskatzen dugu zentzuz jokatzeko eta musikariaren atzetik ez ibiltzeko", ohartarazi dute antolatzaileek.

Domekan, berriz, arratsaldeko bostetan, ipuin kontalaria izango da, Zurrategi plazan. Babes neurri gisa, eremua zehaztuko dute, eta bertan egongo dira jarraibideak eta arauak azaltzen jai batzordeko kideak.

Elkartasun festarik ere ez Anelkarren ezinbesteko hitzordua, berriz, aurten ez da egingo. "Egoerak ez du horrelako jai antolatzeko biderik ematen".



MIKEL OLABARRIA

Gutxieneko pentsioaren alde

Antzuolan ekin diote berriro erretiratuen eta pentsiodunen eskubideak aldarrikatzeko asteleheneroko elkarretaratzeak egiteari. Asteon, 25 lagun inguru batu dira plazan, 12:00etan. "1.080 euroko gutxieneko pentsio publikoaren alde, bakartuta bizi direnen alde eta zerbitzu publiko duinen alde batu gara gaur ere", adierazi dute.



A. M.I

San Juan dantza eta doinuak

San Juan bezperan ez da surik izan Herriko Plazan, baina Oinarineko dantzariak eta herriko txistulari taldeak kaleak eta auzoak alaitu dituzte San Juan bezpera dela eta udan ere jada sartuak garela iragarritz. COVID-19ak eragindako egoerak Antzuolan utzi duen beste irudi bat izan da honako hau ere: dantzariak maskararekin.

OHARRAK

Landatxopek ateak irekiko ditu

Ekainaren 29an irekiko du elkarteak egoitza, 15:30ean. Neurri zehatzak bete beharko dira, adinekoen osasuna zaintzeko.

Hitzaldia Torresoroan

EH Bilduko Marian Beitialarrangoitiak eta Ainhoa Beolak Jaiki plana aurkeztuko dute, sortu berri den egoerari aurre egiteko asmoz. Hitzaldia uztailearen 1ean, Torresoroan, 18:30ean.

AKEn batzar orokorra

Uztailearen 2an, AKEk batzarra egingo du, Torresoroan. 18:15ean lehen deialdia; 18:30ean, bigarrena. Denboraldiko diru-kontuak eta aldagela berriak izango dituzte hizpide, besteak beste.

Hazten ari diren katu koloniei neurria hartzen

Domingo Iturbe kale hasieran katu asko elkartzen direla-eta jaten ez emateko eskaera egin dute Udaletik. Inguruko bizilagunak haserre daude eta salatzen dute atzeko aldeko lokaletarako sarrerak katu-kakaz josita daudela

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Hainbat aldiz jo dugu udaletxera gure kexa azaltzera. Jendeak jaten ematen die katuei, eta orain, gainera, kumeak izan dituzte. Ugaritzen ari dira", azaltzen du Domingo Iturbe kaleko bizilagun Jose Antonio Ojangurennek.

Kale hasierako atariak lokaletarako sarrerak dituzte atzeko aldean. "4., 5. eta 6. atariak plaza bat dute, Bergara aldera ematen duena, eta katuek ohitura hartu dute leku horretara joateko", azaldu du Iratiz Lazkano alkateak. Duela hilabete inguruko kontua da, eta katuei jaten ez emateko eskatuz jarrita daude oharrak. "Bertan jarri zituzten lehenengo, baina inor gutxi ibiltzen da hor, eta ez ziren ikusten", azaltzen du Ojangurennek. Orain, auzuneko atarietan ere jarrita daude. "Ingurua garbitzera etorri dira brigadako langileak bizpahiru aldiz, baina jatekoa duten bitartean katuek hortxe jarraituko dute", ohartarazten du Ojangurennek. "Intentzio onarekin ematen die jaten jendeak, baina gaizki eginda dago", dio Lazkanok.

Aurretik ere izan dira antzerako arazoak herriko beste zenbait gunetan. "Lasao kalean eta Salvador kalean ere bai", gogoratzen du Ojangurennek. "Kolonia



Katu bat. J.L.

INTENTZIO ONAREKIN EGINDAKO BADA ERE, KALEKO KATUEI JATEN EZ EMATEKO ESKAERA EGIN DUTE

bat ugaritzen hasi zen eta esterilizatzeko neurriak hartu gennituen", baieztatzen du alkateak.

Bi boluntario herrian

"Orain, kolonia hori kontrolatuta eta identifikatuta dago", dio

Lazkanok, eta jakinarazi du ordutik bi boluntario daudela kaleko katuen egoerari jarraitpena egiten. "Zaindu egiten da kalean bizi diren katuen egoera, eta esterilizatzeko eta jaten emateko ardura dute boluntarioek. Ematen zaie jaten, baina adostutako lekuetan, eta pentsua. Janari freskorik ez".

Egoerak okerrera egin aurretik hartu behar dira neurriak. Horregatik, kaleko katuei jaten ez emateko eskaera egiten dute bai Domingo Iturbe kaleko bizilagunek bai Udalak.



ANE BILBAO LARRAÑAGA

San Juan sua, etxe inguruan

Ezohikoa izan da San Juan bezpera. Jende pilaketak saihesteko ez da aurtien San Juan surik egin Bolatoki inguruan. Aukera izan duten familiek eta lagunartek, ordea, etxe bueltan ospatu dute udako solstizioa. Piloa egin, sua piztu, kantuan egin eta gainetik saltoka ibili denik ere bada. Aurreko belaunaldien erara ospatu da, aurtien, San Juan bezpera.

Hauteskunde-mahaian egotera deitutako herritarrek

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan osasun neurri bereziak bete beharko dituzte bai herritarrek bai mahaian egongo diren ordezkariak. Betiko moduan, hauteskunde-mahai bakarreko hautesleku bat egongo da Elgetan. Udalak egin du hauteskunde-mahaian egotera deituak diren herritarrek izendatzeko zozketa.

Omar El Aissati Oualiri egokitu zaio mahaiko presidente kargua; lehen bokala Hiart Bolinaga Lete da eta bigarren bokala, Goiatz Agirre Iparragirre.

Ordezkoak dira: mahaiko presidente kargurako Maialen Garate Elkoro eta Isabel Elisabeth Bolinaga Askasibar, lehen bokalaren kargurako Iker Amesti Caminero eta Joseba Elkoro Arrizabalaga eta bigarren bokalaren kargurako M. Isabel Iturricastillo Ugalde eta Haritz Barrutia Sarasua.

GORA ETA BEHERA



KOMUNITATETIK

Edalontziak mahai gainean, kanpoan

Whatsapp kanalean jasotako argazkian Bolatokiko parkea ikus daiteke, eta edalontziak mahai gainean. "Lotsagarria, taberna jada itxita eta jendeak dena kanpoan utzita".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Katu-kaka, non-nahi

"Jende oso gutxi ibiltzen da hor eta iluntzeetan etortzen dira katuak. Jatekoa botatzen diete, eta, hori horrela den bitartean, berdin jarraituko dugu. Lehen, bost katu ziren; orain, kumeak ere badituzte. Inork katuak zaindu nahi baditu, har ditzala etxean, baina ez bota jatekorik. Ez dugu karrerarik aterako", dio bizilagunen ordezkari Jose Antonio Ojangurennek.



Katu-kakak, eraikinak atzeko aldean duen pasabidean. L.Z.L.



Aurten jairik ospatuko ez den arren, iaz Iraitz Lazkano alkateak eta Unax Agirre alkate txikiak eman zieten hasiera jaiak. A.A.

Ez mozorro, ez brindis: zaintzeko deia alkateak

Herriko hainbat eragileren iritziak eta ekarpenak jaso ostean erabaki zuen jai batzordeak aurtengo Ferixa Nagusiko jaiak bertan behera uztea. Iraitz Lazkano alkateak adierazi du osasuna dela lehentasuna, eta zaintzeko dei egin die herritarrei

Maialen Regueiro ELGETA

2020ko Ferixa Nagusiko jaiak uztailaren 2tik 5era ziren ospatzekoak, baina maiatz bukaeran erabaki zuen jai batzordeak bertan behera uztea, COVID-19ak eragindako egoeratik. Iraitz Lazkano alkateak adierazi duenez, pandemia iritsi zenetik argi izan du jai batzordeak zaila izango zela jaiak segurtasunez ospatzea: "Inork ez du nahi bere herriko jaiak bertan behera uztea, eta ez da erabaki erraza izan, baina ez da momentua tontokeriatan aritzeko, eta nik uste dut herritarrek ulertu dutela zein den egoera. Gainera, azken egunetan, ikusi dugu beste herri batzuetan zer gertatu den, nahiz eta jaiak bertan behera egon. Programazio bat egingo bagenu, nahiz eta oso arina izan, pilaketak egongo lirateke, eta ikusten dugu hori saihestea zaila dela". Lazkanok adierazi du, baita ere, herritarren aldetik hainbat proposamen jaso dituztela ekitaldiren bat antolatzeko asmoz, baina, alkatearen ustetan, lehentasuna "herritarren osasuna" da, eta ez litzateke "zentzuzkoa" izango Udala jaiak

antolatzen hastea. Gauzak horrela, alkateak lasaitasun zein ingurukoekiko konpromiso meza helarazi nahi izan die herritarrei: "Hilabete gogorrak izan dira, guztiok nahi dugu ahal den neurrian normaltasunera itzuli, baina elkar zaintzeko momentua da".

GOIENAK jakin du, gainera, jaiak bertan behera uztearekin batera, jaien baitan egubakoitzean egiten ohi den meza nagusia ere ez dela egingo.

Saio berezia Goienan

Goiena telebistak Elgetako Ferixa Nagusiko jaiak buruzko saio berezia eskainiko du uztailaren 2an, eguenean, 18:00etan. Artxi-boko irudiak, erreportajeak, elkarrizketak eta musika izango dira protagonista, jaietako ekintza garrantzitsuenetan parte hartzen duten kideen eskutik. Umorea ere ez da faltako saioan zehar, besteak beste, herritarrek zirikatuko direlako eta Ferixa Nagusiko jaien inguruan zenbat dakiten ikusi ahal izango delako. Eta herritik kanpo bizi diren elgetarren mezuak ere izango dira entzungai.



Gu ere elgetarrekin!

MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

ELGETAKO FERIXA NAGUSIA

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
UZTAILAREN 2AN, EGUENEAN, 18:00/20:00/22:00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Jatetxe eta elkarteetan batuko dira herritarrak

Ferixa Nagusiko jaiak ospatuko ez badira ere, lagun taldeak zein familiak hasi dira herriko jatetxe eta elkarteetan egun horietarako erreserbak egiten, mahaiaren bueltan elkartzeko asmoz, nahiz eta erreserba kopurua ez den beste urte batzuetakoa

Maialen Regueiro ELGETA

Herriko jaien baitan ohikoa izaten da lagun artean edota familian mahaiaren bueltan elkartzea. Ferixa Nagusiko jaiak egingo ez badira ere, Elgetako jatetxe eta elkarteetan herritarrak dagoeneko hasi dira egun horietarako erreserbak egiten.

Jatetxeetako erreserbak

Rincon de Lola, Bolatokia eta Maialde jatetxeak lanpetuta ari ziren dira Ferixa Nagusi garaian, baina aurtengo egoera bestelakoa izango delakoan daude, nahiz eta hasi diren erreserbak hartzen.

Rincon de Lolako arduradunak adierazi duenez, batez ere lagun

taldeen erreserbak hartzen hasi dira, nahiz eta egoera "kaxkarra" den. Horrekin batera, aipatu du jangelan mahai gutxiago dituztela eta horien artean distantzia mantentzen dutela. Maialde jatetzeko egoera ere antzerakoa da, arduradunak adierazi duenez. Iazko jaiekin alderatuz erreserba kopurua jaitxi egin dela aitortu du, eta euren kasuan ere hartutako erreserbak lagun taldeenak direla azaldu du. Maialden ere segurtasun neurriak hartzen ari dira, eta arduradunak eskaera jakin bat egin die bezeroei: "Jaiak ez dira ospatuko; beraz, bezeroei jarrera zaintzeko eskatuko nieke". Bolatokia

da oraindik erreserbarik hartu ez duen jatetxea, nahiz eta arduradunak egunak igaro ahala egoera aldatzea espero duen.

Herriko elkarteak

Elkarteetan ere bilduko dira herritar ugari jaiak ospatzekoak ziren egunetan. Gaur gaurkoz Intxorta elkarteak da jai egunetarako erreserbak dituen bakarra, arduradunak jakinarazi duenez. Izan ere, Ozkarbin zein Mendi Mendian elkarteetan oraindik ez da erreserbarik egin, nahiz eta bi elkartetako arduradunek espero duten egunak igaro ahala mahaien erreserbak egotea.

"Ez dut lehiaketan gehiagotan parte hartzea baztertzen"

'Guztiok kalera' lanak irabazi du aurtengo kartel lehiaketa, Sevillako Juan Antonio Aguilarren eskutik

M.R. ELGETA

Elgetako Ferixa Nagusiko jaiak ospatuko ez badira ere, urtero antolatzen den kartel lehiaketa ez da bertan behera geratu eta Udalak maiatzean eman zuen aditzera zein izan zen aurtengo kartel irabazlea: Sevillako Juan Antonio Aguilarrek egindako *Guztiok kalera* kartela, hain zuzen.

'Guztiok kalera' kartela

Aguilar Sevillan bizi da, eta, konfinamendu garaian, sare sozialetan kartel lehiaketen bila hasi zen, diseinuarekiko zaletasuna du eta. Elgetako jaietarako kartel lehiaketako deialdiarekin egin zuen topo, eta parte hartzeko erabakia hartu zuen: "Lehiaketan parte hartzeko baldintzak irakurri eta herriari buruzko informazioaren bila hasi nintzen Interneten. Infor-



Aurtengo kartela. JUAN ANTONIO AGUILAR

mazioa batu ahala diseinuari forma eman nion eta horrela osatu nuen kartela".

Aguilarren lanak botoen %80 jaso du, eta "poztasunez" hartu du irabazlea izatearen albiste. Gainera, ez du lehiaketan gehiagotan parte hartzea baztertzen.

Une zail hauetan, Elena Elkorok besarkada handi bana eman nahi die elgetar guztiei



Gu ere elgetarrekin!



Herriko kaleetan zehar azoka girorik ez

Elgetako kaleak ez dira ganaduz, barazkiz edota artisauz beteko aurtengo Ferixa Nagusiko jaietan. Ganaduzaleen kasuan, gainera, koronabirusaren pandemiari ganaduen osasun legearen afera gehitu behar zaio, egoera zailduko lukeena

Maialen Regueiro ELGETA

Ferixa Nagusiko azoka jaietako ekintza garrantzitsuenetako da, nahiz eta aurten kaleak ez diren ganaduz, barazkiz edota artisauz beteko, askoren atsekaberako. Sebastian Arantzabal aritzen da baserritarren eta artisauen azoka antolatzen, eta adierazi du azken hilabetetan bizitako egoera dela eta dagoeneko barnerratu duela aurtengo jaiak egiteko aukerarik ez izatearena. Horrekin batera, azokan produktuak saltzen dituzten saltzaileak izan ditu gogoan: "Egoera hau gehien pairatzen arituko direnak azokan izaten diren saltzaileak izango dira, azokaz azoka aritzen dire-



lazo Ferixa Nagusiko azoka. AITOR AGIRIANO

lako euren produktuak saltzen eta egoera honek geldi egotea dakarrelako". Ganaduzaleak ere izaten dira protagonista Elgetako jaietako azokan. Agustin Beretxinaga da, besteak beste, bere ganadua azokara eramaten duenetako bat, eta azoka antolatzen aritzen dena. Hala, aurten, koronabirusak eragindako egoerari ganaduen osasun legearen afera gehitu behar zaiola adierazi du: "Pandemia iritsi ezean, zaila zatekeen azoka bere horretan antolatzea, arau batzuk bete behar direlako eta ia ezinezkoa izango zelako ganadua azokara eramatea".

Artisauak

Pili Arin elgetarrak urtero izaten du postu bat azokan, eta bertan saltzen ditu berak eskuz egindako eskulanak. Aurtengo azokarako, gainera, prest zituen eskulan berriak, baina, jaiak bertan behera geratu zirela jakitean, banatzea erabaki zuen: "Penaz hartu dut albistea. Aurten, amets-harrapariak eginda neuzkan, berritasun gisa, baina lagunartean eta familian banatu ditut".

Paella goxoak eta txaranga doinuek, kale aurten

M.R. ELGETA

Ferixa Nagusiko jaietan kale egiten ez duten ekintzak izaten dira herri bazkaria eta Ustekabe txarangaren emanaldia. Bada, aurten, Elgetan ez da herri bazkariko paellarik dastatuko, ezta txarangako doinurik entzungo.

Emilio Quintana da herri bazkariko paella egiteaz arduratzen dena, eta "penaz" hartu du aurten kale egin behar izatea. Izan ere, Quintana eta bere taldea "oso gustura" etortzen dira Elgetara eta herriak euren presentzia eskertzen duelakoan daude. Quintanaren paella, gainera, ezaguna da bailarako beste herri batzuetako jaietan.

Ustekabe txarangako kideak ere penatuta azaldu dira, aurten herriko jai gehienetan giroa jartzeko aukerarik izango ez dutelako.

GOIKOETXE HARATEGIA

Gu ere elgetarrekin!



Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

Gu ere elgetarrekin!



CIE Recyde

Pagatza Pol. Ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
www.cieautomotive.com



Kaskajuaren irudia Elgetako jaietako zapien. LARRAITZ ZEBERIO

Jaietako zapiaren irudia baino askoz gehiago

Urteak dira Elgetako jaietako zapia atontzeko Kaskajuaren irudia erabiltzen dela, baina irudi horrek badu jatorri bat, elgetar ugarik agian ezagutuko ez dutena. Gutxi badira ere, oraindik bada barikuetan Kaskajuen Eguna ospatzen duenik

Maialen Regueiro ELGETA

Euskal Herriko hainbat herritan, Eibarren eta Elorrioren, esate baterako, ostiralari Kaskajuen Eguna esan ohi zaio, eta herritarrek euren askatasunaz gozatzeko aukera izaten dute; alegia, harrotasunez aritzeko eguna izaten da. Elgetan, garai batean, ospatzen zen horrelakorik, eta gaur egun ere oraindik hainbat herritarrek mantentzen duten ohitura da, nahiz eta belaunaldi jakin batetik aurrerako herritarren ohitura izan. Juan Ramon Irazabal elgetarrak adierazitakoaren arabera, 1950 eta 1960. urte bitartean jaiotakoetan du jatorria egunak. Izan ere, hainbat herritarrek Elgetatik Eibarrera egiten zuten bidaia, Eibarko eskolara joateko, eta gazteen artean autobusean sortutakoa da ohitura. Harrezkero, herriko hainbat kuadrillatoko ohitura izan da barikuan Kaskajuen Eguna ospatzea. Irazabalek adierazi du, gainera, duela bizpahiru hamarkada eskatu ziola orduko jai batzordeak Peio Alberdi elgetarrari Kaskajua irudikatu zezan. Alberdik irudia sortu zuen, eta, harrezkero, Kas-

kajuaren irudia Elgetako jaietako zapiaren irudia da. Zapiaren kolorea urtero aldatzen bada ere, zapiko irudia mantendu egin da belaunaldiz belaunaldi. Gaur egun, elgetar ugarik ezagutuko dute Kaskajuaren irudia, batean edo bestean ikusita eza-guna egingo zaielako, baina gutxi batzuek jakingo dute haren jatorria. Irazabalek aitortu duenez, Elgetan gutxi batzuek eusten diote barikuetan Kaskajuen Eguna ospatzeari: "55 urte-tik gorako hainbat herritarrek mantentzen dugu ohitura hori. Nik, esate baterako, barikuetan kalean topo egiten dudana herritar oro edota telefonoz hitz egiten dudana pertsona zoriontzen dut, Kaskajuaren Eguna gogora ekartzeko".

Ongietorria udalekuetan

Elgetako Ferixa Nagusiko jaiak eguen batean hasten dira urtero, eta, azken urteetan, udalekuetan aritzen diren gaztetxoek ongiatorria egiten diote Kaskajuari eguerdian. Gaztetxoetako bat Kaskajoz moztortzen da eta jaiak berotzen hasten dira eguerditik.



2020ko Ferixa Nagusiko Jaixak bertan behera

Arduraz jokatu eta elkar zain dezagun!

Jai Batzordea





Bederatzi kale izango dituen igerileku handiaren putzua. O.E.

Lehengo biak bestekoa da igerileku handi berria

Igerilekuetako putzuak eginda eta gune hezeko aldagelen eta dutxen paretak eraikita daude. Paraleloan, kantxa berdeko sabaia, leihoak, harmailak eta aldagelak berritzen ari dira, gune hori prest egon dadin ikasturte berria hasten denerako

Oihana Elortza OÑATI

Aurrera doaz Zubikoa kiroldegia eraberritzeko lanak, eta orain arte egindakoaren adibide dira igerileku berriak. Putzuak eginda daude eta garbi ikusten da izango duten tamaina eta koka-

pena, ez dira-eta lehengo toki berean egongo: igerileku handia trabes egongo da, Santa Ana aldetik Bidebarrieta aldera. Lehen bi igerilekuek hartzen zuten espazio bera hartuko du gero igerileku handiak. Txikia,

berriz, berdegunea zegoen tokian egin dute. Laster bete egingo dituzte putzu horiek urez, filtraziorik dagoen edo ez ikusteko. "Estrukturari dagozkion lanak eginda daude putzuetan, bai, irisgarritasun maldak bar-

ne. Gero, inguruko gunea txukuntzen hasiko dira; azulejoak jartzen, adibidez", dio obraren jarraipena egiten ari den Xabier Igartua zinegotziak.

Igerilekuen sabaiak ere hartu du itxura. Eraikin zaharraren teilatua aprobetxatu egin dute, eraberrituta, eta horri eraikin berriarena elkartuko zaio.

Igerilekuetako aldagelak eta dutxak egongo diren espazioetako paretak ere egin dituzte dagoeneko. Igerilekuen parean, maila berean egongo dira, lehen solairuan. Hara igotzeko eskailerak eta igogailua egongo den tokia ere ikus daitezke. Gero, harmailak ere egongo dira gune heze horretan, baina horiek egiten ez dira hasi oraindik.

Denboraldi berrirako, prest

Gune hezeko obrekin batera, kantxa berdearen ingurukoak ari dira egiten orain. Kantxa berdeko teilatua berritzen ari dira. Harmailetak eserlekuak kenduta dituzte, berriak jartzeko. Leihoak berriak jarriko dituzte eta geroko aldagelak beste batzuk izango dira. Apurtuta daude erabat, paretetako azulejo zaharrak ikus daitezke bakanrik. Aldagela berriak egongo dira gero hor.

Lanak aldi berean, paraleloan, egiten ari dira, baina erritmoari begira bi epemuga dituzte buruan: "Gune hezea, igerilekuak, urte amaierarako bukatzea da asmoa. Baina kantxa berdeko

guneok, ordea, irailerako lan handienak eginda izatea gurako genuke, ikastetxeek ikasturte berria hasten dutenean lanek ahalik eta gutxien eragiteko. Baita herriko kirol taldeek erabiltzeko moduan egon dadin hurrengo denboraldia hasten denerako", dio Igartuak.

Zabalik dago Zubikoa

Konfinamenduaren egunetan, obrak geldi egon ziren egun batzuetan; alarma egoeran, erakuntza enpresak itxita egon ziren tartean. Horren ondorioz, materialaren hornikuntzan ere gabeziak igarri dituzte, baina berriz ere martxa hartu dutela dio Igartuak: "Planifikazioa berrigintza gabilta orain, ikusteko honek zenbateko eragina izango duen urte bukaerara arte. Egia da ikastetxeak eta kirol jardura etenda egoteak lagundu duela lan batzuk azkarrago egiten".

Bitartean, gainerako eremuak, kantxa urdina, pilotalekua eta tenis pistak, esaterako, erabilgarri daude aurreko astetik, eta aktibitatea itzultzen ari da poliki-poliki. Kirol espazio horiek erabiltzeko neurriak hartu behar dira, eta edukiera errespetatu.

IKASTETXEAK ITXITA ETA KIROL JARDUNA ETENDA EGOTEAK LAGUNDU DUTE LAN BATZUK AZKARTZEN



J.A.U.

Sandaili egunetik bueltan

Goiena komunitatea / Jose Angel Urquia / ONATI

Domekan da Sandaili eguna; San Juan ondorengo domekan izaten da, eta ez San Elias (uztailak 20) egunean. Lehen, hantxe prestatzen eta egiten zuten bazkari eder bat; gaztanbera izaten zen postrea.

Ondoren, parranda: txisteak, bertsoak eta erromeria Maiñazubittan. Argazkikoak dira, ezkerretik eskumara: Lurgorritako Pedro Elorza, Etxetxoko Dionisio Erostarbe, Errekatzikiñeko Tomas Uriarte, Errementeriko Basilio Goitia eta Untzeteko Klaudio Goitia, 1960 inguruan.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Intsektuen eskolako Tximeleta Gela

Gure herrietan intsektuentzako eskolak daude, eta gure herrietako intsektu gehienak doaz eskolara: marigorringoak, inurriak, tximeletak, sorgin-orratzak, eta abar. Intsektu guztiak ezberdinak dira: handiak, txikiak, koloretsuak, ilunak, eskolara kantuan edo nagikeriak jota doazenak. Gipuzkoan dagoen herri bateko eskolan Tximeleta Gela dago. Bertara doazen tximeletek berezitasun bat daukate, ezin dutela beste tximeleten moduan hegan egin. Gehienetan, tximeleta hauek "hegan egin ezin duten tximeleten eskola"-ra joan ohi dira, intsektuen eskoletatik urrun. Hegan ezin duten tximeletak beste intsektuekin egon nahi zutela ohartu ziren Luis Ezeiza eskolan, eta haienezako gela bat egokitzea erabaki zuten, Arrasate institutuan ondoren. Zenbat momentu bizi izan dituzten Tximeleta Gelan beste intsektu guztiekin batera: ikasten, jolasean, korrika, kantuan, bazkaltzen, lotan, dantzan... beraien modura hegan egiten! Ezgaitasun handia duten haurrei, haurrak diren heinean, haurrekin egotea dagokie. Lehenengo behar bereziak modu egokian beteko dituzten eskola inklusiboetan, haur guztiak batera etorkizuneko gizartea eratzen.



Joan den uztailean surf egitera egindako irteeran ateratako argazkia. OÑATIKO GAZTELEKUA

Kanpoko ekintzek dute lehentasuna gaztelekuan

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udan ere kanpoko ekintzak lehenetsiko dituzte gaztelekuan. Talde irekiak sortzea izaten dute gustuko, baina aurtengo uztaileko egitarauan talde txikietan eta lagunartean egiteko planak ari dira jasotzen

Oihana Elortza OÑATI

Uztailaren hasieran hasiko dute udako sasoiak gaztelekuan, eta aurtun, kanpoko ekintzei eman go diete lehentasuna, inoiz baino gehiago. "Normalean, horrela egiten dugu, ahalik eta ekintza gehienak kanpoan egiten ditugu uztailean. Baina aurtun, egoera nola dagoen ikusita, inoiz baino gehiago lehenetsiko ditugu aukera horiek", dio Gazteria teknikari Jon Lopezek.

Gazteekin adostu dituzte

Gaztelekua itxita egon arren, gazteekin eurekin egin dituzte bilerak hezitzaileek, uztailean egingo dituzten irteerak zehazteko eta prestatzeko. Jaurlaritzaren dekretua oinarri hartuta protokoloa ere landu dute gaztelekuko zerbitzua eskaintzeko, aldaketak egon daitezkeela jakin arren. "Gazteek zein hezitzaileok kanpora ateratzeko gogoia izaten dugu udan. Aurtengo egoerak, gainera, edukierak eta segurtasun neurriek, horretara bidera-

tzen gaitu eta ikuspegi horrekin arituko gara", dio Julen Korkostegik, Oñatiko gaztelekuko hezitzaileetako batek.

Korkostegik gaineratu duen moduan, gaztelekua zabalik egoten da gura duena joateko, eta talde irekiak sortzen dira beti ekintza bat edo beste egiteko. Aurtun, baina, saihestu egingo dituzte aurreko urteetan egin izan dituzten ekintza handiak, jende askori zuzendutako ekintzak: "Ikusita egoera zein den, planteamendua ezberdina izan da. Ikusten ditugun lagun talde ezberdinak hartu ditugu eta eurekin zehaztu ditugu planak. Urte berezia da hau, eta, salbuespen moduan, horrela ari gara lan egiten".

SURFA EGITEA, PAINTBALLA, GAMARRA ETA MENDI IRTEERA DIRA PROPOSAMEN BATZUK

Lagun talde batzuekin, adibidez, adostuta dute zein irteera egin. "Kuboko gaztetxo batzuek, esaterako, Gamarrara joateko gogoia dute. Topalekukoek, berriz, talde batek surfa egiteko asmoa azaldu du, eta gau bat kanpoan pasatzekoa. Beste talde batek, berriz, mendi buelta bat egitea proposatu du", aurreratu du Korkostegik.

Zerbitzua zabalik egongo da

Irteerak egiten dituzten egunetan itxita egongo da gaztelekua, baina zerbitzua uztailearen hasieratik egongo da zabalik, %60ko edukiera mugarekin, Kuboan zein Topalekuan.

Bestalde, aste hauetan argiteria aldatzeko lanak egin dituzte gaztelekuan. "Sotoko eta Topalekuko argiteria aldatu dute, eta bulegokoak aldatzea faltako da. Horrez gain, asmoa da sarrera, komunak eta goiko bulegoak zuriz margotzea, argitasuna emateko egoitzari", azaldu du udal teknikariak.

"Oñatin hostopilezko gozoak eta pastak saldu ditut gehien"

LUIS CALVO AZOKAKO PASTA SALTZAILEA

Bihar dator azkenekoz azokara; erretiroa hartuko du

O.E. OÑAI

1972an hasi zen lantegian lanean. Dendarik denda hasi zen gero gozoak saltzen, eta azken 34 urteetan azokaz azoka ibili da gauza bera egiten. Oñatira hemeretzi urtean etorri da.

Hemeretzi urtez jarraian etorri zara Oñatira. Zer moduzko azoka da hemengo?

Ona. Gorabeherak egoten dira, baina azoka ona da, bai, ondo saldu izan dut.

Zer saldu duzu gehien?

Hostopilezko gozoak eta kafearekin hartzeko pastak. Opilak ere bai.

Harremanak ere egin dituzu beste saltzaileekin eta bezeroekin?

Bai, bai. Bezero asko, %80 edo, asterokoak ziren. Urte hauetan konfiantza sortu da gure artean. Inoiz gertatu izan zaio bati baino gehiagori pastak ordaintzeko adina diru ez izatea, baina eraman dituzte pastak etxera eta hurrengo astean ordaindu dizkidate. Azokako beste saltzaileekin ere harreman ona egin dut, bai.

Beste zein herritako azoketara joan zara astero?

Astelehenetan, Lazkaokora; martitzenetan, Villabonakora; eguaz-



Luis Calvo Hernandez. L.C.

tenetan, Ordiziakora; egubakoitzetan, Legazpira; zapatuetan, Oñatira; eta domeketan, Oreretako auzo batera. Eguenetan bakarrik hartzen nuen atsedena. **Errepideak ere ondo ezagutuko dituzu, ezta?**

Furgoneta bakarrik joaten dela esan daiteke. Zorionez, ez dut istripurik izan inoiz.

Erretiroa hartzea erabaki duzu orain. Beste fase bat hastera zoaz.

Beste urtebetez lanean jarraitzea zen nire asmoa, baina egoera ez da txantxetarakoa, zaindu egin behar dugu.



O.E.

Ohiko tokira bueltatu da azoka

Berdura plazan, betiko tokian, hasi dira berriz egiten zapatuetako janari azoka. Postuak, baina, ez daude ohiko tokietan, aldaketak egin dituzte-eta eskatutako distantziak betetzeko. Hala, fruta saltzaileek parrokiaren ondoan jarriko dituzte euren postuak, landare saltzaileek azoka kanpoan eta gainerakoak barruan egongo dira.

"Nahiko ondo hasi dugu bainu denboraldia"

XABIER GURUTZ SAN JOSE USAKOKO SOROSLEA

Aste honetan ireki dira kanpoko igerileku, ur-parke eta bestelako bainurako tokiak. Usakon, astelehenean hasi zuten bainu denboraldia, baina neurri bereziak hartuta

Maialen Santos OÑATI

Xabier Gurutz San Jose astelehenez gerotzik ari da Usakon, sorosle. Beste sorosle bat eta zaintzaile bat izango ditu lagun udan, segurtasuna eta neurriak mantendu daitezzen.

Nolakoak izan dira lehen egunak?

Nahiko ondo hasi garela esango nuke. Goiko aldean –zelaia– egoten den jendeak harritu gaitu gehien; ikusi dugu nahiko ondo errespetatzen direla arauak. Putzuan zailagoa da neurriak betetzea; jende gehiago pilatzen delako eta azkar betetzen delako ingurua. Halere, guk badihardugu gomendioak eta abisuek ematen.

Nola antolatzen zarete?

Aurten, bi sorosle eta zaintzaile bat arituko gara Usakon. Sorosleetako bat 15:00etan etortzen da eta bestea, 16:00etan. Zaintzailea, ostera, goiko zelaian egoten da, gune hori kontrolpean izatea baita bere zeregina. 21:00ak arte izaten gara lanean.

Zeintzuk dira bete beharreko arauak?

Arau logikoak dira, eta, normalean, jendeak, badakizki. Pertsonen artean gutxienezko metro eta erdiko distantzia utzi behar da, eta toaletan kuadrilla handietan ez egoteko eskatzen dugu. Txakurrek lotuta egon behar dute, bestalde, eta bizikletak



Xabier Gurutz San Jose, Usakoko lan-jarduna egiten ari dela. X.G.

"GOIKO ZELAIAN PUTZUAN BAINO HOBETO BETETZEN DIRA SEGURTASUN NEURRIAK"

kanpoan utzi behar dira lotuta. Azkenik, surik ezin da egin.

Zerbait gertatuz gero, nola jokatu behar duzue?

Zerbait larria gertatuz gero, uretara sartu beharko dugu, jakina. Norbaitek zauriren bat

egiten badu, maskara eta esku-larruak jarrita artatuko dugu. Materiala badaukagu, eta posible den guztietan distantziak mantentzen saiatuko gara gu ere. Bide batez, bainulariei eskatzen diegu gugandik ere metro eta erdira egon daitezela.

Formakuntzarik jaso duzue?

Bilera bat egin genuen Udaleko ordezkariekin eta Egoitek-eko arduradunekin. Prebentzio neurriak zeintzuk diren azaldu zizkiguten, eta baita nola jokatu behar dugun ere. Edozein zalan-tza dugula, badakigu nora jo.

Eguaztenean izango da 'Baldin bada' familientzako ikuskizuna

Lazarragan eskainiko dute kontzertua, gaur, Ganbarak eta Hotsek. Aire libreko zinema eguenean izango da

M.S. OÑATI

Udalak udara begira antolatutako *ESKU-LTU-RA Kultura Eskura* programaren baitan, *Baldin bada* familientzako ikuskizuna antolatuko dute. Shakti Olaizolaren eskutik, uztailearen lein, datorren eguaztenean, egingo dute akrobazia emanaldia, eta Olaiturrin izango da, 19:00etan.

Ganbara eta Hots, gaur

ESKU-LTU-RA-ren barruan, baita ere, kontzertua eskainiko dute gaur Ganbara eta Hots abesbatzek. 22:00etan hasita arituko dira, Lazarragako lorategian, eta *Uraren doinuak* izenburua daraman emanaldia eskainiko dute bi abesbatzek elkarrekin. Kasu honetan ere, Lazarragako edukiera mugatu egingo dute, eta, horrenbestez, emanaldiaz gozatu gura duenak sarrerak aurrez eskuratu beharko ditu,

udal webgunearen bitartez edota Txokolateixan.

Zinema, eguenean

Uztailearen 2an, eguenean, bestalde, aire libreko zinema egongo da, plazako pilotalekuan, 22:30ean hasita. *La mujer de la montaña* filma eskainiko dute. Ekainaren 12an ziren eskaintzekoak film hori, baina eguraldi txarrarengatik uztaileara atzeratu behar izan zuten hitzordua. Aire libreko zinema izan arren, ikusleen edukiera mugatu egingo dute. Filma ikusi ahal izateko sarrerak aurrez eskuratu beharko dira Txokolateixan edota www.oñati.eus webgunean. Ekainaren 19an, *Black is beltza* filma eskaini zuten aire libreko zinemaren. Gauzak horrela, uda honetan modu horretan eskainiko duten bigarren filma izango da honako hau.

Amorante eta Trigger arituko dira gaur Antixeneko oholtzan

Antixeneko gaztetxearen udako egitarauaren baitan antolatuko dituzte kontzertuak. Hain zuzen, Amorante eta Trigger bakarlarriak arituko dira gaur, 20:00etan.

Biek ala biek "herrietatik, erroetatik eta erraetatik" sortutako musika eskainiko dute emanaldian, gaztetxetik azaldu dutenez, eta instrumentuek ere izango dute tokia kontzertuetan.

Amorantek adierazi du, gainera, aspaldian zuzenean eta jendarean eskainiko duen lehen kontzertua izango dela gaurkoa, eta "pozik" eta "gogotsu" azaldu da jendarean berriro jotzeko aukera izateagatik.

Eguraldiak lagunduz gero, Antixeneko parkean egingo dituzte emanaldiak, eta, euria egingo balu, barrura lekualdatuko lirarteke.

Sarrera doan izango da, baina, segurtasun neurriak betetzeko, edukiera mugatu egingo dute.

Usakon, zaborra lurtean botata

Bainu denboraldia hasteaz bat, debagoiendar ugari gerturatu da egunotan Usakora. Eguraldi onaren eraginez, jendez "lepo" egon da putzua, eta herritar batek salatu du jendeak zaborra bertan botata uzten duela: "Zabor poltsa ugari ikusten dira inguruetan. Mesedez, jendeak bota dezala zaborra zakarrontzira, edo, bestela, eraman dezala etxera".



Usako inguruan lurtean utzitako zabor poltsa bat.

Azkoagaingo entrenamenduak ere, protokoloari jarraiki

Azkoagaingo futbol zelaia erabilgarri egon arren, Aloña Mendiko Futbol Sailekoak ez dira bertan entrenatzen ari. Realeko harrobiko jokalariek debagoiendarrak ari dira futbol zelaia erabiltzen egun hauetan. Hala eta guztiz ere, ekainaren 30era libre utzi beharko dute.

Udan hainbat lan egingo dituzte Azkoagainen; horien artean,

esaterako, aldagelaren kaseta berria egingo dute. Bestalde, futbolariak denboraldi-aurrea noiz hasiko duten edota entrenamendu saioak aurrera nola eramango dituzten ez dakite oraindik, Javier Azpiazu Futbol Saileko presidentek azaldu duenez. Sail horretako lantalde bat dagoeneko horren inguruko "lanketa" egiten ari da, halere.

Azkenik, Futbol Eskolaren entrenamendu saioak Azkoagainen nola txertatu daitezkeen ere hasi dira dagoeneko lantzen.

IKA

- WEBSAILA -

Gaur egungo bizimoduaren arriskuak, sei kapitulotan



Ekainaren 26tik aurrera 'Ttap' aldizkarian ikusgai!

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu astero
zure mugikor edo tabletan

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n

Xabier Urzelai ARRASATE

Hainbat astez itzaroten egon eta gero, ofiziala da: alarma egoera ezarri aurretik, martxoaren 8ko sailkapenaren arabera, EBA kategoriako A multzoan lider zegoen MUK zilarrezko LEB mailarako txartela lortu du.

Ez da bide erraza izan, eta zalantzak egon dira tartean. Izan ere, A multzoan bi azpimultzo zeuden, eta azpimultzo horietako liderrak ziren Salamancako Aquimisa Carbajosa -A-A multzoa- eta Mondragon Unibertsitatea -A-B multzoa- egoera berean zeuden, eta, hasiera batean, bakarrarendako txartela.

Hala, Espainiako Federazioak errazena egin zuen, Iparreko federazioen esku utzi zuen erabakia, eta bueltan, hauek eskakizuna egin zioten Espainiakoa-ri, bi taldeek merezi zutela mailaz igotzea. Bada, bi aste geroago etorri da erabakia, eta bi talde horiek lortu dute Zilarrezko LEB mailarako txartela, eta baita beste hauek ere: NCS Alcobendas, Ibersol CB Tarragona, CAM Enrique Soler eta Hero Jairis.

Orain, bulegoetako lana dator

Behin albistea ofizial eginda, Ointxe!-ko zuzendaritza taldea lanean hasi da, eta erlojupean egin beharreko lana da, gainera, ekainaren 30a baino lehen eman behar dute-eta erantzuna. Egia da, baita ere, hainbat hartu-eman aurreratuta ditzutela, zuzendaritza taldeko kide Jose Mari Balzategik duela pare bat hilabete GOIENARI aurreratu moduan. Balzategik orduan aitortu zuen aukera guztiak ondo aztertu gura zituztela, baina ez dutela mailaz igotzearen burua galduko, ez dutela klubaren harrobia hipotekatuko. Eta Oihane Agirre Ointxe!-ko zuzendariak ere Balzategiren adierazpenak berretsi ditu: "Mailaz igotzea ez da erraza izango, badakigu Zilarrezko LEB mailara igotzeko baliabide gehiago behar ditugula, eta baldintzak ere asko zorroztan direla. Baina jokalariek kantxan egindako esfortzuari esker lortu dute mailaz igotzea,

"BAILARA OSOAREN LORPENA DA, PROIEKTUAK BAILARA IKUSPUNTUA DU"

J.M. BALZATEGI, ZUZENDARITZAKO KIDEA



Mondragon Unibertsitatea taldeko jokalariek, Euskal Kopa irabazi berriren. Hor hasi zen denboraldi borobila. OINTXE!

Morea zilarrezko bilakatu da

SASKIBALOIA MU EBA mailako multzoko liderra zen COVID-19ak sortutako geldialdia iritsi aurretik, eta asteen, Espainiako Federazioak mailaz igoko diren sei talderen arteko zerrendan sartu du; zuzendaritza hori gauzatzeko ahalegina egiten dabil

eta orain, zuzendaritzakooi dagokigu ahalegina egitea. Arrasateko Udalarekin hartu-emanetan gaude, baita Diputazioarekin, Kirolgirekin eta bestelako babesleekin ere, eta mailaz igotzea posible ote den ondo aztertu behar dugu".

Ez ditu baldintzak betetzen

Gaur-gaurkoz, Ointxe! klubak ez ditu Zilarrezko LEB mailara igotzeko baldintzak betetzen. Hasteko, jokalekutik, Iturripetik: "Kategoria horretako zoruek egurrezkoak behar dute, eta saskiek eta markagailuak ere

ezaugarri konkretuak izan behar dituzte. Hala, Arrasatek ez du baldintza horiek betetzen dituen kantxarrik, eta, bestalde, etxetik kanporako partiduak jokatzera joateko askoz ere urrunago joan beharko genuke. Horregatik diot ez dela erraza izango, baina aukera guztiak aztertzeke saiakera egin beharra dago".

"Bailara osoaren lorpena"

Zuzendaritzako kide Jose Mari Balzategik garbi du lorpen hau harrobiarekin egindako lanaren aitortza dela: "Lehenago ere kluba egon izan da maila oso

altuan, esaterako, profesionalistotik oso gertu zegoen orduko EBA kategorian jokatu genuenean. Baina taldeak orain lortu duenak sekulako balioa du, eta uste dut ez dela Arrasate bakarrrik mugatu behar, Debagoieneko ikuspuntutik baloratu behar dela lorpen hau, eta zorion mezua bailara osora zabaldu behar dugu".

Hala, Balzategik uste du erronka ez dela bakarrik Ointxe!-rena edo Arrasateko herriarena izan behar: "Egun, bailara mailako proiektua da Ointxe! Noski, Arrasateko Udalarik babesa es-

"ETXEKO PARTIDUETAN BEREZIKI OSO MAILA ONEAN IBILI DIRA"

GORKA ZURUTUZA, KIROL ZUZENDARI OHIA

"GUK DUELA URTE BATZUK EZETZ ESAN GENUEN, OSO GARESTIA ZELAKO"

JON BASURKO, ZUZENDARI OHIA

katu behar diogu, baina gurako nuke beste udalak ere proiektura batzea. Eta Gipuzkoa mailan ere Diputazioaren eta Kirolgiren bultzada behar dugu".

"Harrobiko lanaren emaitza"

Iñaki Ogara entrenatzaileak, berriz, harrobien jarri du fokua: "Ez da talde konkretu baten lorpena izan, klub osoaren lorpena izan da. Ointxe!-n nortasun berezi batekin jarraitzen dugu saskibaloia, bizitza filosofia baten modura, eta hori kantxan islatu egiten da. Hala, gure lehenengo taldea harrobiaren isla da, eta pozik gaude bereziki ikusi dugulako aurtengo zale asko gerturatu dela Iturripera; hori da benetako saria".

"Ohorea da Arrasaterendako"

Arrasateko Kirol zinegotzi Ander Garayk, berriz, "ohore" berba erabili du lortutakoak eragiten duen sententzia definitzeko: "Arrasatekoa moduko talde batek, Arrasateko jokalariekin, saskibaloiko hirugarren mailara salto egin ahal izatea pozteko moduko kontua da. Hala, herriaren izena Euskal Herritik harago, estatu mailan ere zabaltea dakar". Udalak saskibaloia klubari eskaini diezaiokien babesaren gainean ere jardun du Garayk: "Duela hilabete eta erdi inguru hasi ginen Ointxe!-rekin hartu-emanetan; izan ere, bagenekien egoera honetara iritsi gintezkeela, eta lanak aurreratzen hasi ginen. Batetik, egia da egoera gogorra bizitzen ari garela, baina gu klubaren ondoan gaude. Kategoria horretan jokatzeko zorrotasun maila handia dakar, salto oso handia dago maila batetik bestera eta neurri oso zorrotzak eskatzen dituzte. Baina, aurreratutako moduan, gure baliabideen barruan laguntzeko prest gaude, beste kantxa batzuk erabiltzeko ze aukera dagoen... Diputazioari laguntza batera eskatzeko... Gu prest gaude".

"Ondo jokatuta, gainera"

Urte askoan izan da Gorka Zurutuza Ointxe!-ko kirol zuzenda-

"MAILA OSO ONEKO SASKIBALOIAZ GOZATU AHAL IZANGO DUGU HERRIAN"

IRENE MURUA, HARROBIKO JOKALARIA

ri, eta irailatik dabil taldearen jokoarekin gozaten: "Euskal Kopa bigarren urtez irabazi zuten irailan, eta hor hasi zen dena. Urte oso ona izan da, bereziki etxean, eta emaitza onak lortzearekin batera kantxan ondo jokatu dute, Iturripera gerturatu garenok gozatu ederra hartu dugu. Zorionak denei, ea datorren urtean ametsak jarraitzerik duen".

"Igo, baldintza egokietan"

Ointxe!-ko presidente ohi Jon Basurkok zorion mezua bidaliz hasi du berriketaldia: "Orain, zuzendaritzaren txanda da. Erronka oso polita da, eta izan daiteke urtebeteko esperientzia moduan, edo proiektua bertan egokitze helburuaz, baina horrek oinarriak indartzea ekarri beharko luke, bailara osoaren bultzada behar da. Izan ere, jakinekua da mailaz igotzeko ze esfortzu egin beharko duten denek. Baina igotzekotan baldintza egokietan izan beharko litzateke, elkarteko kide guztiendako oinaze eta sufrimenduz betetako urte ez bilakatzeko".

Hala, gogoeta batekin amaitu du: "Ointxe!-k badu altxor bat,

urte askotako lanaren ondoren sortutako harrobia. Baina karteekin osatzen den gaztelua modukoa da, kosta egiten da erakitzea, eta gutxi behar da dena botatzeko. Horregatik ibili behar da kontuz. Baina, beste aldetik, edozein elkartek bizirauteko proiektu berriak behar ditu, ilusio berriak, suspergarriak izango direnak. Horrenbestez, zuzendaritzak hartzen duen erabakiaren aurrean nire babes osoa izango dute".

"Erreferente dira gazteendako"

Irene Murua jokalaria da Ointxe!-ko harrobiko harribitxieta-ko bat, eta datorren denboraldian AEBetatik jarraituko du klub zuri-morea, abuztuan abiatuko da eta Louisiana Tech taldean jokatzera: "Lehenengoz jokalaria eta kluba bera zoriondu nahiko nituzke, oso albiste pozgarria jaso dugulako. Uste dut Arrasate moduko herri batendako oso garrantzitsua dela etxeko taldea halako maila batean jokatzeko ikustea, eta, bereziki, maila oso oneko saskibaloiaz gozatu ahal izango dugulako bertan. Harrobian egiten dabiltzan lan onaren isla da hau".

"Lorpena sekulakoa da, eta kantxan lortu dute, ez bulegoetan"

OIHANE AGIRRE OINTXE!-KO PRESIDENTEA

Iritsi da Espainiako Federazioaren partetik albistea, Zilarrezko LEB mailara igo zarete. Zelan hartu duzue berria?


Sekulako poztasunarekin. Berri horren zain geunden eta iritsi da.

Eta kantxan lortutakoa izan da, multzoko lehenengo postuan zegoen MU.

Hori da, lorpena sekulakoa da eta talde osoarena da, jende asko dago horren atzean. Eta lorpenak meritu galanta du kantxan lortutakoa delako, eta ez bulegoetan.

Datorren denboraldira begira bloke horrekin jarraitzeko asmoa duzue?

Bai; zuzendaritzatik datorren denboraldira begira talde osoarekin kontaktzen dugu. Jokalari horiek klubeko harrobikoendako erreferente



OIHANE AGIRRE

dira, oso maila ona erakutsi dute aurrean, eta eurekin jarraitu gurako genuke.

Mailaz igotzea, baina, ez da erraza izango.

Ez, kategoriaz igotzeak aldaketa asko ekarriko litzukeelako, aurrekontu handiagoa behar da. Baina jokalariek kantxan egindako lanak eskatzen du gure partetik ere ahalegina egitea, eta aukera guztiak ondo aztertzea.

"Kontrarioak makurrarazi behar ditugu finalean"

NAGORE ETA LEIRE GALEANO PILOTARIAK

PILOTA Domekan, Emakume Master Cup-eko finala jokatuko du bikote antzuolarrak, Irunen. Adinez askoz nagusiagoak diren kontrarioak izango dituzte aurrean

M.B / X.U ARRASATE

Bigarren urtez jarraian Debagoienerako finalistak izango ditu Emakume Master Cup-ek, pilota goxoen kategorian. Iaz Oñatiko pilotari Uxue Osese eta Maddalen Etxegaraik egindako bidea errepikatze puntuan daude Antzuolako Galeano ahizpak. Izan ere, txapelketaren eskaileran behe-behetik hasi behar izan zuten antzuolarrek, eta sei kanporaketa gaindituta dagoeneko finalera iritsi dira. Hala, domekan, Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendi izango dituzte aurrean, adinez askoz nagusiagoak diren pilotariak.

Domekako finalerako gertu?

Leire Galeano: Bai. Zorionez, ez gara urduri jartzeokak; nahiz eta gazteak garen, hori dugu gure alde. Seguru aita gu baino urduriago egongo dela.

Errekuperatu zarete finalerdian hartutako jipioitik?

Nagore Galeano: Bai, ondo gaude. Egia da Elgoibarko partidua oso berdindua izan zela, berdinketa mordoa izan ziren eta kostata irabazi genuen, baina errekerperatu gara, bai.

Dagoeneko jakingo duzue domekan zelan jokatu, ala?

LG: Bai. Kontrario zailak dira, bizi jokatzen dute eta pilota ondo mugitzen dute batera eta bestera. Duten adinarekin guk baino esperientzia handiagoa dute. Ahal duguna egitera joango gara. **NG:** Elgoibarren jokatutako finalerdian begira ibili ginen kontrarioek zelan jokatzen zuten, bideo batzuk ere ikusi ditugu eta dagoeneko badakigu zelan jokatu behar dugun, bai.

Eta, ezer aurreratzetik?

46 eta 36 urte dituzte, aurrelariak pilota ondo dominatzen du eta atzelariak indarra du, erraz bidaltzen du pilota atzera. Horren aurrean, eurak nekatzera joan behar dugu, korrika egin dezatela. Behetik jokatuta, makur-



Leire eta nagore Galeano. M.BIKUNA

tzeko guk baino zailtasun handiagoak izango dituzte, eta, horrenbestez, makurrarazi egin behar ditugu.

Aita da zuen entrenatzailea; etxean pilota sarritan izango duzue berbagai, ala?

Aita da euren entrenatzailea

Jose Mari Galeanok entrenatzaile lanak egiten ditu alabekin: "Biak oso erregularak dira, euren tantoa egitea zaila da, denak jasotzen dituztelako, eta hori ikusita kontrarioak ernegatu egiten dira. Eta gero, arriskatzeko dutenean tantoa amaitzen dakite".

Galeanok aitortzen du pilotari zenean baino gehiago sufritzen duela orain: "Alabekin urduri ibiltzen naiz. Frontoian gozaten ikusi gura ditut, ondo pasa dezatela, eta, ahal bada, partidua irabazita".

LG: Bai, egiten dugu pilotaz berrera, bereziki partiduen atarian. Baina ez pentsa egun osoan pilotaz jarduten ibiltzen garenik. Bestalde, aita entrenatzailea izatea atsegin dut, gure alde egiten du horrek. Gauzak zelan zuzendu esaten digu, baina frontoian ez da aita, entrenatzailea da.

Bestalde, ahizpak zarete eta, aldi berean, frontoian bikote; zelan daramazue hori?

LG: Ondo; gure artean konfiantza dugu eta gehiago soltatzeko gara. Etxean, tarteka, haserretu egiten gara, baina pilotalekuan ondo moldatzen gara.

Leire, gainera, futbolearen ere jokatzen duzu.

LG: Bai; oraingoz, biak egiteko aukera daukat eta gustura nabil. Futbola gehiago da talde kirola, eta pilotan, batzuetan, bakarrik jarduten dugu. Baina bietako bat aukeratu beharko banu, pilotarekin geratuko nintzateke.

Nagore, zein duzu erreferente?

NG: Aitor Mendizabal. Pena da, duela gutxi amaitu duelako Asperekin zuen kontratua, baina gure herrikidea da eta haren ibilbidea jarraitu dugu.

Erromeria taldeek hutsik dituzte udako agendak

Egoera berezi honetan izaten diren baldintzak betetzea ezinezkoa da oinarrian dantza egitea helburu duen ekitaldi batean. Dantza egiteak dakar ondokoari heltzea, eta, hori ezin denez egin, erromeria taldeek ez dute ekitaldirik aurreikusita

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Elkarren ondoan dantza egitea, eskutik oratuta, elkarri lotuta edo borobilean; eta baita bakar-bakarka, nola ez. Horiek izaten dira erromeria giroan dantza egiteko moduak. Lagun artean jaiatzeko gozatu eta ondo pasatzeko modua. Erromeriak, baina, kinka larrian daude. Izan ere, egoera berezi honetan, bata bestearekiko distantzia errespetatu behar den honetan, zaila da elkarrekin dantza egitea. Eta elkarren ondoan dantza egiteko ez bada, zertarako egin erromeria?

Debagoienean dauden erromeria giroko musikariek izan da GOIENA, euren egoera zein den jakiteko.

Garilak 26 taldea, geld

Aurtengo udako agenda hutsik dute erromeria talde gehienek. Hori bera azaldu du Garila 26 taldean trikiti jotzen duen Maddi Elortza bergararrak: "Gaur egungo osasun egoeran dauden baldintzak betetzea oso zaila da; hala, kontzertu barik igaroko dugu uda".

Emanaldiak beste modu batera egitea aukera bat izan daitekeen galdetuta, dio "xarma galdu" egingo litzatekeela. Horrez gain, beste talde batzuek *streaming* bidez kontzertuak eskaini



Garila 26 taldea, 2019ko Trianako jaietan. GOIENA

izan dituzte arren, Elortzak dio ez dela euren kasua izan. Aurtengo udan ezinezkoa izango da, horrenbestez, Garilak 26 taldeaz gozatzea.

Kepa Urteaga, trikitiarekin

Arrasaten bizi da Kepa Urteaga trikitalaria. Zumarragako trikiti taldeko kide da. Nabarmendu behar da 100 urte bete dituen taldea dela: 1920an hasi zen trikiti jotzen Joxe Oria, Keparen amamaren anaia. Hori horrela, Euskal Herriko trikiti talde zaharrena da Zumarragakoa.

Hala, egoerak eurei ere eragin die: "Ez dugu erromeriarik aurreikusita; urteroko hitzorduak bertan behera geratu dira".

"Erromeriak dira jendeak dantza egiteko, elkarrekin. Ikuskitzen moduan zail ikusten dut erromeria bat"; hori uste du Urteagak. Uda pasa arte ez dute hitzordurik; eta udazkenean zerbait egingo duten edo ez ezin jakin oraindik.

100 urteko ibilbidea duen taldea izanda, publiko fidela dutela gaineratu du Urteagak: "Bai, publiko fidela dugu eta ikusi

dugu horrelako egoera baten ere deitu egin digutela erromeriarik ezin izango dela egin azaltzeko". Kasu batzuetan, hurrengo urterako luzatu dute hitzordua. Urtero leku berdintsuetan jotzen dutela gaineratu du musikariak.

Urteaga bera azkeneko 25 urteetan dabil oholatza gainean; aita ere bada taldeko kide. 81 urte ditu Migelek eta 13 urterekin hasi zen panderoa jotzen

Maiatza, ekaina eta uztaila bitartean aste bukaera guztiak beteta izango litzateke ohiko egoera batean. "Asteazkenean zehar ere jotzen dugu, herrietako jaien arabera", dio. Hitzordu guztien artean baditu hiru kuttunenak direnak: "Zumarragako santia-sabelak, Bergarako sanmartzialak eta Urretxuko sanjuanak". Bergarako San Martzial erromerian urtero izaten dira: "Jende asko egoten da eta jendea animatzen da dantza egitera".

Aurtengo egoera berezia alde batera utzita, Urteagak dio erromerien erronka dela jendea dantza egitera animatzea, "gero eta gutxiago" egiten da eta.

Gauargi ere, ekitaldi gabe

Gauargi taldeko Amaia Txintxurreta abeslaria dio saio guztiak bertan behera geratu zaizkiela. Txintxurretak, arrazoi pertsonalak tarteko, iazko ekainean aldi baterako utzi zuen taldea: "Asmoa nuen aurtengo saio batzuk egiteko, bailarako saioak, ingurukoak".

Egoerak behartuta saio guztiak bertan behera geratu direla dio, eta herri batzuetan udazkenean egiteko asmoa azaldu duten arren, "dena airean" dagoela. Hau da, urtea "hankaz gora" jarri zaiela.

"Emanaldi akustikoak egiten dituztenek edo saio intimoagoak

egiten dituztenek badute aukera zerbait egiteko, baina Gauargi moduko talde batendako ez dira baldintza egokiak ematen", azaldu du Txintxurretak, eta gaineratu: "Dantza egiten dugu, eskuetatik heldu, gurekin batera koreografiak egiten dituzte... Hotaz, oso zail ikusten dut bizi dugun egoera honetan hori guztia egitea".

Gaineratu du jendea jaiak antolatzeke gogoz dagoela: "Ekainean genituen saioetarako, adibidez, azkeneko momentura arte itxaron dute saioak bertan behera geratuko zirela esateko; eta, konfinamenduan bertan ere, zenbait udaletatik deitu digute aurrekontua eskatzeko". Jendeak ilusioa eta gogoia baduela jaiak antolatzeke gehitu du.

Ohiko egoera batean jo eta su ibiliko litzateke Gauargi taldea emanaldiak eskaintzen: "Aratusteetan egin genuen Oñatin saioa; baina, harrezkero, ez dugu ezer egin. Maiatzean ikastetxeetako jaiak izaten ditugu, eta ondoren, herrietako jaiak hasten dira. Uda bete izaten da gurean". Asteburu guztietan izango litzateke emanaldiak egoera berezi honegatik ez balitz. Gertatzen ari denaren harira, zera dio: "Ikusten dugu terrazak jendez beteta daudela, baina antzokiak bete ahal izateko baldintzak zorrotzagoak direla dirudi".

Hortaz, egoera onartzea besterik ez zaie geratzen erromeria-zaleei.

UDA EKITALDIZ BETETA IZATEN DUTEN TALDEEK AURTEN EZ DUTE ERROMERARIK AURREIKUSITA



**HAUTESKUNDE
MAHAI-INGURUA**

GOIENA TELEBISTA
EKAINAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN

goiena
20 URTE ZUEKIN





The Bo Derek's hirukoteak uztailaren 10ean egingo du kontzertua Espoioian. GAZTELUPEKO HOTSAK

Eskaintza "eklektikoa" aurtengo Berumugan

Uztailaren 3an hasita lau kontzertu izango dira Espoioian, egubakoitzetan, 22:00etan; aurreko aldietan moduan, jatorri eta musika estilo ezberdinetako artistak gonbidatu dituzte Udalak Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxearekin batera antolatzen duen ziklor

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

"Bergarako Udala ausart portatu da, eta asko eskertzen dugu Berumugarekin aurrera egitea", dio Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxeko Ubane Uzinek, eta hala aurkeztu du aurtengo eskaintza: "Aurrekontua murriztagoa da, baina egitarau interesgarria eta eklektikoa osatu dugu; boogalooa, latindarra, funka, soula, rock-and-rola... entzungo ditugu Espoioian; Euskal Herrian lehenekoz izango dira talde gehienak. Atzerriko taldeak gonbidatu izan ditugu; aurten, gertuagokoak dira, baina goi mailakoak".

Gorantz doan artista

Musika independentearen sarien bueltan ezagutu zuten Gaztelupeko Hotsak-ekoek Tito Ramirez. "Oso azkar ari da gorako bidea egiten, eta orain gonbidatzen ez badugu, aurrerago zaila izango da gurera ekartzea. Zazpikote formatuan datoz, bost musikari eta bi abeslari; oso dantzarriak eta ikusgarriak dira".

Egitaraua

Espoioian, 22:00etan, doan. Edukiera mugatu izango dute. Ikusleek eserita egon beharko dute, aurrez antolatzaileek jarritako eserleketan.

Uztailak 3

- **Tito Ramirez Combo**
Boogalooa, latindarra, soula.

Uztailak 10

- **The Bo Derek's**
Old school rock-and-rola.

Uztailak 17

- **Anaut-Trio Bravo**
Bluesa, funka, soula.

Uztailak 24

- **Mice-Miren Narbaiza Group** Kantagintza, pop-rocka.

Siniestro Total-eko baxu-jolea

Galiziako talde ezaguneko Oscar Avendañok duen musika proiektua da The Bo Derek's. "Lehen mailako musikaria bere B proiektuarekin dator. Hirukote dibertigarria da; rock-and-roll zaharra hitz ironikoekin abestuta. Ez dute askotan jotzen; galdu ezin neko aukera, beraz".

"Oholtzako artistak"

Hala aurkeztu ditu Uzinek hirugarren egubakoitzean izango diren Anaut madrildarrak. "Askotan ekarri ditugu Euskal Herrira, maitagarriak dira, oso zuzeneko onak dituzte. Formazio ezberdinetan jarduten dute, eta hirukote moduan datoz gurera".

"Euskal musika modernoa"

Miren Narbaizaren Mice proiektuak borobilduko du eskaintza. "Sorkuntza eta formetan asko arriskatzen du, eta horregatik da interesgarria eta ezberdina, eta alboan dituen hiru musikariak Euskal Herriko top-ak dira".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. **ARRIKUTZ**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz ONATIKO KOBAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. www.harremandenda.org
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea Dibutako Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LOPD 15/19/99 legeraren arabera, jeki hasieran ditugu zure datu pertsonalik Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bilaketa horien helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gertatzea. Eskubidea izango duzu datuaren sartzeak, hasi zuzentzeko edo zuzentzeko, hobide horietara idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzea: Ekainaren 30a

943 25 05 05  kluba@goiena.eus

  KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



ESKAINZA BEREZIA!!

Ekainetik abendurako bazkidetza: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!

URTEURRENA

Amparo Biziola Ormazabal

2019ko apirilaren 26an hil zen, 78 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainak 27, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Aurrez esker on, bertaratuko zareten guztoi. Oñatin, 2020ko ekainaren 26an.

OROIGARRIA

Javier Errasti Legazpia

2020ko ekainaren 22an hil zen, 57 urte zituela.



Beti izango zaitugu gogoan.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Eskoriatzan, 2020ko ekainaren 26an.

ESKER ONA

Javier Errasti Legazpia


2020ko ekainaren 22an hil zen, 57 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, tanatoriora etorri eta gurekin egon zareten guztoi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Aretxabaletan, 2020ko ekainaren 26an.

URTEURRENA



Alejandro Mugica Arregui

2019ko ekainaren 28an hil zen, 85 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 28, izango da, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Beti izango zara gurekin.

Elizkizunetara joango zareteno eskerririk asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2020ko ekainaren 26an.

OROIGARRIA



Milagros Muruamendiaraz Garitano

Pedro Ormazabal Aldairen alarguna

2020ko ekainaren 9an hil zen, Donostian, 94 urte zituela.



Ai, nire sorterriko erreka, neure zainetako odolean jarraitzen duen ibaia.

J. Sarrionandia

Etxekoak. Bergaran (Gaberixako Torria), 2020ko ekainaren 26an.

HILETA

M. Aranzazu Arzamendi Saez de Ibarra

-Goian bego-

2020ko apirilaren 18an hil zen, Donostian, 73 urte zituela.



Gurasoak: David (†) eta Dolores (†); anai-arrebak: M. Natividad eta Jesus Saez, Jesus, Txomin eta Marisabel Mujika, M. Estibaliz eta Zoran Juric, M. Jose eta Gabriel Sanchez, Miren eta Iñaki Ansoategi; ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.


Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue eta jakinarazten du hileta-elizkizuna, asteartean, ekainak 30ean, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parroki elizan egingo dela.

Arrasaten, 2020ko ekainaren 26an.

URTEURRENA

Ino Isasmendi Korta

2019ko ekainaren 29an hil zen.



Beti egongo zara gure bihotzetan.

Zure bilobak. Aretxabaletan, 2020ko ekainaren 26an.

OROIGARRIA



Juanti Iriarte Arenaza

2020ko ekainaren 20an hil zen, 72 urte zituela.



lonen lagunak.

Arrasaten, 2020ko ekainaren 26an.

HILETA



Teresa Olazabal Larreategi

2020ko ekainaren 25ean hil zen, 95 urte zituela.



Anai-arrebak: Natalia (Raimundo Etxebarriaren alarguna), Celia (Oscar Azkonagaren alarguna), Ilobak: Arantza Ruiz de Azua, eta Iñaki Etxebarria eta Laura Rubio. Zaintzailea: M. Luisa. Lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Bere oroimenez, azken agurreko hileta-elizkizuna, gaur, egubakoitza, 18:00etan, San Juan Bataiatzailearen parroki-elizan izango da.

Familiak Arrasate Tanatorioan hartuko zaituzte 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30era. Beilatokian eta elizan maskara ezinbestekoa da.

Etorriko zareteno, bihotzez eskerrak aurretik familiaren izenean. Arrasaten, 2020ko ekainaren 26an.

HILDAKOAK

- Blanka Mendialdua Elorza.** Aramaion, 10ean. 72 urte.
- Purificacion Pancorbo Morales.** Bergaran, 13an. 92 urte.
- Luis Ugarteburu Aranbarri.** Arrasaten, hilaren 14an. 59 urte.
- Isabel Gallastegi Azkarate.** Bergaran, ekainaren 14an.
- Juanti Iriarte Arenaza.** Arrasaten, ekainaren 20an. 72 urte.
- Rosario Fernandez Herbas.** Bergaran, 21ean. 90 urte.
- Maria Iñurrieta Egidon.** Arrasaten, hilaren 22an. 94 urte.
- Javier Errasti Legazpia.** Aretxabaletan, 22an. 57 urte.
- Jose Maria Murguzur Villar.** Oñatin, hilaren 23an. 85 urte.
- Emiliano Carmona Davila.** Arrasaten, hilaren 24an. 80 urte.
- M. Pilar Rubio del Toro.** Bergaran, hilaren 24an. 72 urte.
- Teresa Olazabal Larreategi.** Arrasaten, hilaren 25ean. 95 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- | | |
|--|---|
| <p>ARRASATE EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 26 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09</p> <p>Zapatua, 27 ETXEBERRIA: Zaruagale kalea / 38 / 943 77 16 30</p> <p>Domeka, 28 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15</p> <p>Astelehena, 29 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99</p> <p>Martitzena, 30 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26</p> <p>Eguzartena, 1 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39</p> <p>Eguena, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74</p> <p>BERGARA EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 26 URRITIKOETXEA: Orondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>Zapatua, 27 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p> <p>Domeka, 28 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p> <p>Astelehena, 29 OIARBI: San Antonio 5 / 943 76 11 05</p> <p>Martitzena, 30 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>Eguzartena, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Eguena, 2 URRITIKOETXEA: Orondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</p> <p>Egubakoitza, 26 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Zapatua, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Domeka, 28 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Astelehena, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Martitzena, 30 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Eguzartena, 1 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Eguena, 2 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> | <p>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2020 abuztuaren 31ra arte:</p> <p>RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09</p> <p>BERGARA GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2020 osoan:</p> <p>ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</p> <p>COF Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.</p> |
|--|---|

BABESLEA OROIORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotza aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta loguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2




3



4



5



6



7



1. San Martingo ikasleak agurtzen
Egubakoitzean bukatu zuten ikasturtea eta Urdin herriko kaleetan barrena ibili zen ikasleei uda ona opatzen eta herritarrek agurtzen.

2. Jolas parkeak, umez beteta
Normaltasun berria hastarekin, besteak beste, umeendako jolas parkeak zabaldu dituzte. Hori horrela, aurreko asteburuan txikienek gozatu ederra hartu zuten.

3. San Juan loreak
Oñatiko Lagun Lekun sanjuanetako lore-sortak egin zituzten. Irakasle baten laguntzarekin, sortak egin eta ohitura horren atzean dagoena ezagutu zuten.

4. Denboraldi bukaera
Ohorezko Erregional Mailako Bergarak Gorrara egindako irteerarekin bukatu zuen denboraldia aurreko zapatuan. Talde argazkia ere egin zuten.

5. Urrezko ezteiak
Jose Luis Arrizabalaga eta Basili Elorza aramaioarrek ezkondu zirela 50 urte bete dituzte. Familiakoen partetik, urte askoan horrela jarraitu dezatela. "Zorionak!".

6. 1970eko ekainaren 28an ezkondua
Miguel Moreno eta Mari Carmen Zubikarai bergararrek urrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak, familia osoaren partetik, eta urte askoan horrela jarraitu!".

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatuz Goienaren ordezkariak (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

7. 50 urte ezkondua
Pedro Aranburu eta Maria Angeles Etxezarreta oñatiarrak ospakizunetan daude. "Zorionak, bihotzez! Segi hala urte askoan. Ekainaren 27an ospatuko dugu elkarrekin".

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Manex Roa Gallastegi
Uztailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Ane Buquete Diaz de Gereñu
Uztailaren 1ean. Zorionak, Ane! Azkenean heldu da zure urtebetetzea! 9 urte jada... Nola pasatzen den denbora. Segi zaren bezalako izaten, asko maite zaitugu-eta! Muxu eta besarkada pila bat. Mua!



ARRASATE
Maider Barandiaran Garai
Ekainaren 30ean. Zorionak, printzesa! Bost urte dagoeneko. Neska handi eta zoragarria egiten ari zara gero! Espero dugu ezin hobeto ospatuko duzula zure eguna, ez duzu besterik merezi-eta! Muxu eta besarkada handi bat, maitasun askorekin, familia osoaren partetik.



BERGARA
Amaia Garmendia
Ekainaren 29an, 68 urte. Zorionak, amama! Familiako guztien eta, bereziki, Anderren partetik. Patxo handi bat!



BERGARA
Irati Eraso Lete
Ekainaren 27an, 4 urte. Zorion pila-pila, Maddiren, Iñakiren, Oierren eta Aratzen partetik. Patxo potolo eta besarkada handia, etxeko txikixarentzat.



OÑATI
Laizatz Altube
Ekainaren 27an, 7 urte. Zorionak, polit hori! Jarraitu zaren moduko 'saleroxa' izaten. Ikaragarri maite zaitugu. Muxu erraldoiak aitatxoren, amatxoren eta Lexuriren partetik.



ARRASATE
Pello Alzola eta Madalen Alzola
Ekainaren 27an, Zorionak, bikote! 6 eta 2 urteko! Ze handi in zarien! Ondo-ondo ospatu zuen egunian! Patxo erraldoi bat, danon partetik. ARETXABALETA



Ladislao Gonzalez
Ekainaren 27an, 75 urte. Kaixo, aitona! Urte hau zaila izaten ari bada ere, aurten ere zure urtebetetzea ospatzeko elkartuko gara. Zugan pentsatzen, zure janari gozoak burura etortzen zaizkigu. Prestatu belarriak eta janari gozo bat! Askok maite zaitugu.



ARETXABALETA
Ane Miren Zabala Ibarra
Ekainaren 27an, 39 urte. Zorionak, tia Ane! Oso ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu handi bat etxeko danen partetik. Bereziki seme-alaba Agate eta Kerman, eta iloba Inar.



ANTZUOLA
Maddi Lizarralde
Ekainaren 26an, 6 urte. Zorionak, Maddi! Muxu handi bat, polit hori! Egun polita pasatu, lagun eta familiariaren partetik!



OÑATI
Aratz Idigoras Lopez
Ekainaren 25ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Iritzi eta Iñarribe
Ekainaren 25ean, 2 urte. Zorionak etxeko bi txikixei... Atzo zalakuan, jada bi urte! Askok maite zaituztegu. Muxu potolo bat!



BERGARA
Unax Mujika Beistegi
Ekainaren 25ean, 8 urte. Zorionak, mutil handi! Oso ondo ospatu eguna eta jarraitu horrelako alai izaten. Patxo mordo bat Haizearen, aitatxoren eta amatxoren partetik.




ARRASATE
Abel Canales Arribas
Ekainaren 25an, 44 urte. Zorionak, Abel! Muxu handi bat familien guztien partetik, eta disfrutatut zure eguna.



OÑATI
Paul Montero San Vicente
Ekainaren 24an, 12 urte. Zorionak, Paul! Mila kilo zorion opa dizugu gaurko egunian! Mundiala zara! Patxo fuerte bat, etxeko guztien partetik!



OÑATI
Julen Orueta Diez
Ekainaren 23an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Muxu potolo-potolo bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Jon Maiztegi Urribesalgo
Ekainaren 22an, 4 urte. Zorionak, Jon! Tarta handi eta goxo batekin ospatuko ditugu zure lau urtiak. Muxuak, familiako danon partetik.



ARAMAIO
Jakes Valoria Garcia
Ekainaren 22an, 8 urte. Zein polita den zu hazten ikustea. Muxu pilo bat, etxeko poztasunarentzat. Askok maite zaitugu!



ANTZUOLA
Mila Lizarralde Iturbe
Ekainaren 28an, 62 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekuen partez!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitze Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



XAXAU KONPARTSA

BERGARA Arragoa taldearen kontzertua

Etzeko folk taldeak hasiko du aurtengo Berumuga jaialdia. Uztailean egingo diren ekitaldi guztiak eserita jarraitu beharko dira, segurtasun neurriak beteta. Euria egiten badu, Seminarioko karpan egingo dute emanaldia. *Gaur, egubakoitza, Errekalde parkean, 20:00etan.*



GOIENA

ARAMAIO Lorabarri azoka

Aramaioko ekoizleak eta kanpotik etorritakoak izango dira protagonistak. Guztira, hamar bat postu egongo dira. Musikarekin girotuko dute herriko ekoizleak babesteko azoka.

Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

EGUBAKOITZA 26

OÑATI Oroimen ekitaldia

Egiari Zor Fundazioaren eskutik Irunberriko gertaeren 30. urteurreneko ekitaldia. *San Martin hariztian, 19:00etan.*

OÑATI Amorante eta Trigger bakarlarriak

Eguraldiak laguntzen badu, gaztetxearen kanpoaldean egingo dute zuzeneko. *Antixenan, 20:00etan.*

BERGARA Aldanondo eta Maitane bikotea

Lekua erreserbatzeko, 943-76 35 51 telefonoa. *Tartufoko terrazan, 20:30etan.*

OÑATI Ganbara eta Hots abesbatzak

Uraren doinuak delako emanaldia. *Lazarraga lorategian, 22:00etan.*

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak

Kontzertua. *Zurrategin, 22:30etan.*

ZAPATUA 27

ANTZUOLA Aralarra irteera
Arrola taldekoekin. *Olaran etxean, 08:20etan.*

ARRASATE 'Arrasateko seme kuttunak' bisita gidatua

Esteban Garibairen eta Pedro Biteriren bizipenak kontatuko ditu

Ugutx Basauri gidariak: 11:00etan euskaraz eta 12:30etan gazteleraz. Izena, aurrez, *Arrasate.eus/ezagutu* helbidean.

Herriko plazan, 11:00etan.

OÑATI 'Basoa, lasaitasun iturri' bisita gidatua

Basoaren ezaugarriak ezagutzeko aukera. Izena, aurrez, *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* helbidean. *Arantzazuko parketxean, 11:00etan.*

OÑATI Herrixa Kantuan

Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik. *Foruen plazan, 12:30etan.*

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak

Marrazki kooperatiboak umeendako. *Zurrategin, 12:30etan.*

DOMEKA 28

ANTZUOLA 'Izan bidea' egitasmoa

Bi ibilbide, Herriko Plazatik irtenda. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

BERGARA 'Izan bidea' egitasmoa

Bi ibilbide, San Martin plazatik irtenda. *San Martin plazan, 09:00etan.*

ESKORIATZA San Pedro bezpera

10:00tan, txistulariak: 18:30etan, kanpai-joleak; 19:00etan, musika bandaren kalejira; eta 21:30etan, danborradako doinuak DJ

Motorekin, auzoz auzo. Balkoietan astinduko dituzte danborrak. *Eskoriatzan.*

ARAMAIO Salaberriko hariztira bisita gidatua

Bi txanda, biak euskaraz: 11:00etan eta 12:30etan. *Kiroldegian.*

BERGARA Musika bandaren kalejira

Desfilea hasteko, *Pobres y alegres* pieza joko dute. *San Martin plazan, 11:00etan.*

BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketa

Abuztuaren 31ra arte ikusgai. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

ARETXABALETA Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna

13:00etan, *performance-a*; 18:00etan, marrazki kolektiboa eta 19:00etan, elkarretaratzea. *Herriko Plazan.*

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak
Ipuin kontalaria, umeendako. *Zurrategin, 17:00etan.*

ARRASATE Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna

Elkarretaratzea. *Biteri plazan, 19:00etan.*

ESKORIATZA Huntza taldea

Streaming bidez emango dute kontzertua. *Inkernu tabernan, 22:00etan.*

ASTELEHENA 29

ESKORIATZA San Pedro eguna

10:00etan, txistularien diana; 12:00etan, meza nagusia; 13:00etan, trikitilarien kalejira; 19:00etan, musika bandaren kalejira; eta 22:30etan, musika kalerik kale DJ Motorekin. *Eskoriatzan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

OÑATI Emakume indigenen gaineko hitzaldia

Lolita Chavez guatemalarrak egingo du berba. Oñatiko Sare Feministak gonbidatuta *Gaztetxean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 1

BERGARA Garagardo dastatzea
Herritar guztiendako. *San Juan auzoan, 17:00etan.*

ANTZUOLA Jaiki Plaren aurkezpena

EH Bilduko kide Marian Beitalarrangoitiak eta Ainhoa Beolak egingo dute berba. *Torresoroan, 18:30etan.*

OÑATI Irunberriko arrolako gertaerak

Txemi Gorostizak egingo du berba, Itzaletik Argira zikloaren baitan. *Gaztetxean, 19:00etan.*

OÑATI 'Baldin bada' ikuskizuna

Shakti Olaizolak zuzenduta familiendako emanaldia. Musika eta akrobaziak bateratuko ditu. *Olaiturrin, 19:00etan.*

EGUENA 2

BERGARA Eskulan tailerrak

Helduendako saioa egingo dute Izederreko kideek. *Seminarioko karpan, 17:00etan.*

ANTZUOLA AKERen urteko batzarra

Besteak beste, denboraldiko diru-kontuak eta aldagela berriak izango dituzte hizpide. *Torresoroan, 18:15etan.*

OÑATI 'La mujer de la montaña' filma aire zabalean

Debalde, baina, edukiera mugatua denez, aurrez hartu behar dira txartelak udal webgunean edo Txokolateixan. *Plazako frontoian, 22:30etan.*

EGUBAKOITZA 3

OÑATI Odol-ateratzea

Udako oporren aurreko azken ateratzea egingo dute. *Enpresagintzan, 17:00etan.*

"Itxialdiaren osteko lehena delako izango da berezia Oñatiko kontzertua"

IBAN URIZAR 'AMORANTE' MUSIKARIA

Elgoibarko bakarlariak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztetxean. **Azkenean, oholta gainean.** Heldu da eguna. Oso gogotsu nago, egia esan. Konfinamenduaren osteko lehenengo kontzertua izango da, eta horregatik oso berezia izango da.

Zerbait berezia prestatu duzu Oñatirako?

Ez. *Amorante*-ren izaera zuzenekoetan ikusten da. Alde horretatik, zuzeneko ona egin gurako nuke. Oholtzan egoteko aukera izatea izugarria da, eta aprobetxatu egin beharko dut. Hain zuzen ere, orain arteko kantuak izango dira protagonista. *Amorante*-ren betiko kantuak.

Itxialdian egindako kantuak entzuteko aukera egongo da?

Egia esan, konfinamendua ez da oso probetxuzkoa izan ekoizpen aldetik. Bi seme-alaba ditut, eta lana, familia eta musika bateratzea oso zaila egin zait. Hortaz, ez dut denborarik eduki kantu berriak sortzeko. Eta gogo handirik ere ez. Musika munduan dihardugunok aldika atsedean hartzen dugu, indarberri ahazteko. Baina oraingo atsedendia oso bestelakoa izan da. Behartutakoa. Gogorra. Nork bere etxean kasuistika ezberdina bizi izan du, eta horretara egokitzea zaila izan da guztiondako.

Zein egoeratan harrapatu zintuen alarma egoerak?

Martxorako hainbat kontzertu nituen lotuta. Baita antzezlan batekin nuen proiektua. Horiek guztiak bertan behera geratu ziren. Batzuk irailean berreskuratuko ditugu, baina beste hainbat galdutzat eman ditut.

Musika munduan diharduzuenok hasi zarete tunelaren bukaera ikusten? Ez dakit zer esan. Normaltasunerako itzuleran



AMORANTE

bazirudienertainak edo txikiak garenok izango ginela lehenak argi hori ikusten. Bada, orain ikusten da *bolo*-ak egiten hasi direnak talde handiak direla. Ez daukat garbi ze egoeratan gaude. Are gehiago, ez da bakarrik musikarion egoera. Gure inguruan dauden beste teknikariak, argiztapenetakoak, soinuak... ere geldi daude. Profesional asko daude etorkizunarekin kezkatuta. Guztionatik espero dut normaltasun batera helduko garela.

Zure hirugarren diskoa izango dena daukazu esku artean. Oñatiko kontzertuan kanturen bat joko duzu?

Ez. Diskoa irailean kaleratuko dut. Hirugarrena izango da, *Amorante* eta *Manuela eta Brueghel* zarra lanen ostean. Ez naiz diskoak egiteko zalea. Batez ere, prozesu oso luzea eta gogorra izaten delako.

Nolakoa izango da diskoa?

Iluna. Beltza. Abenduan grabatu genuen, konfinamenduaren aurretik. Inork ez zekien zer bizi izango genuen martxotik

"ETORKIZUNA EZIN DUT IRUDIKATU; PROFESIONAL ASKO DAGO GELDI ORAINDIK ETA OSO GOGORRA DA"

aurrera. Hortaz, diskoaren tonua bat dator bizi izan dugunarekin. Baina kasualitatea hutsa da parekotasun hori. Oholtza gainean ezagutzen nautenek badakite nolakoak diren nire zuzenekoak: dinamika ezberdinak dituzte. Kontzertua hasi dezaket seriotasun puntu batekin, eta segituan ludiko puntu batera jo. Hortaz, kontzertuak oso ezberdinak irteten zaizkit. Horiekin alderatua, diskoa oso iluna atera zaigu. Bilbon grabatu nuen, Aitor Etxeberriaren produkzioarekin, eta *Forbidden Colours* diskoetxeak kaleratuko du. **Zein harreman daukazu Rodrigo Amarantekin eta Enrique Morentekin?** Bada, nire izen artistikoaren sorrera bi artista horien abizenetan oinarritzen dela. Biak miresten ditut. Morente kopla kantari espainiarra eta Amarante musika eta konpositore brasildarra. Euren abizenak hartu eta *Amorante* ipini nion nire buruari. Bestela ere, *maitale* esan gura duenez,

"IRAILEAN KALERATUKO DUT DISKOA. HIRUGARRENA. OSO ILUNA ATERA ZAIT. BELTZ KOLOREKOA"

ZINEMA

GASTEIZ

BOULEVARD

La posesion de Mary
Egunero, martitzena izan ezik: 17:50, 20:15. Martitzena: 17:50.

Cinema paradiso
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30. Martitzena (jatorrizko bertsoa): 17:30.

Personal assistant
Egunero, martitzena izan ezik: 17:40, 20:55. Martitzena: 17:40. Martitzena (jatorrizko bertsoa): 20:55.

Human lost
Egunero. 20:35.

La lista de los deseos
Martitzena: 20:15.

Bloodshot
Egunero: 18:10.

El hombre invisible
Egunero: 21:05.

Onward
Egunero,

martitzena izan ezik: 18:20, 21:15. Martitzena: 18:20.

The gentlemen
Egunero: 18:00, 20:45.

FLORIDA

Invisibles
Egunero: 19:30.

Onward
Egunero: 17:00.

Cuestion de justicia
Egunero: 19:45.

Mathias & Maxime (jatorrizko bertsoa)
Egunero: 19:50.

La familia Samuni (jatorrizko bertsoa)
Egunero: 17:05.

Los cazafantasmas
Egunero: 20:10.

Spy cat
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:15. Eguena: 17:00.

El lago de los cines (balleta)
Eguena: 19:00.

Personal assistant
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:30, 20:00. Eguena: 17:30.

Cinema paradiso
Egunero: 19:20.

La cinta de Alex
Egunero, martitzena izan ezik: 17:20, 19:55. Martitzena: 17:20.

Divino amor
Egunero, eguna izan ezik: 17:45. Eguena: 17:15.

Algunas bestias
Egunero: 17:45, 20:20.

Oro blanco
Egunero: 17:50.

Eclipse total (zine foruma)
Martitzena: 20:30.

La lista de los deseos
Martitzena: 20:00.

GORBEIA

The gentlemen
Egunero: 17:20, 20:05.

Parásitos
Egunero: 19:30.

El hombre invisible
Egunero: 19:30.

Onward
Egunero: 17:00, 19:45.

Invisibles
Egunero: 20:15.

Los cazafantasmas
Egunero: 17:10.

Queen & Slim
Egunero: 19:45.

Cuestion de justicia
Egunero: 17:00.

Spy cat
Egunero: 17:00.

Personal assistant
Egunero: 17:10, 19:55.

Cinema paradiso
Egunero: 19:20.

La cinta de Alex
Egunero: 19:20.

Cinema paradiso
Egunero: 17:00, 19:55.

La posesion de Mary
Egunero: 18:00, 20:20.

Valentine: la venganza oscura
Egunero: 17:50, 20:10.



Dakota Johnson eta Tracee Ellis Ross aktoreak. VOGUE



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Orain 40 urte

Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak. Kotxean, propaganda banatzen, bozgorailua hartu eta EAJko kanpaina-mezua eta leloa esatea tokatu zitzaidan lehenengo aldiz. Hori ilusioa! Bukaera beti "gora Euskadi!" esaten nuen eta ondok, nire aitak "... askatuta!", "gora Euskadi askatuta esaten da, Aintzane!". Oraindik ez genuen ETB, ez genuen kiroldegirik, Osakidetza oraindik sortzeko zegoen, ez genuen Ertzaintzarik... Guardia Zibila eta Polizia Nazionala zebiltzan gure kaleetan.

Gaur, ondo antolatutako Herria dugu, ez dago oraindik osorik, baina helburu hori lortzea luze badao ere alderdi abertzale batek ez du sekula etsiko. Nik ez dut etsiko. Baina lan handia egin dugu Herria eraikitzen. Europako iparraldearen pare gaude osasungintzan, gizarte zerbitzuetan, hezkuntzan... ikastolak sare publikoan daude. Gogoan dut ikastola klandestinoan Espainiako "inspektorea" etortzen zela noizbehinka guri lezioa hartzera. "¿Cuáles son las provincias vascongadas? Alava, Guipúzcoa y Vizcaya... Y Navarra?".

"Navarra independiente". Nola aldatu diren gauzak! 40 urte geroago, bozkatzera maskaraz joan behar dugu, gure mundu modernoa birus txerri batek mehatxatu duelako.

BUKATZEKO

Mimoz, gertutik eta gertukoentzat lanean

Herriko merkataritza eta ostalaritza babestea du helburu Abao komunikazio agentziak; baita Arteman-ek ere. Hala, herria eta herritarrak protagonista diren spot bana kaleratu dute. Bailarako udalek ere askotariko kanpainak egin dituzte

Maidar Arregi ARRASATE

Geldi eta isilik dagoen herria hilik dagoela azaleratu du pandemiak eta itxialdiak. Zorionez, asko dira horretaz jabetu direnak eta gure herrietako merkataritza eta ostalariei babesa erakusteko bideo-kanpainak abian jarri dituztenak. Horren isla dira, besteak beste, AZ Visual Media enpresa, Adox, Abao eta Arteman komunikazio agentziak; eta Arrasate, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko udalak. Herrian sinistu ez ezik, komunitatearen batasunak duen indarra defendatzen duten eragileak dira.

Komunitatea oinarri

Debagoieneko zein Euskal Herriko merkatarien ahotsa jaso dute arestian aipatutako ekimenez. Haatik, ahotsa herriari zein merkataritza eta ostalariei eman zaie sarean jada biral egin diren iragarkietan. Abao eta Arteman agentziek ekoiztu eta babestutako bi ekimenetan parte hartu duten merkatarietako bi dira, esaterako, Oñatiko Kimu loradendako Iban Gonzalez eta Aretxabaletako Kiloka dendako Kris Hernandez. "Tokiko merkatariek baino beste inork ez dizu hain gertuko laguntza eta zerbitzua



Kris Hernandez. ABAO

emango", dio Iban Gonzalezek. "Dendak landareak bezala dira: ez baditugu zaintzen, ez dute hazirik emango eta hil egingo dira. Urik gabeko loreak gara orain; lagundu gaitzazu berriz loratzen, herri hau zaindu eta apaintzeko", aitortzen du Kris Hernandezek.

Kultura, herriaren hezurdura

Musikaren indarrak baliatu dira bai Arteman eta baita Abao ere herriarenganaino iristeko. "#GoraHerrixa" bideoklipeko mezua oso zuzena da. Gure euskalkira



The Potes. ARTEMAN

moldatu dugu Negu Gorriak-en abestia, eta Arrasateko The Potes taldearen mezu positiboa zabaltzea lortu dugu", dio Artemanek. Abaok #zerokilometro filosofiarekin bat egin eta, ildo berean, letra esanguratsua dituen Bergarako Lemak taldearekin elkarlanean jardun du.

'Zero kilometro'

Gertukoari balioa eman dio Goienarekin izandako harremanetik jaio den Abao komunikazio agentziak, itxita dauden saltokien pertsianak irekitzeko asmoz jakin badaki-eta herriak soilik salba dezakeela herria. "Euskaraz, ez tiz betetzen den panelari deritzo *abao*. Eta komertzioak ere jendez betetzeko aldarria dago bideo hauetan. Komunikazio baliabideak erraztea dugu xede; zerbitzu afektibo eta efektiboa ematea, alegia. Zerbitzua Euskal Herri zabalean eskaintzen dugu, eta lau esparrutan: ekitaldien antolaketan, bideogintzan, komunikazio estrategian eta diseinuan. Atal horietako batetik sortu da, esaterako, komertzio txikia aintzat hartuta egindako bideoa. Komertzio hauek guztiek dute lotura Goiena Komunikazio Taldearekin, eta harreman horretatik sortu du Abaok bideo hau. Hedapena handia izan da eta Euskal Herriko tokiko hedabideetan ikusi da", dio Abaok.

2019an Arrasaten sortu den agentziaren nahia ere bada enpresa, komertzio zein erakundeei laguntzea, beraien komunikazioa eraginkorragoa izan dadin.

Abaoren ekimenak jarraipena du eta laster beste bideo bat zabalduko du, gure herriak bizirik jarrai dezan.

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 30EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BERGARAKO MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEK

ASIER ALTUNA "KIXI"-RI ELKARRIZKETA

goiena
20 URTE ZUEKIN.

